

# DIAGNOSTIKOA

LAAen berrazterketa

Laguntza teknikoa

TALLER DE IDEAS 

2007KO URRIA

EuskalHiria.NET  
Lurralde Estrategia Berria

**a. ALDAKETAZ BETERIKO HAMARKADA**

- a.1. HIRIEN MUNDUA
- a.2. BIZIMODU BERRIAK XXI. MENDEAN
- a.3. ALDAKETA PROZESUAK LURRALDE EUROPARREAN

**b. LURRALDEAREN DIAGNOSTIKOA. LAA ETA EUSKALHIRIA ESKUALDE-HIRI BERRIA**

- b.1. LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEEN HELBURUAK
- b.2. EGITURA ALDAKETAK LURRALDEAN

- b.2.1. HAZKUNDE EKONOMIKOA
- b.2.2. EGONKORTZE DEMOGRAFIKOA
- b.2.3. EZAGUTZAREN GIZARTERANTZ

- b.3. EUSKALHIRIA ESKUALDE-HIRIA
- b.4. ERROTULA LURRALDEA EUROPA BERRIAN
- b.5. INGURUNE FISIKOA ETA INGURUMENAREN KALITATEA
- b.6. FINKAMENDU SISTEMA
- b.7. ETXEBIZITZA ETA EGOITZA LURZOR
- b.8. JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA
- b.9. AZPIEGITURAK

- b.9.1. KANPO KONEXIOKO AZPIEGITURA HANDI
- b.9.2. ESKUALDE-HIRIA ARTIKULATZEKO AZPIEGITURAK

- b.10. MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ERRONKA
- b.11. LAA-ETATIK LURRALDE ESTRATEGIA BERRIRA


**c. ERANSKINA. LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEEN AGIRIAREN DIAGNOSTIKOA**

EuskalHiria.NET  
Lurralde Estrategia Berria

a.

# Aldaketaz Beteriko Hamarkada

EuskalHiria.NET  
Lurralde Estrategia Berria



## a.1. HIRIEN MUNDUA

Berrikuntza teknologikoak eta telekomunikazioen garapenak –Internet buru-antolamendu berri baten gorakada eragiten dute, eta guk antolamendu horren ezaugarri batzuk bakarrik ezagutzen ditugu. Globalizazioaren kontzeptua erabat zabaldu da. Merkataritza-hesien pixkanakako desagerraraztea, bloke ekonomiko handien sorrera eta merkatuen hedapena dira globalizazioaren ezaugarri nabarmenenak. Gizakiak betidanik baliatu du bere gaitasun teknologikoa, eta ingurumenak jartzen dizkion oztopoei edo mugei aurre egin die. Jakin badakigu, gaur egungo teknologia berrien erabileraren ondorioz, gure habitatarekin dugun harremana aldatzen ari dela, baina ez gara gai aldaketa horren eragina nolakoa izango den baloratzeko. Munduko gizarteek ingurunearekin duten harremana aldatzearekin batera, harreman ekonomikoak eta sozialak aldatzen dira. Egoera berriaren inguruan egindako balorazioei erreparaturik, jarrera baikorrak eta ezkorrak nahastu egiten dira. Horrela, batzuk arrisku berriak eta arazo berriak izango direla azpimarratzen duten bitartean, beste zenbaitek konfiantza handia jarri dute zientziaren eta teknikaren eskutik erdietsi daitezkeen lorpenen gainean. Egoeraren gainean egindako laburpen honetan, hala ere, benetan kezkatzen gaituen alderdi bat azpimarratu behar

da. Hain zuzen ere, J. Stiglitz 2001eko Ekonomiako Nobel Sariak, eta hainbat adituk “globalizazioaren ezinegona” kontzeptua erabiltzen dute globalizazioak etorkizunean izango duen bilakaeraren ondorio kezkarrienetako bat aipatzeko. Globalizazio eredu nagusiak garapen-bidean dauden herrialdeetan duen eragin suntsitzailearen ondorio zuzena da aipatu ezinegona. XX. mendeko azken hamarkadetan, eta XXI. mendeko lehen urte hauten batez ere, hiri-eraldaketa sakonak eta azkarrak ezagutu ditugu; gizateriaren historiako pasarte berri baten aurrean gaudela esan daiteke, non ekonomia, politika, gizartea eta bizi garen habitata, jakina, modu erabakigarrian eragiten diren. Inoiz ez bezalako urbanizazio-prozesu bat ezagutu dugu eta mugarik gabeko hiriak sortu direla esan daiteke. Munduko hiri nagusietan nabarmenki aldatu da espazioa denbora gutxian; horrekin batera, garapen-bidean dauden herrialdeetan hazkunde demografiko nabarmena gertatu da. Herrialde garatuetan, berriz, espazioaren kontsumoak izan duen hazkundera azpimarratu behar da. 1950. urtean biztanleriaren % 30 inguru hiritartzat jo zitekeen. 2000. urtean % 50ekoa zen portzentaje hori. 2025. urtera begira egindako aurreikuspenei erreparaturik, munduko biztanleriaren % 70 hiritarra izango dela azpimarratu behar da.



Demografoek ildo beretik aurreikusi dutenez, 2025ean 30 megahiri baino gehiago egongo dira; 8 milioitik gorako biztanleria duten hiriak dira megahiriak. Gainera, 500 hirik baino gehiagok milioi bat biztanle baino gehiago edukiko dituzte.

Horrenbestez, horrelako prozesu zabal bat aurrera ateratzea da gaur egun gizarteak gaitu behar duen aparteko erronka, azpiegiturak eta ingurumena bat eginez beti. Prozesu kuantitatibo bat baino zerbait gehiago da, izan ere, hiriak munduko ekonomia artikulatzen eta antolatzen duten nodoak dira, eta gero eta sendagoa da hiriek prozesu honetan erakutsitako lidergoa. Gainera, hirien konpromisoa lortu ezean, ezinezkoa izango da garapen iraunkorraren printzipioa betetzea eta planetako bizi-kalitateari eustea. Horregatik guztiagatik diogu XXI. mendeko hirien antolamendua dela gizateriak gaur egun aurre egin beharreko erronka nagusietako bat. Zentzu horretan, Sassen-en hitzak gogora ekarriz, hiriek, ekonomian gero eta protagonistago diren hiriek, “nazioarteko lehiakortasunaren eraginari aurre egin beharko diote”. Hiriak nabarmenki indartuko dira, nazioarteko merkataritzako oztupoak pixkanaka gaituztean eta garraio-sistemak eta komunikazio-sistemak hobetuztean. Gaur egun,

gero eta garrantzi gutxiago ematen zaie Estatuei banakako gisa ekonomia globalaren baitan. Izan ere, batzuetan Estatuak nazioz gaituzte erakundeen esku uzten dute boterea eta, era berean, eskualdeen eta hirien esku uzten dute. Ekonomia global honetan, enpresek gero eta gehiago behar dituzte euren produkzio propioa laguntzeko zerbitzuak: zerbitzu finantzarioak, juridikoak, kudeaketakoak, berrikuntzarekin, diseinuarekin eta administrazioarekin erlazioatutakoak, produkzio-teknologia, mantentzea, logistika eta komunikazioekin erlazioa dutenak, handizkako banaketako zerbitzuak eta publizitatekoak.

Zerbitzu aurreratu konplexuak, anitzak eta espezializatuak behar dira eta, horregatik, enpresa espezializatuera jotzen da, normalean, zerbitzu horiek kontratatzeke, enpresa batean lan finkoa duten profesionalak kontratatzea baino merkeagoa baita. Horrela, bada, hiri garrantzitsuenetan, hau da, masa kritiko jakin bat duten hirietan, “zerbitzu-esparrua” sortzen da. Nazioartean aldaketa garrantzitsuak ari dira gertatzen boterea egituratzeko eta banatzeko orduan. Estatu asko eta asko txikiak eta ahulegiak dira nazioartean botere, aberastasun, merkataritza eta teknologiarekin erlazioan gertatzen diren fluxu

globalak kontrolatu ahal izateko, baina handiegiak eta heterogeneoegiak dira, ordea, Estatuako herritarren gizarte-aniztasuna eta kultur aniztasuna islatzeko. Beste alde batetik, Estatuak zilegitasuna galtzen ari dira ordezkari- eta antolamendu-organo eraginkor gisa eta, testuinguru horretan, hiriek eta eskualdeek baldintza pribilegiatuak dituzte Estatuari dagozkien funtzioak betetzeko.

Gaur egungo mundu-mailako ekonomian gero eta protagonismo gutxiago dute herrialdeek eta gero eta garrantzitsuagoa da hiriek eta eskualdeek betetzen duten funtzioa. Kontuan hartu behar da hiriak eta eskualdeak direla enpresei lehiatzeko abantailak emateko eta herritarren bizi-kalitatea ziurtatzeko gaitasun gehien duten lurralde-esparruak. Hiriek lehiatzeko abantailak sor ditzakete, horretarako besteak beste hiri-egitura eraginkorrak eraikitzen badituzte, sustatu nahi diren jardueretarako berariazko azpiegiturak eta ekipamenduak bideratzen badituzte, prestakuntza-programa egokiak garatzen badira, jarduera jakin batzuk sustatzeko eta laguntzeko organoak eratzen badira, itun estrategikoak lortzen badira, eta abar. Hiriek, enpresek bezala, inguruan duten testuinguru zabaleko gertaerak eta ezaugarriak ezagutu behar dituzte gero eta gehiago eta, hori lortzeko, lan-metodo berriak jarraitu behar dira eta hirigintza

eta lurraldearen antolamenduan tresna berriak erabili behar dira. Nazio-mailako gobernuek gero eta gaitasun eskasagoa erakusten dute berrikuntza sustatzeko, eta gizarte gero eta irekiagoa eta lehiakorragoa den ingurune batean behar den bezala bideratzeko. Eta, testuinguru horretan, hiriek dagozkien protagonismoa bereganatu behar dute, eta horretarako ahalmen handia dutela azpimarratu behar da.

Gauzak horrela, gaur egun gure hirien arrakastak eta porrotak gure herrialdeen arrakastak eta porrotak izango dira neurri batean. Munduko Bankua eta Garapenerako Banku Inter Amerikarra hasi dira, dagoeneko, nazioen garapenera zuzentzen dituzten inbertsio-estrategiak berrorientatzen, eta hiriak hartu dituzte ardatz gisa. Lehiakortasun ekonomikoa, gizarte-oreka, bizi-kalitatea eta ingurumen-iraunkortasuna bezalako alderdi garrantzitsuak, beraz, talde bezala birstortzeko eta gure hiriak eta eskualdeak gobernatzeko erakusten dugun gaitasunaren mende geratuko dira. Azken finean, berritzeko erakusten dugun gaitasunaren mende eta gero eta globalizatuagoa dagoen mundu batean berrikuntzak beste hiri batzuekin partekatuzko erakusten dugun gaitasunaren mende geratuko direla esan daiteke.



## a.2 BIZIMODU BERRIAK XXI. MENDEAN

Aldaketa oso garrantzitsuak ari dira gertatzen munduko hiri nagusietan. Garapen-bidean dauden herrialdeetan hiri-hazkundeak tasa ikusgarriak lortu ditu eta herrialde garatuetan, bestalde, hiri handiak gero eta zabalagoak diren eskualde-hirietan sakabanatuta ikus daitezke eta inoiz ez bezalako aldaketa-eta eraldaketa-prozesuak nabarmendu daitezke.

Azterlan asko bat datoz mundu-mailan gertatzen ari den urbanizazio-prozesuaren intentsitatea ebaluatzean. 1950ean biztanleriaren % 30 jo zitekeen hiritartzat. 2000. urtean % 50ekoa zen portzentaje hori. 2025. urtera begira egindako aurreikuspenei erreparatuz, munduko biztanleriaren % 70 hiritarra izango dela azpimarratu behar da.

Demografoek ildo beretik aurreikusi dutenez, 2025ean 30 megahiri baino gehiago egongo dira; 8 milioitik gorako biztanleria duten hiriak dira megahiriak. Gainera, 500 hirik baino gehiagok milioi bat biztanle baino gehiago edukiko dituzte. Horrenbestez, horrelako prozesu zabal bat aurrera ateratzea da gaur egun gizarteak gainditu behar duen aparteko erronka, azpiegiturak eta ingurumena bat eginez beti.

Baina prozesu kuantitatibo bat baino zerbait gehiago da, izan ere, hiriak munduko ekonomia artikulatzen eta antolatzen duten nodoak dira, eta gero eta sendoagoa da hiriek prozesu honetan erakutsitako lidergoa.

Gainera, hirien konpromisoa lortu ezean, ezinezkoa izango da garapen iraunkorraren printzipioa betetzea eta planetako bizi-kalitateari eustea.

Horrenbestez, funtsezkoa da XXI. mendeko hirien arazoei eta aukerei modu koherentean erantzutea, ez bakarrik hirigintzaren eta lurralde-antolamenduaren ikuspegitik, baita ikuspegi politiko, ekonomiko, sozial eta kulturaletik ere.

Horregatik guztiagatik diogu XXI. mendeko hirien antolamendua dela gizateriak gaur egun aurre egin beharreko erronka nagusietako bat. Ezinbestekoa da erakunde publikoek, sektore pribatuak, gizarte zibilak, unibertsitateek, profesionalek eta gizarteko estamentu guztiek batera jardutea.

Gizateriaren historian inoiz ez bezalako aldaketa garrantzitsuak ari dira gertatzen munduko hainbat hiritan gaur egun, eta mundu-mailan izandako

aldaketaren ondorioz sortutako hiri-tentsioak inoizko garrantzitsuenak direla azpimarratu behar da. Mende amaierako hiri-fenomeno azpimarragarriena goraka ari den eskualde-hiriaren kontzeptua da. Eskuarki, ondorengo aldaketa-prozesuak aztertu dira:

### **Europar eta herrialde garatu batzuetan**

Aglomerazio-ekonomietara lotutako indar zentripetu tradizionalak ahultzen ari direla esan daiteke. Aglomerazio-ekonomia horiek ekarri zuten industria-hiriaren eta izaera trinkoko lehen belaunaldiko zerbitzu-hiriaren gorakada; kasu horretan, egoitza-erabilera eta produkzio-jarduerak hiriaren mugen barruan garatzen ziren.

Bigarrenik, indar zentrifugoen gorakada azpimarratu behar da (metaketa-kostuak, lurzorua prezioak eta naturaren eta landa-ingurunearen balorazio berria dira indar zentrifugoak). Ondorioz, jarduera ugari kokapena hiriko ohiko mugetatik kanpo geratzen da. Horrela, hiritik kanpo kokatzen dira industria-jarduerak, bulego-parkeak, jarduera logistikoak, dentsitate ertain

eta baxuko egoitza, hainbat merkataritza tipologia, unibertsitate-erakundeak, aisialdiko jarduerak, eta abar. Horrela, beraz, lurralde berriak sortzen dira dentsitate baxuagoko inguru metropolitarretan. Sakabanatuago geratzen direnez, konexio fisikoak eta telematikoak behar dira ezinbestean.

Hiri-tentsioen kasuan deskribatu den eskemarekin batera, hirien erdialdean hornidura-jarduerak eta merkataritza-tipologia berriak indartzen ari direla ikus daiteke, eta indartzen ari dira, halaber, enplegu kualifikatua eta egoitza sofistikatua. Izan ere, hiri-berrikuntzako lan ugari egin da eta birmoldaketa ekonomikoaren ondorioz hutsik geratutako espazioetan zentraltasun berriko eremuak sortzeko lan ugari egin da; era berean zaharkituta geratutako industria-egituren edo azpiegitura edo ekipamendu zaharren, hala nola portu, trenbide, instalazio militar, eta abarren eraispena egin da.

### **Amerikako Estatu Batuetako hirietan**

Desoreka sakonak azpimarratu behar dira hiriko erdiguneen, lehen uztai marjinalen eta aldiri aberatsen artean. Aldiriak, orain arte egoitzarako dentsitate

baxuko leku klasikoa izan direnak, enplegua kokatzeko leku nagusi gisa hasi dira erabiltzen. 1970. urtean enpleguaren % 25 bakarrik kokatzen zen aldirietan. Gaur egun enpleguaren ia % 60 kokatzen da, dagoeneko, eskualde-hiriko aldirietan. Goi-mailako teknologiko finkamenduak sortu dira, Boston-eko 128 Ibilbidea, adibidez, edo Filadelfiako 202-a, Microsoft-ek Seattle-en dituen finkamenduak, Ipar Karolinako Ikerketa Triangelua, Silicon Valley, Informatikatik Internetera pasa dena, eta abar. Egoitza-hazkunde lausoa lortu da eta aldirietan jarduera ekonomiko berriak nabarmendu dira, baina, aldi berean, hiri tradizionalen erdiguneek bizitasuna eta erakargarritasuna galdu dute eta nabarmen narriatu dira.

Hiri amerikarrek gaintitu nahi dituzten erronka nagusien artean hirien erdiguneak berreskuratzeko erronka aipatu behar da.


Urbanizazio lausoaren gorakada masiboa edo "Sprawl". Arrazoizko muga batzuen barruan nolabaiteko trinkotasunarekin izaten den hiri-hazkunde kontrolatzeko ezintasuna. "Sprawl" delakoak ondorengo arazoak dakartza, besteak beste: trafikoarekin erlazionatutako arazoak, garraio publikoko sistemak erabiltzeko ezintasuna, isolamendu fisikoa eta gizarte-koehesiorik

eza, naturguneak eta nekazaritza-eremu baliagarriak suntsitzea, energia-kontsumo masiboa, eta abar. Prozesu horrek hiri amerikarretan duen garrantzia ulertzeko, nahikoa da pare bat adibide aipatzea: New York-eko eremu metropolitarraren hazkunde demografikoa % 5ekoa izan da azken 25 urteetan. Eremu urbanizatuak, haatik, % 60ko hazkunde ezagutu du. Azken 50 urteetan Los Angeles-eko eskualde-hiriak laukoiztu egin du biztanleria eta urbanizazioak betetako azalera 20 aldiz handiagoa da.

Amaitzeko, hiri amerikarren kontraesanen artean, azpimarratzekoa da ez dela gaitasunik eduki eskualde-hiriko udalerrietako gobernuak koordinatzeko sistema eraginkorrek martxan jartzeko edo proposatzeko. Izan ere, gogoan hartu behar da eskualde-hiriak oso zatituta daudela ikuspegi politikotik eta administratibotik.

### **Hiriak garapen-bidean dauden herrialdeetan**

Garapen-bidean dauden herrialdeetan, Asian eta Latinoamerikan bereziki, biztanleria hazkunde natural indartsua ari da ezagutzen eta azpimarratzekoa da, halaber, herrialde horietako etorkin-olde masiboa.



Begi-bistakoa da ezinezkoa dela etxebizitzaren arazoari eta oinarritzko hiri-zerbitzuen arazoei behar den bezala erantzutea. Ondorioz, goraka ari dira hirien kanpoaldean kokatutako finkamendu espontaneo marjinal eta legez kanpokoak.

Gauzak horrela, gizarte-bazterkeria sortzen da, eta ekonomia formalean, gizartean, kulturen eta hiriak eskaintzen dituen garapen-aukera nagusietan parte hartzeko ateak ixten dira. Eta, horren guztiaren ondorioz, hirietan segurtasun-falta gero eta nabarmenagoa da.

Egia da zerbitzuak eskaintzeko eta denborarekin etxebizitzak hobetzeko aukera egon badagoela, baina, edozein modutan, hiriaren formaren eta egituraren aurka egingo genuke. Hiria sustatzaile espontaneoek, legez kanpokoek edo “piratek”, diseinatzen dute.

Horrelakoetan arazoak izaten dira, urbanizazioa gauzatzeko azkartasuna dela eta, tokiko gobernuek ez baitute gaitasunik izaten etxebizitza eta oinarritzko hiri-zerbitzuak eskaintzeko eta tokiko ekonomiak ez direlako gai izaten enplegu nahikoa sortzeko.

Londresek 130 urte behar izan zituen milioi bat biztanle izatetik 8 milioi izatera iristeko. Mexikok 30 urte bakarrik behar izan zituen (40tik 70era) hazkunde

bera lortzeko eta, ondoren, 16 urtetan, biztanleria bikoiztu zuen berriro. Adibide horiek egokiak dira munduko hainbat hiritan garatzen ari den hazkunde izugarriaren nondik norakoak erakusteko.

Mundu osoan hiriarekin erlazionatutako alderdi oro eredu polizentriko, zatitu eta eten bat osatzera zuzentzen da; oraindik ondo zehaztu gabe dagoen eskualde-hiri baten aurrean gaude eta anitza eta oso aldakorra da Inner City eta Outer Cities delakoen arteko funtzio-banaketa. Europari erreparatzen bazaio, F. Ascher-ek metapoliaren inguruan landu duen ideian, eremu urbanizatu handietan, Frantzian bereziki, berriki izan diren azpiurbanizazio-prozesuen irakurketa irekia egiten du.

Hiri-forma berri baten aurrean gaude. F. Ascher-ek adierazi duenez, “Metapoli” izenarekin ezagutzen da, eta “orain arte ezagutu ditugun metropolien kontzeptua atzean uzten du eta ikuspegi anitzetatik osatzen du”. Espazio heterogeneoek osatutako hiri-errealitateak dira metapoliak, eta sistema konurbatuetan oinarritutako hazkundearen ondorioz, ez dira bata bestearen alboan egoten beti; bereizteko zailak diren espazioak izan ohi dira, baina ez dute berdin pentsatzen habitat- eta jarduera-unitate bat osatzen duten bertako biztanleek.



Baina hiriaren kanpoaldeaz edo hiri-inguruko hazkunderaz hitz egiteaz gain, alderdi gehiago hartu behar dira kontuan, ezin baita ahaztu harreman sozial eta ekonomikoen sistema bat dagoela oinarrian eta, udalerria edo bestelako administrazio-mugak edozein izanik, eta berriki sortutako harremanak badira ere, gaur egungo errealitatearen funtsa direla. Lurraldean eragina duen gauza oro objetc-trouvé baten antzera aurkezten da eta lortzen den osotasuna interpretatzeko ezinbestekoa da. Metapoliak enplegu-eremu bakar bat definitzen duten espazio multzo bat dira.

Nahiz eta horrelako lekuek hiri handiekiko duten mendetasuna aldatu egiten den batetik bestera, habitat- eta jarduera-unitate berriak osatzen dituztela esan daiteke.

Landa frantsesak –bocage- horren adibide dira. Izaera hiritarra zabaldu bada ere, sortutako gune berriak ez dira hiri edo udal-muga bakar batekin identifikatzen. Baina edge city delakoaren kasuan esan den bezala, bertan bizi direnek badakite ondo bereizten. Gaur egungo beste habitat eredu bat aditu italiarrek hiri lausoa -città diffusa- izenarekin ezagutzen dutena da. Hiri handiekiko nahiko independentea da, batez ere inguruan.

Gauza bera gertatzen da hainbat hiri ertainen inguruan eta intentsitate desberdineko hainbat eskualdetan, eremu landatarrak eta eremu hiritarrak nahastuz.

Hiri lausoaren kontzeptuak barne hartzen dituen hirietan, jarduera ekonomiko nagusia errepide-sare baten gainean antolatzen da, ugariak dira tailer eta fabrika txikiak, eta etxebizitzekin eta zerbitzuekin nahastuta ikus daitezke, hiri gune tradizionalekin elkarreragiten. Horrelakoa da errealitatea Véneto, Emilia-Romagna edo Lombardia bezalako eskualdeetan, bai eta Rhur, Flandes edo Rodano bezalako eskualdeetan eta Kataluniako zenbait lekutan ere. Kasu guztietan agerian geratzen da populatze-sistemek, lursailak barne, eta egungo azpiegiturek gero eta zailagoa egiten dutela landa guneen –geratzen dena– eta gune hiritarren arteko erlazioa.

”Eredu post-aldiritar” baten aurrean gaude. Elkarreragin handiko eskualde polinuklearretan bereiz daiteke eta azpiegitura tradizionalekin zein sare berrien laguntza baliatzen ditu. Egoitza eta lanaren, eta horrek sortutako zerbitzuen, muturreko sakabanaketa horri esker, nolabaiteko kaos berezi bat osatzen da, produkzio handia duen eta oso industrializatua dagoen Po ibaian zehar, Parmatik hasi eta Regio Emilia-raino. Eskualde-mailako urbanizazio eredu konplexuak sortu dira eta, ondorioz, logikoa den moduan, hiri-forma lausoaren kontrola –sprawl delakoaren kontrola-, eta hiri-hazkundera dituen agerpen desberdinen ulerkuntza bera, gai nagusi bihurtzen dira berriro ere. Hiri garaikideen edo horien iraunkortasunaren gaineko hausnarketa ere gai garrantzitsu bat bezala aurkezten da eta, era

berean, hiriguneak birsortzeko modu anitzak eta baterakoak ere aztergai bihurtzen dira. Zentralizazioa eta deszentralizazioa, teorikoki aurkakoak diren bi kontzeptuak, aldi berean gertatzen dira. Behar bada, Rem Koolhaas arkitekto holandarrak zorrotasun handiarekin aurkeztutako “hiri generikoa” lortzea da erronka nagusia. Ez dira nahastu behar hiri modernoa eta hiri garaikidea, forma anitza eta konplexua. Azken hori unibertsaltzat, erregulartasun handiko egituratzat, jotzen da askotan. Hiriak aireportuak bezalakoak al dira ala izan al daitezke? Koolhaas-i, arkitekto askori bezala, ez zaio bat ere atsegin hiriaren kanpoaldea edo hiri-ingurua lantzea, eta nahiago du megaegituraren mailan lan egin, hiriko arazoak konpontzen lagunduko duen arkitektura handi baten baitan lan egin. Baina, aldi berean, hiriaren kanpoalde konplexua goratzen du.

Hiri garaikideetan agerian geratzen diren ezaugarriak oso antzekoak dira guztiak, nola Parisen hala Atlantan, aldiri berrietan antzemandako eraikuntzen erregulartasunari eta antzekotasunari dagokienez, eta, tokiko berezitasunez haraindi, guztietan hiri-errealitate dinamiko eta aldakor batek berezkoak dituen abiadura, bitartekoak eta indarra antzeman daitezke. Haatik, eraikitakoa goraiatzen da, baina ez da kezkarik agertzen hiri iraunkorrak ote diren baieztatzeko. Koolhaas-ek hiri-kaosak utzitako eraginak modu probokatzailan nahasten ditu eta arkitektura bera abentura kaotiko baten antzera ulertzen du. Melun Sénart eskualdeko lehiaketara aurkeztutako proiektuan jada

ikus daitezke horrelako pertzepzioen aurrekariak, faseak eta interfaseak eta jarduera-fluxuak eta denbora-fluxuak bereizi zituenean. Hiri-baldintza konplexuetan kokatutako edukiontzi arkitektonikoen kontzepzio nodala aurkeztu zuen proiektu hartan. Koolhaas-ek ez du hiri idealaz hitz egiten, baizik eta hiri errealaz, munduko antzoki handian gizarteak erabakitako moduan antolatutako hiria osatzen duten zati guztiez.


Testuinguru horretan, Europak polizentrismoaren aldeko apustua egin du, kontinente osoari begira Europar Batasuneko politikak jarraituko dituelarik, eskualde osoari begira zein eremu metropolitarrari begira. Polizentrismoaren bitartez egoki erantzuten zaio egoera berriari. Egokia da finkamendu tradizionalen sistemei erantzuteko eta aukerak ematen ditu lurraldeko hiri-finkamenduen sakabanaketa nahasia antolatzeko. Europa ahalegin handia egiten ari da gaur egun Abiadura Handiko Trenbide Sare garrantzitsu eta indartsu bat osatzeko. Era berean, aireportu eta autobideen sistema egoki bat eskaintzea funtsezkoa izango da eta azpiegitura digital indartsu bat egituratu beharko da tamaina ertaineko hiriek gero eta integratuagoa eta kohesionatuagoa dagoen hiri-sistema batean elkarrengaita nahi bada. Azken belaunaldiko konexio-azpiegitura horiei esker, gaur egun tamaina ertaineko hiriak lehiakor izan daitezke produkzio-jarduera jakin batzuk garatzeko orduan, baina aukera gehiago dute gizarte-kohesioa lortzeko eta

**Agglomerations**

- $\geq 5.000.000$  inh.
- 2.000.000 - < 5.000.000 inh.
- 750.000 - < 2.000.000 inh.
- Smaller capital cities in EU Member States and in Accession Countries

- New global integration zones?
- Existing zone of significant global integration

Source for the agglomeration data:  
Population Division of the Department of Economic and Social Affairs of the United Nations Secretariat (1998);  
World Urbanization Prospects: The 1999 Revision



ingurumen-iraunkortasuna eta kultur iraunkortasuna lortzeko. XXI. mendeko hiriak antolatzeko orduan sortutako etsipenari eta kaosari aurre egiteko modu egokia izan daiteke hiri-sistema orekatuak, nodo koherenteak eta hiri-identitate handikoak dituztenak, jarraitzea. Horrez gain, polizentrismoa aukera oso interesgarria da eremu metropolitarrak, gero eta konplexuagoak diren lurraldeak, artikulatzeko.

Munduko hainbat eskualdetan, Asia, Latinoamerika eta Afrikako zenbait hiriburu handitan bereziki, finkamenduek dituzten ezaugarriak erreparatuz esan daiteke zailtasun ugari izango dela sortuko diren megahiritan agintzeko eta lurralde-oreka eta –artikulazioa lortzeko. Gizateriaren historian inoiz ez bezalako aldaketa garrantzitsuak ari dira gertatzen hirietan gaur egun, eta mundu-mailan izandako aldaketaren ondorioz sortutako hiri-tentsioak, inoizko garrantzitsuenak direla azpimarratu behar da. Horrela da oraintxe deskribatu ditugun herrialde garatuetan zein ondorengo atalean aurkezten ditugun hirugarren munduko hirietan.



## a.3 ALDAKETA PROZESUAK LURRALDE EUROPARREAN

Testuinguru horretan, Europako hiri-sistema handietan tentsioak eta eraldaketak jasan behar dituzte. Ondorengoak laburbildu dira:

### 1. Megalopolia hegoalderantz zabaldu da

Megalopoliaren edo Europako Ardatzaren grabitate-zentroa hegoalderantz mugitu da. Mugimendu horren ondorioz, Ingalaterrako zona batzuk atzera egin dute eta Italiako iparraldeko espazio batzuk aurrera egin dute zerbait. Hori da, zalantzarik gabe, Europako hirien sisteman bereizten diren tentsioen eta mugimenduen funtsezko alderdia. Joan den hamarkadetan Kaliforniak Amerikako Estatu Batuetako Ekialdeko Kostaldearen gainetik lortu zuen protagonismoaren antzera, gaur egun Arku Mediterranea, Europako Ardatzarekin Italiako iparraldetik eta, bereziki, Milango eskualde metropolitarretik, konektatzen dena, nabarmenki ari da indartzen.

### 2. Eragindako Garapen Espazioak


Europako Ardatzak eragindako garapen-espazioak sortu ditu denboran bi alboetara. Mendebaldetik Paris eta Lyonera iristen da eta ekialdetik Berlin eta Vienaraino. Megalopolia eta eragindako garapen-espazioak dira Europa-mailan garatu beharreko eremu nagusiak, kontinenteko ekonomiaren gaur egungo eragile nagusiak. Hainbat "lotura" ezartzeke daude Europako espazio zentral hori Ekialdeko Europarekin konektatzeko eta eskualde atlantiko frantsesak Pariseko nodoarekin bat egiteko.


### 3. Hegoaldeko Iparraldearen gorakada

Espazio zentral horrek eragindako garapen berriak Italia hegoaldera eta Iberiar Penintsularen ekialdera zuzentzen dira. “Hegoaldeko iparraldea” izeneko arku dinamiko berri bat sortu da horrela, besteak beste Erroma, Marseilla, Bartzelona eta Valentzia bezalako hiri mediterraneo garrantzitsuek osatuta. Espainiako Ardatz Mediterraneo hegoalderantz luzatzeko eta Zaragoza-Madril noranzkoa duen ardatz sendoagoa bat osatzeko tentsioak daude. Urrutiago geratzen diren hiri-nodoak, Lisboa eta Sevilla adibidez, Madrilekin konektatzeko akzioak jarri dira martxan.

### 4. “Goi-mailako Teknologien Orbita”

Berrikuntza teknologikoa garapena lortzeko faktore nagusia da gaur egun eta, ildo horretan, garrantzi handikoa da “Goi-mailako Teknologien Orbita” izeneko lerroa kontuan hartzea. Iberiar Penintsula orbita horretatik kanpo geratzen da orokorrean. Mediterraneo kostalde frantsesa da garapen teknologiko garrantzitsua lortu duen eta Europako zona horretan kokatuta dagoen Europa hegoaldeko espazio bakarra. Galizia Europako Goi-mailako Teknologien Orbitan sartzeko erronkari aurre egin nahi zaio, funtsezkoa baita, besteak beste, gure oinarri ekonomikoaren mailakako dibertsifikazioa ziurtatzeko.





### 5. “Zailtasunen Diagonala”

Europako eszenategi orokor horren barruan “Zailtasunen diagonala” izenarekin ezagutzen den lerro bat ikus daiteke. Europako iparraldeko sistemaren eta hegoaldekoaren, dinamikoagoa den hegoaldeko sistemaren, arteko muga adierazten du. Diagonalaren iparraldean Europako hirien sistemak dituen arazo ekonomikoen eta egiturazkoen zati esanguratsu bat biltzen da. Galizia kontrako egoera batean dago makroespazio europarraren baitan, izan ere, kontinenteko dinamismo guneetatik eta sortzen ari diren espazio berrietatik urrun geratzen da. Arku Atlantikoaren kanpoaldean dago eta, orokorrean, egiturazko bilakaera negatiboa izaten da bertan.

### 6. Biztanleria-banaketaren tentsioak Europan

Europako Erkidegoko udalerriei dagokien bilakaera-kartografiari erreparatuz, Europako Erkidegoko eskualdeetan dentsifikazio eta despobulatzearen tentsioak ikus daitezke. Azken hamarkadetan populatzean izandako bilakaerari dagokionez, ondorengo ondorioak atera daitezke:

## 6.1. Izaera duala

Lurraldearen zona batzuen dentsifikazioa gertatzen den bitartean, beste zona batzuetan despopulatzea ari da nagusitzen. Euroeskualde batetik bestera nabarmenki aldatzen da dentsifikazio-zonen eta despopulatze-zonen arteko proportzioa. Alemaniari dagokionez, herrialdearen erditik hegoaldera lortu den hazkunde demografikoak erditik iparraldera lortu dena gainditu du. Frantziako hego-ekialdeko dinamismo berezia azpimarratu behar da. Espainian, Andaluzian eta Murtzian, eta Portugalgo Algarvean, Mezzogiorno italiarrean, eta abar. Desberdintasun horiek eskualde-mailan errepikatzen dira eta gero eta agerikoagoa da landa guneen despopulatzea, hiri-esparru nagusietan gertatzen ari den dentsifikazioaren parean.

## 6.2. Hazkundera eta azpiurbanizazioa Europako hiri nagusietan

Eremu metropolitarrak nagusien hazkundera azpimarratu behar da. Barne-dinamikari dagokionez, erdiguneetan egoitza-biztanleria galdu egin da eta eskualde metropolitarrak osatzen duten udalerrietan azpiurbanizazio-prozesuak garatu eta sakabanaketa demografikoa gertatu da. Horrelako fenomeno batek espazio-desoreka eta gizarte-desoreka dakartza. Prozesu horren eragina bereziki bizia da Frantzian, Paris inguruan; Portugalen, Lisboa eta Oporto inguruan; Espainian, Madril, Bartzelona eta eskualde-mailako

hainbat hiriburutan; Grezian, Atenas inguruan eta Tesalonika inguruan; Italian oso orokortuta dagoen fenomeno bat dela esan daiteke eta Erroma, Milan eta Turin bezalako hiriez gain, Verona, Padua, Parma, eta abar bezalako hiri ertainak eragiten ditu.

Badirudi horrelako fenomenoek indar handia dutela gaur egun Europar Batasunaren hegoaldeko herrialdeetan. Izan ere, hiri handietako azpiurbanizazioa eta deskontzentrazio demografikoa lehenagotik ezagutzen da Europako erditik iparralderako herrialdeetan. Lehen esandakoa gogora ekarriz, eskualde metropolitarrak handiak zabaldu ahala, horien erdiguneetan gainbehera demografikoa gertatzen da. Azken hamarkadan biztanleria-galeraren fenomenoak eragin gehien izan duen zonen artean, betidaniko landa-eremuak ikus daitezke, bai eta aglomerazio nagusietako erdigune asko ere. Eskuarki, fenomeno hori garbiago ikus daiteke Europar Batasunaren erditik iparraldera eta, batez ere, Britainia Handian, Belgikan, Luxenburgon eta Danimarkan. Antzeko egoerak hasi dira azaleratzen EBko hegoaldeko hainbat herrialdeetan, Italian esate baterako, eta, neurri txikiago batean, Espainian eta Portugalen. Biztanleria-galerak eragindako horrelako tentsio garrantzitsuen eragina bereziki nabarmena da aglomerazio handietan. Horien artean aipa daitezke: Londres, Paris, Brusela, Milan, Munich eta Kopenhague.



### 6.3. Litoralizazio-fenomenoak

Litoralizatorako joera orokorrean hedatu dela esan daiteke, hau da, kostaldeko inguruen dentsifikazio erlatiboa bilatzen da, barrualdeko inguruekiko. Zalantzarik gabe, kostaldeko inguruak oso erakargarriak dira eta, horregatik, zenbaiten dentsifikazioa gero eta nabarmenagoa da, batez ere Europar Batasunaren lurraldearen erditik hegoalderako inguruetan.

Fenomeno hori bereziki ezagutzen da Portugalen, Algarveko kostaldean eta Setúbal-Braga korridore etenean. Frantzia ere eragin bizia du aipatu fenomenoak, kostalde mediterraneoan eta itsasertz atlantikoan. Italian kostalde adriatikoa eta Sizilia eta Sardinia uharteak eragiten ditu batik bat. Grezian Itsaso Jonikoa eta Kreta uhartea bereziki. Espainian oso indartsua da litoralizazio-prozesua arku mediterraneoan eta Galiziako kostalde atlantikoan; prozesuak indarra galtzen du, ordea, itsasertz kantauriarrean.

Europar Batasuneko iparraldeko herrialdeetan biztanleriaren kontzentrazio demografiko garrantzitsuak aurki daitezke kostaldeko hainbat gunetan, batez ere Holandan eta herrialde eskandinaviarretan. Gaur egun, haatik, ezin daiteke esan kostaldearen dentsifikazio-prozesu indartsu bat gertatzen ari denik; salbuespena dira Alemaniako inguru jakin batzuk eta Erresuma



Batuko kostaldeko hainbat hiri txiki eta erakargarren inguru jakin batzuk. Irlandaren ekialdean eta hego-ekialdean kostaldeko hiri-aglomerazio garrantzitsuenen inguruan ikus daiteke litoralizazio-prozesuaren eragina.

#### 6.4. Korridore Handiak indartzeko beharra

Europako hiri nagusiak tartekatzen diren ardatz nagusietako batzuen dentsifikazio garbia gertatu dela ikus daiteke; era berean, dentsifikazio-ardatz berriak sortu dira, hiri-sistema europarraren baitan funtzio estrategikoa betetzen duten poloen arteko “zona grisak” hain zuzen ere. Aipatu fenomeno oso ohikoa izan da Alemaniako inguru batzuetan, Rin bailaran esate baterako eta, gainera, agerpen esanguratsua du Frantziako Rodano, Sena eta Loira bailaretan. Italian antzekoa gertatzen da Po-ko korridorean, Milanetik Bolonia eta Florentziara. Espainian Arku Mediterraneo eta Ebroko bailara dentsifikatzen ari direla ikus daiteke, eta Madril-Sevilla ardatzaren zenbait zatiren dentsifikazioa ere azpimarratu behar da. Portugalen Setúbal-Braga kostaldeko ardatza eragiten du fenomenoak eta modu arinago batean Lisboa-Evora ardatza.

Europako baterakuntza-prozesuaren eskutik, orain arte historian izandako gorabeherak direla eta dinamikoegiak izan ez diren eta gaur egun baldint-

za abantailatsuagoak dituzten ardatz berriak sortu eta indartuko dira. Era berean, kontuan hartu behar da herrialde gehienetan dentsifikazio-joeren mende dagoela ezaugarri natural erakargarri propioak dituzten espazio europar jakin batzuen etorkizuna.

#### 6.5. Hiri garrantzitsuei dagokien rola

Europako hirietan biztanleria, lurraldearen azalera eta hiriek bete beharreko funtzioak eragin dituzten aldaketa esanguratsuak gertatu dira. Iparraldeko hirietan, azken urteetan izandako aldaketa asko egitura ekonomikoaren bilakaerak, industria tradizionalen gainbeherak eta industria arinaren eta hiri handien kanpoaldean edo hiri-zona txikiagoetan zerbitzuen sektorearen hazkundeak ekarritako aldaketak dira. Azken joerei erreparaturik, hirien erdigunerako itzulera gertatzen ari dela esan daiteke, sektore publikoak eta pribatuak batera garatutako ekimenen emaitza gisa askotan. Merkatu bakarra osatzean eta indartzean, areagotu egingo da hirien arteko lehiakortasuna eta Europako hirien arteko hierarkia aldatu egingo da. Eskualde metropolitarrak garrantzitsuenak protagonista nagusiak izango badira ere, gune horietatik urrunen geratzen diren hiriek merkatu espezializatuak garatzeko aukera edukiko dute.



## 6.6. Hiri Txiki eta Ertainen Sarearen protagonismoa

Europar Batasuneko landa guneetan etengabe ari da murrizten biztanleria. Gaur egun, murrizketa horren arrazoi nagusia eskualde baten barruan landatik hirira egiten diren migrazio-mugimenduetan aurkituko dugu, eta ez, ordea, eskualde batetik beste batera egiten diren migrazio-mugimenduetan, lehen gertatzen zen moduan. EBko nekazaritza-politika gero eta gehiago zuzentzen da produkzio-mailak kontrolatzera, nekazaritza-biztanleriari eustera, nekazaritza-zonetako ekonomiaren dibertsifikaziora eta gizarte- eta ingurumen-mailako laguntzak ematera.

Landa-zonetako arazoek konponbidea neurri handi batean nekazaritzatik kanpo aurkituko dela uste dute gero eta aditu gehiagok, eta gero eta garbiago ikusten da landa-zonetan kokatutako hiri txikiak funtsezkoak direla enpresa txikiak erakartzeko eta nekazaritzan denbora partzalean bakarrik jarduten duten langileei aukera berriak eskaintzeko.

Bestalde, landa-eskualdeetako gainbehera demografikoa, aurreko hamarkadetan Europar Batasuneko herrialde ia guztietan gertatu dena, modu selektiboago batean ari da gertatzen gaur egun, eta gainbeheran dauden eremuak, mendiko zonak eta kanpoko biztanleriaren eta enpresen ikuspegitik erakarriak ez diren guneak eragiten ditu.

Landa-zona ugarritan orain arte ikusitako joera negatiboak aldatu egin dira eta suspertze demografikoa gertatu da; eta egoera berri horrek hiri txikiei eta ertainei dagokien funtzio garrantzitsua azaleratu du. Zalantzarik gabe, mota horretako hiriak indartzea bide estrategiko egokia izan daiteke inguruan dituzten landa-zonen gainbehera gelditzeko.

EuskalHiria.NET  
Lurralde Estrategia Berria

b.

# Lurraldearen Diagnostikoa.

## LAA eta Euskalhiria Eskualde-Hiri Berria

### b.1 LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEEN HELBURUAK

1997ko Gobernu Kontseiluak onartu zituen behin betiko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (otsailaren 11ko 28/1997 Dekretua), baina 80ko hamarkadaren amaiera aldera jo behar dugu horien kontzeptuzko eta diziplinazko jatorria aurkitzeko, bai eta bertan barne hartutako proposamenen eta zehazpenen esanahia ulertzeko ere.

Hain zuzen ere, industria tradizionala oinarrian zuen eredu ekonomikoaren amaierarekin bat dator. Krisian zegoen eredu ekonomiko tradizionala, ez zen eraginkorra, baina oraindik ez zen hori ordezkatzeko sistema egokirik aurkitu. Krisialdiak gainbehera demografikoa eta dinamismo ekonomikorik eza ekarri zituen eta langabezia-tasak gora egin zuen, enpresak itxi egin ziren eta inbertsioa murriztu egin zen.


Testuinguru horretan, LAA lurraldea antolatzeko eta koordinatzeko berariazko helburuak betetzeko tresna gisa aurkezten dira baina, horrez gain, lurralde-mailako konfigurazio eta ekimen egokiak eskaintzeko balio behar dute, garapen-eta etapa berri batean sartzeko gauzatu behar den aldaketa-prozesua indartzeko.

Ondorengo puntuetan laburbil daitezke aipatutako helburuak:

- Europako garapenean lider diren eremuekiko bat-etortzea indartzea eta Penintsularen iparraldean kokapen estrategiko bat lortzeko garapen-aukera aprobetxatzea.
- Euskal hiriburuak indartzea. Horretarako, hiri-profilak sustatu behar dira eta hiriburuen sistema polizentriko bat artikulatu behar da. Garapen- eta berrikuntza-prozesuak gidatzeko nahikoa sendoa izan behar du aipatu sistemak.
- Hiri ertainen sare bat sendotzea. Lurraldeari hiri-oinarri eta zerbitzu-oinarri egokiak hornitzeko gaitasuna izango du.
- Gainezka dauden esparruetatik presio demografiko txikiagoa duten zonetarako berrorekatze-prozesuak sustatzea.
- Hirigintza- eta sektore-ekimenean natura babesteko sistemak eta ingurune fisikoa barne hartzeko irizpideak ezartzea.

- Azpiegituren eta horniduren sistemak definitzea udalaz gaindiko irizpi-deak jarraituz. Proposatutako lurralde ereduaren konfigurazioa laguntzeko sistemak izango dira.
- Arloko Planak lantzeko eta tarteko eskalako Lurralde Planen ezaugarriak konfiguratzeko lurralde-irizpideak ematea.
- Etxebizitza-parkea areagotzeko eta lurzoruen garapenerako erreferentziak eskaintzea, lurralde ereduarekin bat etorritik.
- Espazio narriatuak edo gainbeheran dauden espazioak eta eremu bereziak, gune historikoak eta landa guneak, besteak beste, berritzeko eta dinamizatzeko prozesuak aktibatzea.

Azken finean, beranduagoko plangintza-prozesuak orientatzeko gai izango den tresna bat osatu nahi da, lurraldean zuzenean esku hartzeko balioko duena; eta ekimenak proposatzeko eta arauak ezartzeko balio behar du, betiere lurraldean prozesu aktiboak antolatzeko berariazko tresnarik ez badago. Era berean, lurralde eredu integratuago, iraunkorrago eta orekatuago bat osatu nahi da, lagungarria izango baita garapen ekonomikoko prozesuak berritzeko eta dinamizatzeko.






## b.2. EGITURA ALDAKETAK LURRALDEAN

### b.2.1. HAZKUNDE EKONOMIKOA

Azken urteetan aldaketa nabarmena eta sakona ezagutu du EAEko produkzio-egiturak.

Industria-ekonomiatik zerbitzuen gizartera igaro gara, ekonomia garatuen garapen-ildoarekin bat eginez. Ildo horretan, jarduera primarioek garrantzi gutxiago dute orain euskal ekonomian. Horrela, arrantza, baso eta nekazaritza eta abeltzaintzaren sistemak % 2ko ekarpena egiten dio EAEko BPGdri.


Biztanleria aktiboaren portzentajezko banaketaren aldaketak sektoreka (1985-2005)



Iturria: Eustat, 2006

Hirugarren sektoreko bihurtzeko prozesua biziagoa izan da Bizkaian eta Gipuzkoan, hain zuzen ere iraganean industria-pisu altuenak erregistratu dituzten lurraldeetan; Arabak erregistratu du, bien bitartean, azken urteotako industria-hazkundearen gehiena, Gasteiz inguruan, Arabako Lautadan eta A-1 errepidearen ardatzean erabilgarri dauden lurzoru-erreserbei esker.

Biztanleria aktiboaren portzentajezko bilakaera industria-sektorean, lurralde historikoka (1985-2005)




Iturria: Eustat, 2006

Ezin daiteke esan zerbitzuen sektorearen hazkundera ez duela desindustrializazio-prozesu esanguratsurik eragin, batez ere kontuan hartzen bada industria-produkzioaren balioak etengabe egin duela gora azken urteetan. Industria-egitura aldatu egin da eta tamaina txikiagoko produkzio-unitateek osatutako ehun bat eratu da. Produkzio-entitate horiek produktiboagoak dira eta gero eta garrantzi eta agerpen handiagoa ematen diote alderdi teknologikoari.

Azken hamarkadetan ekonomiak izan duen dinamismoaren eta lurralde-mailan izandako aldaketa esanguratsuen adierazle da eraikuntzaren produkzio-adarrak izan duen hazkundera eta ekonomia-egituran duen garrantzia.


Zerbitzuen sektoreak ezagutu duen hazkundera adar produktiboenetara lotu behar da, hain zuzen ere, balio erantsi gehiago sortzen duten adarretara, eta, horrek guztiak, egitura-eraldaketa garrantzitsuago bat egitea eskatzen du: zerbitzu finantzarioak, enpresetarako zerbitzuak, merkataritza guneak, osasun, aisialdi eta kulturarekin erlazionatutako zerbitzu pertsonalak; eta, horrekin, batera, turismo-jardueren gorakada kontuan hartu behar da.

Egitura-aldaketa horri esker, ekonomiaren produktibitate orokorra areagotzea lortu da eta jarduera helduak gaur egun zabaltzen eta indartzen ari diren beste jarduera batzuekin ordezkatzeara.



Kontuan hartuta hedapen-ziklo luze baten barruan aldeko baldintzak eman direla, ekonomiak eta aberastasunak hazkunde ikusgarria lortu dute. Industria-krisialdian ezagututako egonkortze ekonomikoaren ondoren, azken hamarkadan etengabekoa izan da hazkundera eta Europar Batasuneko batez bestekoa gainditu duten tasak lortu dira. Horrenbestez, produkzioaren balioa modu ikusgarrian hobetu da eta gora egin du per capita errentak. Horrela, gaur egun eskualde europarren batez besteko balioak gainditzea lortu da.

BPGaren bilakaera 1985-2004 artean




Iturria: Eustat, 2006

### b.2.2. EGONKORTZE DEMOGRAFIKOA

Krisialdiak iraun zuen urteetan, hainbat faktore ekonomiko eta sozial batera agertu ziren eta, ondorioz, uzkurdura demografikoa gertatu zen. Urte gutxitik honera joera hori nolabait aldatzen hasi dela suma daiteke eta, horrela, biztanleria-bolumenak gora egin du eta 80ko hamarkadaren hasierako maximoetara iritsi da ia.

Bilakaera demografikoa, haatik, ez da homogeneoa izan lurralde osoan. Azken bost urteetan hiru lurralde historikoetan areagotu egin da kuota demografikoa. Hala ere, Araban biztanleria kopuruak etengabe gora egin duen bitartean, Gipuzkoan oraindik ez da lortu 1985eko biztanleria-mailara iristea eta Bizkaian 1975ekora.

EAEko biztanleriaren bikalaera (1950-2005)




Iturria: Eustat, 2006

Egonkortzerako joera nagusitzen ari dela esan dugu, izan ere, hasiera batean biztanleria-galerak espero ziren, baina azkenean irabazi garbiak lortu dira, nahiz eta oraindik oso kantitate baxuak diren.

Aitzitik, hazkunde begetatiboa ez da nahikoa izan hazkundera ziurtatzeko, ez eta biztanleriaren berritzea ziurtatzeko ere. Zentzu horretan, faktore erabakigarri bat biztanleriaren zahartzea da. Horrela, azken urteetan gora egin du nabarmenki 65 urtetik gorako biztanle kopuruak; horren parean, biztanle gazteen portzenta-jea erdira murriztu da azken hamarkadan. Egitura-mailako arazo baten aurrean gaude eta datozen urteetan areagotu egingo da. Hamarkada bat baino gehiago beharko dira berau zuzentzeko.

Biztanleriaren bilakaera adin-tarteen arabera (1981-2001)



Iturria: Eustat, 2006


### b.2.3 EZAGUTZAREN GIZARTERANTZ

Lehenago deskribatu den aldaketa- eta hazkunde-prozesua ondo garatzeko ezinbestekoa da prestakuntza-maila altuko biztanleriaren laguntza lortzea eta erakunde-egitura egokia eskaintzea.

Ekonomia moderno orotan, informazioa, ezagutza eta berrikuntzarako gaitasuna dira garapen-prozesu baten funtsezko osagaiak. Bere burua elikatzen duen dinamika baten aurrean gaude. Berrikuntzak eta ezagutzak informazio gehiago eta eraldaketa-gaitasun handiagoa sortzen dute, bai eta prozesuari eusteko beharrezkoa den aberastasuna ere. Hala ere, EAEko eta industrializazio zaharreko hainbat lurraldetako esperientziak erakusten duen moduan, amaierarik gabeko prozesu bat da: erdietsitako lorpenen garrantzia edozein delarik, ezinbestekoa da ezagutza eta berrikuntza sortzen jarraitzea, horrela lortuko baita hurrengo garapen-etapara iristea; gainera, ezagutza eta berrikuntza sustatzen ez badira, gainbehera eragin daiteke eta lehiakortasuna galdu.

Ikasketak dituzten biztanleen portzentajearen bilakaera (1986-2001)

1986. urtea. 100 indizea



Iturria: Eustat, 2006


Azken hamarkadan aurrerapauso garrantzitsuak eman dira bide horretatik. Biztanleriaren ikasketa-mailak gora egin du eta, gaur egun, unibertsitate-ikasketak dituzten biztanleen kopurua inoizko altuena da. Berritzeko ahalegina eta gaitasuna azpimarratzea komeni da, horri esker ekonomia-egitura nabarmenki aldatzea lortu delako eta I+G inbertsioen pisua gero eta handiagoa delako. Hatik, ez da lortu herrialde garatuenen batez besteko mailen parean jartzea. Eta horixe izango da datozen urteetan ongizatea hobetzeko eta hazkunde ekonomikoa lortzeko gainditu beharreko erronka nagusietako bat.





EAEk abantaila lehiakorrek eskaintzen dituen funtsezko sektoreen inguruan bikaintasun-estrategiak garatu behar dira ezinbestean eta, horien eskutik, ingurune global batean lidergoa indartu, gure lurraldea kanpoko adituak erakarriko dituen lurralde bihurtzeko eta gure sortzaileak kanpora joatea saihesteko. Baina, jakina, hori guztia lortzeko, inbertsioak egiteaz eta unibertsitateak eta ikerketa-zentro publikoak eta pribatuak hobetzeaz gain, espazio eta bizimodu erakargarriak eta limurtzaileak sortu behar dira.

I+G gastuaren bilakaera BPGaren portzentajearen arabera (1995-2004)



Iturria: Eustat, 2006

Gaur egun, EAEn 2.133.684 biztanle bizi dira 7.089 kilometro koadroko azalera batean eta 300,1 bizt./Km<sup>2</sup>-koa da bere dentsitatea, Europar Batasuneko dentsitate handieneko eskualde ez-metropolitarran kokatzen delarik. Ingurumen Sailaren datuen arabera (Ingurumena EAEn. Ingurumen-adierazleak 2004), 2004ko azalera artifizializatua 455,58 Km<sup>2</sup>-koa zen. Datu hori kontuan hartua, emaitza 4,683,44 bizt./km<sup>2</sup> da, hortaz, zentraltasun handieneko hiriguneei dagokien berezko dentsitatea duen lurralde bat dela esan daiteke.

Datu horrek argi erakusten du azken hamarkadan EAEn gertatu den lurralde-eraldaketa erabakigarria. Hiri, industria gune eta landa gune nagusien inguruan antolatutako espazio bat izatetik, non bakoitzak bete beharreko funtzioak ondo definituta eta hierarkizatuta dauden eta garatzen diren ekonomia-egiturekiko erlazioa oso handia den, Eskualde-Hirira pasa da. Azken horretan, gune nagusien mugak, funtzioak eta jarduerak gero eta zabalagoak eta anitzagoak diren lurraldeetan zabaltzen dira.

Nazioartean azkeneko hamarkadetan bizi dugun hiri-fenomeno azpimarragarrienetako bat eskualde-hiri deiturikoen sorrera da. Eskualde-hiri horiek errealitate konplexuak dira, harremanez beterikoak, eta erronka eta aukera berriak dakartzkiete giza bizitzari eta ekonomia-jardueren garapenari, baita bizitoki, aisia, kultura, hezkuntza, azpiegitura eta naturarekiko harremanei ere.



EAE gero eta definituagoa agertzen zaigu nazioartean benetako eskualde-hiri baten antzera. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eskala munduko beste eskualde-hirik dutenaren antzekoa da. Anberes-Brusela, Frankfurt, Seattle edo Minneapolis-Saint Paul bezalako nazioarteko eskualde-hirik, funtzio eta zentro ekonomiko globalak dituztenek, EAeko antzeko tamaina demografikoa dute eta antzekoa dute, halaber, tamaina geografikoa. Dentsitate baxuagoa izaten dute batzuetan, bertan garatzen dituzten ereduak ez direlako hain trinkoak eta, ondorioz, ez dira hain eraginkorrak izaten biztanleriaren eta ekonomiaren masa kritikoa ondo aprobetxatzeko.

Gero eta gehiagotan aurkitzen ditugu Donostian bizi eta Gasteizen lan egiten duten pertsonak, Bilboko portua erabiltzen duten enpresa gasteiztarak, Donostiako campusean eskolak ematen dituzten irakasle bilbotarrak, Guggenheim bisitatu ondoren Chillida Lekura edo Artium-era joaten diren turistak, Bilboko aholkularitza-zerbitzuetara jotzen duten eta Arabako Lautadan kokatuta dauden enpresak. Azken finean, EuskalHirian lan-merkatu bakar bat eta harremanetarako eguneroko espazio estuagoa bat ari da sortzen gero eta intentsitate handiagoarekin. Azpiegiturak hobetu dira eta, horri esker, lurraldeko biztanle guztiak etxebizitza, enplegu, hezkuntza, aisialdi, kultura eta naturaz eta hirigune txikiez gozatzeko dituzten aukerak gero eta gehiago dira.



Biztanleak (2000. urtea)	2.485.000
Ereua eraikia (km <sup>2</sup> )	1.308
Dentsitatea (bizi./km <sup>2</sup> )	1.900




Biztanleak (2000. urtea)	2.600.000
Ereua eraikia (km <sup>2</sup> )	984
Dentsitatea (bizi./km <sup>2</sup> )	2.703

Hiru dira, seguru asko, eskualde-hiri modernoaren lurralde-ezaugarri bereizgarriak:

- Hiri-hedapena eta lurraldea betetzeko modu berriak: landa guneak egotzagune bihurtu dira, gune tradizionalak aldatu egin dira, erkidego berriak sortu dira, merkataritzagune eta aisialdirako gune handien eraginez lehen hiri inguruko eremutat jotzen ziren zonetan erreferentziagune berriak sortu dira, eta abar.
- Garraio-sistema berriak daude eta lehen elkarrengandik urruti geratzen ziren espazioak artikulatzeaz gain, mugikortasunarekin erlazioan egiten den eskaria gero eta zabalagoari erantzuten zaio horiek baliatuz (portu eta aireportuekin erlazionatutako konexio-elementu globalak, abiadura handiko trenak, plataforma logistiko berriak, metroaren sistema, tranbiak eta aldiriko zerbitzuak erdiguneetan, sistemen arteko intermodalitate eta konektagarritasun gero eta handiagoa, maila altuko telekomunikazio-azpiegiturak).
- Goi-mailako zerbitzu eta ekipamenduen sistema sofistikatu eta gero eta konplexuago bat. Ekonomia berrian, testuinguru global batean lan egin nahi bada, ezinbestekoa da aparteko konplexutasun-maila jakin bat



Biztanleak (2000. urtea)	2.712.000
Eremu eraikia (km <sup>2</sup> )	2.471
Dentsitatea (bizt./km <sup>2</sup> )	1.098



Biztanleak (2000. urtea)	2.389.000
Eremu eraikia (km <sup>2</sup> )	2.315
Dentsitatea (bizt./km <sup>2</sup> )	1.032

erakusteko ahalmena edukitzea. Enpresek testuinguru globalean ondo lan egitea nahi bada, ezinbestekoa izango da zerbitzu-esparru oso espezializatu bat eskaintzea (kapital intelektuala, aholkularitza, aholkularitza juridikoa, marketinekoa, teknologia berriak, garraioa, finantza-zerbitzuak, eta abar), eta zerbitzu horiek guztiak tamaina jakin bat duten hiri-nodoetan bakarrik kokatu daitezke, hau da, masa kritiko jakin bat duten hiri eta lurraldeetan bakarrik. Horrenbestez, hiriek testuinguru globalean jarduten duten enpresa lehiakorrek eta berritzaileak erakartzea nahi bada, funtsezkoa izango da enpresei laguntzeko zerbitzu-esparru espezializatu bat eskaintzea.

EuskalHiria eskualde-hirian gero eta argiago ikus daitezke lurralde-errealitate berri baten aurrean gaudela erakusten duten ezaugarriak eta adierazleak. Horrela, ekonomia tertziarioa indartzearekin eta aberastasuna areagotzearekin batera, lurralde-mailan fenomeno garrantzitsuak gertatu dira. Fenomeno horien artean azpimarratzekoa da eskualdeen arteko mugikortasunak izan duen hazkunde handia eta, batez ere, beti garraio kolektiboko sistemak erabiltzen dituzten joan-etorriek izandako gorakada azpimarratu behar da. Garraio kolektiboko sistemak maiztasun handiarekin egiten diren ohiko bidaietan erabiltzen direla esan behar da. Euskal hiriburuen garrantzia areagotu egin da bertan eraikitako azpiegitura berriei, hornidurei eta egotzi zaizkien goi-mailako funtzioei esker

eta, era berean, espazio urbanizatu gehiago lortu dira, espazio metropolitarraren lurralde-esparrua zabaldu da eta orain arte landakotzat jotzen ziren zonetan finkamendua areagotu egin da.

Eskualde-hiri bat egituratzeko sortzen diren dinamika horiek aukera eta arrisku berriak dakartzate eta, horiek kontuan hartuta, etapa berrian bereziki zaindu beharreko elementu nagusiak zeintzuk diren jakin daiteke: urbanizazio barreriatu eta nahasia, mugikortasun-sistema iraunkor eraginkorrek artikulatzeko arazoak, egoitza-eremuak eta enplegu-eremuak kokatzeko orduan bat ez etortzeak, nekazaritza guneen eta naturguneen betetze sistematikoa, eskualde-hiria osatzen duten eremuen identitaterik eza, gainbeheran dauden jarduera- eta egoitza-espazioen birziklapena, ekonomia sortzailerako espazio berriak sustatzea, eta abar.

## b.4. ERROTULA LURRALDEA EUROPA BERRIAN

LAAetan adierazitakoa gogora ekarriz, EAE etorkizunean Errotula bihurtu nahi da eta, horretarako, Autonomia Erkidegotik kanpora ezaguna eta eraginkorra izango den eskualdeko hiri-sistema bat osatzea bilatzen da, Europako garapenean lider diren espazioetara hurbiltzeko ekimenak abian jartzeak duen garrantzia azpimarratzen da, eta, kontuan hartuta EAE garapen potentzial handiko ardatzetan, hala nola Madriletik Pariserako Ipar-Hego ardatzean edo Atlantiko-Mediterraneoko konexioan, kokatzen dela, egoerak ematen dizkion aukerak aprobetxatu behar dira ezinbestean. Horrenbestez, argi dago LAAen arabera EAEk aukera handiak eskaintzen dituela lurraldea dinamizatzeko eta eraldatzeko orduan, dagozkion administrazio-mugez haraindi.

Bilbok ezagutu duen eraldaketa-prozesuari esker, esate baterako, Penintsularen iparraldeko eta Frantzia hegoaldeko lurralde zabal batean Bilbok dagokion zeregina berreskuratu du, zerbitzu aurreratuak eta merkataritzako eta aisialdiko zerbitzuak eskaintzen dituen hiri bezala.

Errotula kontzeptuaren indarraren eta gure lurraldeak bereganatu duen protagonismo berriaren erakusle garbiak dira merkataritza-trukeak, bisitari eta turista kopurua, garraio-fluxuak eta kanpoko inbertsioak, besteak beste.




LAA lantzeko unean, ezinezkoa zen jakitea Europako mugak desagertuko ote ziren edo moneta bakarrak izango zuen eragina zenbatera iritsiko zen.

Europa berrian Europako lurraldea eraldatzeko eta berriro konfiguratzeko prozesua garatzeko gero eta garrantzi handiagoa duten esparruak dira Errotula Lurraldeak. Espazio hauek funtzio berriak bete beharko dituzte, konexio fisiko eta telematiko berriak baliatuz eta funtzio desberdinak eta produkzioa bateratzeko prozesuak eta lankidetzak-ekimenak garatuz. Horrela, aurreko egiturak utzitako hutsunea bete eta inguruko espazioen artean harremanak izateko esparru berriak sortuko dira.

Errotula Lurraldeek lurralde-mailako aukera berriak baliatzen dituzte, izan ere, espazio-harreman berriak ahalbidetzen dituzte eta, horrekin batera, elkar eragiteko, laguntzeko eta indartzeko aukera berriak sortzen dira.

Zenbait lurralde europarretan hasi dira jada integrazio-errotula berri bat izatera iristeko estrategiak lantzen. Gauzak horrela, Öresund-eko itsasarteko zubi berria, esate baterako, bi herrialde elkartzen dituen konexio-elementu bat da eta Danimarkako Kopenhage eta Suediako Malmö eskualde-hirien lurralde-bateratzea eta bateratze ekonomikoa lortzeko proposamen handizale baten emaitza da.

EAEko esportazioen balioaren bilakaera (1990-2004)




Iturria: Eustat, 2006

Horrela, proiektu horren inguruan eskualde-hiri indartsu bat ari da osatzen. 4 milioitik gora biztanle eta produkzio- eta berrikuntza-ahalmen izugarriak ditu eskualde-hiri honek, Baltikoko bi ertzak lortzen ditu eta Europa iparraldeko nodo nagusi izatera iristea bilatzen du.

Erdialdeko Europan Diamante Alpetarra, Lyon-Geneva-Milan, dugu Europan lurraldearen tratamenduari eman zaion nazioz gaindiko ikuspegi berriaren esperientzia interesgarrienetako bat. Aipatutako hiru hirietan hiri-eremuak indartzeko programa handizaleak jarri dira martxan. Horrela, kanpo-konexioko azpiegitura handietan programa berriak abiarazi dira eta proposamenak aurkeztu dira zerbitzu aurreratuek eta jarduera berritzaileek beharrezkoak dituzten giza kapitala eta enpresa-kapitala erakartzeko. Horrelako hiri-sare bat sortzeko proiektu bateratuak ari dira garatzen eta hiru hirien arteko interkonexioak hobetzeaz gain, profil osagarriak osatzea lortu da. Era berean, funtsezko Errotula bat ari dira osatzen Europako espazio berrian, izan ere, Europan hazkundera ezagutzen ari diren espazio nagusiak Mediterraneoan eta Alpeetan goraka ari diren esparruekin lotzen dira.

Antzeko adibide ugari aipa daitezke. Rannstad, Herbeheretako eskualde-hiria osatzen duten hirien sistema polizentrikoa, esate baterako, Ipar Itsasoko Errotula nagusi ari da bihurtzen; horren bitartez Benelux-eko hiri-sistemak, Frantzia

Gaua EAEn igarotzen duten turista kopuruaren bilakaera (1992-2005)



Iturria: Eustat, 2006




eta Alemania iparraldekoak, Uharte Britainiarrekin eta Danimarkarekin lotzen dira. Ingalaterraren iparraldean Supercity izenarekin ezagutzen da Britainia Handiko gune zentrala.

Errotula-lurraldeak jada badauden elementuak gehitu eta berrantolatu ondoren sortutako espazio polizentrikoak dira. Orain arte funtzionamendu independentea izan duten espazioak integratzen dituzte eta garapen-aukera berriak sortzen dituzte.

Horrenbestez, tamaina ertaineko hiriei eta eskualde-hirien sistemari ate berriak irekitzen dizkien prozesu bat da. Izan ere, azpiegitura berriak sortzen dira eta, horiei esker, horrelako lurraldeek ekimenak garatu ditzakete eta berez duten tamainagatik ez dagozkien hornidurak eta jarduerak barne hartzeko gaitasuna dute. Azken finean, globalizazioaren eszenategi berrian aktiboki parte hartzeko baldintza egokiak sortzeko balio du prozesuak. Europako lurraldea Amerika, Asia eta Ozeania bezalako garapen-esparruekin alderatzen badugu, azpimarratzen da espazioa antolatzeko eta dinamismo ekonomikoari eusteko orduan hiri ertainek lurralde europarrean betetzen duten funtzio garrantzitsua.

Tamaina ertaineko hiri horiek tradizio historiko handiko eskualde-sistematant antolatzen dira eta hiri-egitura polizentrikoak osatzen dituzte.



# EuskalHiria.NET

## Lurralde Estrategia Berria

### B-LURRALDEAREN DIAGNOSTIKOA. LAA ETA EUSKALHIRIA ESQUALDE-HIRI BERRIA

Munduko beste leku batzuetan globalizazio-habitat bezala osatzen ari diren megapolien parean, Europako sistema polizentrikoek funtsezko abantaila lehiakorak eskaintzen dituzte eszenategi berrian lehiatu eta arrakasta lortzeko.

Identitate sendoko espazioak dira, giza balio handikoak, eta iraunkortasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko baldintza egokiak eskaintzen dituzte.

Horrelako lurraldeek erantzun bikaina ematen diete hiriek eta eskualdeek ekarritako erronka berriei.

Lurralde erakargarriak direnez, ekonomia berriaren funtsa diren giza kapitala eta ekimen berritzaileak bereganatzen dituzte. Lurralde hauek erakutsitako malgutasuna eta aldatzeko gaitasuna funtsezkoak dira gaur egun etengabe aldatzen ari den testuinguruan arrakasta lortzeko, izan ere, testuinguru berri horretan ez dago inolako segurtasunik eta historikoki ahultzat jo diren lurraldeek indarra hartu dezakete denbora gutxian.




Horrelako lurralde-konfigurazio bat lortzeko lan egiten jarraitzea oso garrantzitsua da, gure lurraldearen etorkizuneko aukerak hobetzeko. Era berean, etorkizunera begira, eskualde-baterakuntzan funtsezkoak diren faktore gehiago hartu beharko dira kontuan:

- Abiadura Handiko konexioak martxan jartzean nabarmenki murriztuko da euskal hiriburuen artean eta eskualde-inguruko hirien artean bidaiatzeko behar izango den denbora eta, era berean, maila altuagoko hiri-zerbitzuetarako merkatu potentziala zabaldu egingo da eta maila hobetzea lortuko da.
- Bilboko aireportuak hazkundera ezagutu duela eta nazioarteko aireportu bat dela kontuan hartuta, konexio globaletarako gaitasun izugarria duen elementu bat da EAEren barruan. Aireportua eta Abiadura Handiko sarea konektatzeko sistema eraginkorrak garatu behar dira, hazkunde funtzionala erdiesteko aukera handiak lortu nahi badira.


- Sare logistikoko egoki bat edukitzea gero eta garrantzitsuagoa da jarduerak erakartzeko eta garapen-aukerak sortzeko, Bilboko portua-Gasteizko aireportua-Nazioarteko plataforma logistikoen sistemaren eskualde-esparruaren barruan.

- Eskualde-Hiriaren espazio berria sendotzean, lurralde-aukera gehiago eta anitzagoak sortuko dira eta jardueren eta aisialdiaren eskaintza, baita turismo-jarduerena ere, aberastu egingo da. Errotula barrutik indartu behar da horrenbestez, bera baita inguruko lurraldeen kokapenak eta baterakuntzak eragindako sinergiak sortzeko tresna nagusia.


Europako hiri-sistemaren gainean egindako azterketek erakusten dutenez, euskal hiriburuen arteko baterakuntza eta, oro har, lurralde osoaren baterakuntza gero eta handiagoaren ondorioz, potentzial izugarria lortu da. Hori kontuan hartuta, EAE indartuta aterako da eta kanpoan esku hartzeko aukerak areagotu egingo dira. Kanpora zabaltzeko gaitasunak, gainera, garrantzi berezia du baterakuntza-eszenategi berriak osatu behar diren une honetan.




Europa 1: Ciudades con más de 200.000 hab.




Europa 2: Estudiantes Universitarios



Europa 3: Instituciones de Investigación



Europa 4: Bancos Internacionales





*La Comunidad Autónoma del País Vasco como Ciudad-Región. Un nuevo protagonismo europeo*

Lehenik eta behin, ezin da ahaztu Frantzia hegoaldearekin gero eta elkarreragin handiagoa dagoela eta egoera horrek Donostia eta Baiona artean hiri-korridore bat egituratzeko aukerak emateaz gain, EAE-Akitania Euroeskualde berri bat osatzeko baldintzak errazten dituela. Horrenbestez, hiri-sistemeekin eta azpiegituren sare eta nodoekin erlazionaturako funtsezko alderdiei buruz hausnartu behar da Bizkaiko Golkoan goraka ari den espazio honetan.

Europako garapenaren esparru tradizionalak indartu eta ekialderantz mugitzen diren bitartean, Europa hegoaldean goraka ari den espazio berri bat sortu da. Aukeren Diagonala izenarekin ezagutzen da eta Lisboa-Madril-Milan ardatzaren inguruan garatzen da. Aukeren Diagonalak dinamikotasun handiko espazioak barne hartzen ditu, hala nola Valentzia eta Bartzelona arteko Arku Mediterraneo, EAE, Ebroren Ardatza, Pirinioen iparraldeko eta Kostalde Urdineko zentro teknologikoak eta turistikoak eta Italia iparraldeko espaziorik dinamikoenak.

Amaitzeko, konexio globalak egiteko tresnei esker, elkarreragin globala lortzeko aukera berriak lortzen dira euskal diasporaren bitartez.





### b.5. INGURUNE FISIKOA ETA INGURUMEN KALITATEA

LAAen Ingurune Fisikoaren Artezpidea landu zen garaian, gero eta agerikoagoak eta nabarmenagoak ziren lurraldean industrializazio-garaian Euskal Autonomia Erkidegoko natur-sistemek jasandako eraldaketa sakonak eta hazkunde demografikoaren eragina. Ekosistemen narriadura, ur eta lurzoruen poluzioa, paisaiak jasandako erasoak, lurraldean kokatutako mota orotako eraikinak, eta abar, oztopo handiak ziren garapen-etapa berri bati ekiteko. Ezin baita ahaztu, ingurumen-kalitatea eta natur-sistemen babes oinarritzko faktoreak direla lurralde-mailako iraunkortasuna, bizi-kalitatea eta lehiakortasuna ziurtatzeko.

Horrez gain, ez zegoen natura babesteko beharrari buruzko legeria egokirik eta, bestalde, hirigintza-plangintzak lantzeko orduan ez zegoen natur baliabideen eta ingurumenaren tratamendu egoki bat egiteko ohiturarik, ez eta irizpiderik ere.

Gauzak horrela, LAAetan lau ekintza-lerro nagusi proposatzen dira ingurune fisikoaren antolamendurako:


- Lurzoru Ez Urbanizagarria Antolatzeko izendapen eta irizpide homogeneoak zehaztu behar dira. Antolamendu kategoria desberdinak bereiziko dira eta bakoitzari dagokion erabilera-erregimena zehaztuko da Ingurune Fisikoaren Antolakuntza Nagusian.

- Natur Interesa duten Espazioen hirigintza-babesa ziurtatu behar da; horretarako, artezpidean landu zen uneko naturgune babestuak barne hartu ziren eta, era berean, Natur Interes Berezikiko Guneen zerrenda bat barne hartu zen. Barne hartutako guneen ezaugarri bereziak direla eta, betetze-prozesuen edo erabilera aldatzeko prozesuen aurrean babes maximoa dute guztiek.

- Urbanizazio barreatuko prozesuak ekidin behar dira. Xede horrekin, debekatuta dago lurzoru ez-urbanizagarrian etxebizitza isolatuak eraikitzea, eta garapen berriek gaur egun badauden guneekin lotuta egon behar dute.

- Hirigintza-planetan eta arloko planetan ingurumenaren eta natur baliabideen tratamendurako orientazioak eman behar dira eta jarduera publiko zein pribatuetan kontuan hartu.

Aipatutako zehaztapen guztiek xede zituzten helburuak neurri handi batean bete dituztela esan daiteke. Gaur egun antolamendu-kategoriak eta horien arautzea erreferentzia unibertsal bihurtu dira EAEko hirigintza- eta lurralde-tresnen bitartez lurzoru ez-urbanizagarria antolatzeko orduan, eta LAAetako zehaztapenak esparru bakoitzak dituen ezaugarrietara egokitzen dira. Lurraldearen Zatik Plan gehienak onartu dira eta, horietan oinarrituta, lurraldearen zati handi





batean babestu beharreko lurzoru ez-urbanizagarriak zehaztu eta hirigintza-plangintzaren barruan sartu dira.

Naturgune Babestuei dagokienez, 1994an lurraldearen % 5 bakarrik zegoen babes-figura baten babespean baina, gaur egun, lurraldearen % 22,7 barne hartzen da indarrean dauden babes-figuren baitan: Natura 2000 Sarea, Ramsar Zerrenda, Euskadiko Naturgune Sarea (Parke naturalak, Biotopo babestuak, Zuhaitz apartekoak), Urdaibai Biosferaren Erreserba, Korridore ekologikoen sarea eta LAAetako Natur Intereseko Guneak.

Figura horiekin guztiekin, ekainaren 30eko 16/1994 Legeak, EAEko naturaren babesari buruzkoak, ezartzen duen baliabide eta espezien babesarekin batera, naturaren babes-esparru nahikoa zabal eta oso bat lortzen da, eta ingurune fisikoaren Artezpideak zentzu horretan adierazitakoaren zati handi bat betetzen da. Ildo beretik, aipatzekoak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko 3/98 Legea eta lurraldeko biodibertsitatea leheneratzeko martxan jarri diren programa ugariak.


Azken urteetan Lurraldearen Arloko Planak eta hainbat antolamendu-plan onartu dira, hala nola ibai-ibilguak eta hezeguneak antolatzeko plana, kostaldea antolatzekoa (jada onartua) eta nekazaritza eta basorakoa (izapidetzen). LA-Aetan xedatutakoa aberasteko eta zehazteko balio dute guztiek eta lurraldeko

ingurumen-sistamarako eta natur sistemetarako kudeaketa- eta babes-estrategiak proposatzen dituzte berriaz. Horrenbestez, lurraldearen kudeaketa egokia egiteko eta espazio eta baliabide naturalen babesa eta hobekuntza ziurtatzeko tresna egokiak daudela esan daiteke.

Azken urteetan, nabarmenki hobera egin du EAEko ingurumenaren eta ekosistema naturalen egoerak. Horretan zerikusi handia izan dute, zalantzarik gabe, LAAetan ezarritako zehazpenek, eta zerikusi handia izan dute, halaber, garatutako lurraldeko eta arloko ekintzek. Gainera, hazkunde eredu berri baten alde egiten da gero eta gehiago, eta biztanleriak, enpresek eta erakundeek lurraldeko ingurumen-kalitatea babesteko eta hobetzeko beharra azpimarratzen dute gero eta gehiago.


Aipatutako alderdi guztiak kontuan hartuta esan daiteke ingurune fisikoaren Artezpidea, zati handi bat behintzat, gaur egun tresna egokia eta funtsezkoa dela lurzoru ez-urbanizagarriak arautzeko. Bertan barne hartutako zehazpen ugari araudiaren eta arloko plangintzaren arabera garatu eta zabaldu dira.

Horrelako garapenetan, Artezpidearen edukiak berrikusi eta eguneratu behar dira, azken urteetan izandako berrikuntzekin bateragarri egiteko. Hain zuzen ere, ondorengo alderdiak hartu behar dira kontuan:



- Gune babestuen sistemaren egitura berria barne hartu behar da eta sistema horrek figura eta leku berriak eta esparruak antolatzeko sistema berriak dakartza. Era berean, gune babestuen sistema garatzeko lurralde-orientazioak landu behar dira intereseko beste gune batzuekin, iresgarritasunarekin eta espazio eraikiekin dagoen erlazioa bezalako funtsezko alderdietan.
- Artezpideak proposatzen dituen Arloko Lurralde Planekin eta LAAetako garapen-tresna eta -ekintzekin erlazionatutako proposamenak, Sail desberdinek egindako ekintzen ondoriozko plangintza-egitura berrira egokitu behar dira.
- “Ingurune Fisikoko Elementuei eta Prozesuei eta jardueren kontrolari dagozkien Artezpide Orokorrak” berrikusi behar dira. Bertan adierazitako guztia azken urteotan egindako legeriara eta arloko plangintzara egokitu behar da eta, dagokionean, aipatu legeria aplikatzeko lurralde-erreferentziak eman.
- Artezpideak arautzen duen erabilera arautuen definizioa lurralde-mailako eskari berrietara egokitu behar da eta, dagokionean, orain arte aurrekusi ez diren erabilera eta jardueren definizio berriak emango dira.

Nekazaritza- eta baso-ustiapen nagusiek betetako azaleraren bilakaera (1989-2002)




- Beharrezkotzat jotzen bada, erabilera berriak barne hartuko dira eta arautze-sistema batzuk jada landuta dauden LAPetara eta udal-plangintzak eta LAPek izandako esperientziara egokitu beharko dira.
- Babes-esparruetara zuzendutako berriazko jarduera-lerroak garatu behar dira. Horien bidez aipatutako espazioei lurralde-mailako garrantzia eman nahi zaie eta, ildo horretan, horien mantentzea sustatzen da eta horietan garatzeko egokiak diren proiektu estrategikoak indartzen dira.

Artezpideak eguneratzeaz eta hobetzeaz gain, EuskalHiria eskualde-hiriaren testuinguruan ingurune fisikoarekin erlazioan izango diren erronka berriei erantzuteko alderdi edo faktore interesgarriekin osatu behar dira.

Lehen sektorea indar ekonomikoa galtzen ari dela ukaezina da duela mende erditik gaur egunera. Haatik, gaur egun hasi gara bereziki nabaritzen indar-galtze horrekin lotutako lurralde-ondorioak. Azken hamarkadan nekazaritza-sektoreko biztanleria aktiboak izan duen zahartzearen ondorioak hasi dira nabaritzen eta, horrela, ustiapenak uzten joan dira eta soro landuek eta abeltzaintza-soroek betetako azalera murrizten joan da.

## Biztanleriaren bilakaera landa guneean eta hiri guneean EAEn. BGPa 1981-2001 artean



Iturria: Eustat, 2006


Arabako Errioxako mahastiek eta txakolina ekoizten den zona batzuek bakarrik lortu dute azalerari eustea (pixka bat gora egin dela esan daiteke). Utzitako azaleraren zati bat baso-ustiapenatarako erabiltzen da, PACetik jasotako laguntzak baliatuz. Beste batzuk utzita geratzen dira, besterik gabe.

Prozesu horrek paisaiaren eraldaketa sakona dakar. Landa guneetan lehen sektoreak gero eta garrantzi gutxiago duen bitartean, bertako biztanleen jatorria eta bizimodua hiritar tipikoak direla esan daiteke.

Azken hamarkadan, landa guneek ezagutu duten hazkundea hiri guneetako baino nabarmenagoa izan da proportzionalki, izan ere, gero eta gehiago dira bizitzeko landa guneak aukeratzen dituzten biztanle hiritarak, kostuak baxuagoak direlako, bizimodua lasaiagoa delako, etxebizitza handiagoak direlako, eta abar. Lehen bigarren bizileku ziren etxeak bizileku nagusi bihurtzen dira, sustapen berriak, etxebizitza tradizionalak hainbat formularen bitartez birgaitzeko aukera... Guztien ondorioz landa guneak aldatzen ari dira eta gero eta gutxiago dira hiri guneekiko desberdintasunak. Enkartazioak eta Arabako mendialdeko inguruak dira prozesu horretatik kanpo geratzen diren eskualde bakarrak.

Egoeraren diagnostikoa egiterakoan kontuan hartu behar den hirugarren elementu bat, Eskualde-Hiriak gaur egun landa guneei egiten dien eskaria da. Mul-

### Lurraldeko ingurumen-kalitatearen pertzepzioaren bilakaera (1989-2004)



tzo honetan sartzen dira: golf-zelaiak, energia berriztagarriak ekoizteko lurrak, aisialdi guneak, kalitatezko espazioak, aire zabaleko jarduerak, egoitza-formula berriak, aukera turistikoak, oinarrizko baliabideen mantentzea, eta abar. Prozesua ondo garatzeko lurraldearen artifizializazio-prozesuen gainean hausnartu behar da, kontuan hartuta azalera urbanizatuen hazkunde-tasa biztanleriarena baino dezenta altuagoa dela eta lurzoruaren eskaria mugatua dela.

Horrenbestez, inoiz ez bezalako egoera baten aurrean gaude eta paisaia ugari eraldaketa sakona ezagutuko duela azpimarratu behar da. Etapa berri honetan gainditu beharreko erronka garrantzitsuenen artean aipa daitezke: landa guneen konfigurazio bisual eta funtzional berria ezartzea, lurraldearen kalitate globalera ekarpen erabakigarria egingo dela ziurtatzea eta aldaketa-prozesuak orientatzea, iraunkortasunarekin eta bizi-kalitatearekin erlazionatutako helburu globalen arabera.

Azpimarratzekoa da berriki amaitu dela Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaia Berezien eta Apartekoaren aurreproiektua. Katalogo horretan arro bisualen barruko hainbat ezaugarri (forma, tamaina, erliebea), paisaiaren egitura (dibertsitatea eta aberastasuna) eta azpiegiturek eragindako inpaktu bisualak aztertu dira. Katalogoak eskaintzen duen informazioari esker, Euskal Autonomia Erkidegoko paisaien aldaketa-mailari buruzko bi indize ezagutu daitezke:

### a) Inpaktu bisual negatiboek eragindako azalera.

Inpaktu negatibotzat jo dira lehentasunezko interesa duten garraio-azpiegituren sareak paisaian eragindako inpaktuak, harrobi, zabortege eta goi-tentsioko linea elektrikoek eragindakoak eta telekomunikazio-errepikagailu handiek eta parke eolikoek eragindakoak. Arro bisual bakoitzean horrelako inpaktuek eragindako azaleraren kalkulua egin da. Inpaktu bisual negatiboek eragindako azalera 321.868 hektareakoa da (% 45). 308 arro bisualetan (% 50) inpaktu bisual negatiboek eragindako azalera ez da % 25era iristen; 153tan (% 25) inpaktu bisual negatiboek eragindako azalera % 25-66 artean dago; eta 158 arro bisualetan, azkenik, azaleraren % 66 baino gehiago ageri da inpaktu bisual negatiboen eraginpean.

### b) Naturguneen azalera

Naturgunetzat jotzen dira 10 hektareatik gorako tamaina duten eta natur intereseko guneetan kokatuta dauden lur-zatiak, inpaktu bisual negatiborik ez dutenak. Irizpide horren arabera, 380 arro definitu dira, guztira 171.063 hektareako azalera hartuz (Euskal Autonomia Erkidegoko azaleraren % 24). Arro horietatik 62tan, mota horretako paisaiak betetzen du azaleraren % 99.

### b.5.1. INGURUMEN KALITATEA

Industrializazio-etaparen ondoriozko ingurumen-krisialdiak egoera oso larria utzi zuen EAEn. Lurzoruak eta airea poluituta zeuden, kontrolik gabeko isurketak sarri egiten ziren eta EAeko ia ibai guztien behe-ibilguen heriotza biologikoa eragin zen ia-ia. Baina azken hamarkadan aurrerapauso oso garrantzitsuak eman dira eta, ondorioz, orain arteko joera goitik behera aldatu dela esan daiteke, eta herritarrek lurraldeko ingurumen-kalitatea hobetu dela nabaritu dutela ere bai.

#### a) Ura

Zalantzarik gabe, ibai-ibilguen kalitatea hobetu izana da azken hamarkadan lurraldean eragindako aldaketen artetik azpimarragarriena eta nabariena. Hiriko eta industriako hondakin-uren saneamenduan egin den ahalegin handiak lehen emaitza positiboak eman ditu jada, eta, aurrera begira, emaitzak hobetzea espero da.

Hala ere, gaur egun oraindik egoera txarrean dauden ibai-zatiak daude EAEn, batez ere Nerbioi-Ibaizabal, Deba eta Oria ibaien arroetan. Euskal Autonomia Erkidegoko Saneamenduko Gida Planean aurreikusitako jarduerak amaitzean, eta ibaiertzak leheneratzeko eta babesteko jarduerak eta poluzioa murrizteko

berariazko programak pixkanaka garatu ahala, etorkizunean ibaien baldintzak gero eta hobek izatea lortuko da.


Uraren kontsumoari dagokionez, gastua egonkortzea lortu dela erakusten dute lortutako datuek. EAeko per capita kontsumoak neurritzat jo daitezke Europako testuinguruan. Kontsumo hori lortzeko erabakigarria da bertan garatzen den nekazaritzan ez dela uraren erabilera intentsiboa egiten eta, era berean, dentsitate demografiko handiko esparruak direla; dentsitate handiko hiri ereduak garatzen dira gainera, eta eredu horiek lagungarriak dira kontsumoa mugatzeko.

Egonkortze demografikoa lortuko balitz, logikoa izango litzateke kontsumo-mailei eustea, are gehiago kontuan hartuta, hornidura-sistemak hobetu direla erakusten dutela datuek eta, ondorioz, hornidura-sareko galerak modu neurritsuan murriztea lortu dela. Hala ere, egoera hobetzeko gauza asko egin daitezke oraindik, betiere lurraldea betetzeko eredu berriekin lotutako arriskuak kontuan hartzen badira.

Dentsitate baxuko tipologiaren hedapen gero eta handiagoari, golf-zelaiak bezalako erabilera berrien gorakadari eta igerileku eta lorategi pribatuen kopuruak izandako hazkunderari erreparatuz, uraren kontsumoak gora egingo duela azpimarratu behar da. Espazioa betetzeko eredu estentsiboek, ugaritzean, azalera iragazgaiztua areagotu egiten dira, hornidura-sistemen eraginkortasuna oztopatzen da, kontsumo handiagoak sortzen dira eta hornidura- eta arazketa-kostuak ugaritzen dira. Landa guneak uztean, erabilera tradizionalak desagertu egiten dira lurraldeko azalera zabaletan. Landa gune horietan kokatzen diren jarduera berriek arazoak sortu ohi dituzte ziklo hidrológicoaren mantentzean.

Soro landuak desagertzen ari dira eta mendi-inguruak oihaneztatzen eta, ondorioz, gure baliabide propioekin ura sortzeko gaitasuna ahultzen ari da. Uraren erabilerak epe luzera dakarkigun erronka handiari ondo erantzun nahi bazaio, lurraldearen eta bertako bokazioen ikuspegi integral batetik jardun beharko dugu ezinbestean.

#### Etxeko ur-kontsumoa per capita (l/bizt./egun)



Iturria: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila, 2007




### b) Hondakinak eta lurzoru poluituak

Mota orotako hondakinak kudeatzeko orduan egindako lana dugu azken hamarkadan lurraldearen ingurumen-kalitatea hobetzeko eman diren aurrerapausoen artetik esanguratsuenetako bat.

1998 eta 2004 artean zabortegira bideratutako hiri-hondakinen portzentajea 20 puntutan murriztea lortu da (% 85ekoa zen 1998an eta % 65ekoa 2004an). Gainera, gaikako bilketaren bitartez jasotako etxeko hondakinen kantitatea bikoiztea lortu da. 2004. urtean, sortutako hiri-hondakinen % 65 zabortegira eraman zen; % 35 balorizatu egin zen. Balorizatutako hiri-hondakinek sortutako hiri-hondakinen guztizkoaren gainean erregistratu duten proportzioari dagokionez, 1998an % 15eko portzentajea erregistratuzetik, 2004an % 35era iritsi da.


Hondakin arriskutsuei dagokienez, 2003. urtetik inbentariatzen diren hondakin arriskutsuen % 100 kudeatzen da; 1994an % 72 bakarrik kudeatu zen eta % 51 balorizatu. Lurzoru poluituak dira industrializazio aldiak utzitako ondorio larrienetako bat, eta 1990-2004 aldian poluituta egon zitezkeen lurzoruen 582 hektarea ikertu dira (191 kokapen) eta 227 hektarea berreskuratu dira (95 kokapen).

Energia-intentsitatearen, energia-kontsumoaren eta BPGdren bilakaera EAEn (1990-2004)



Iturria: EAEko Ingurumenaren Egoera, 2006

Hiri-hondakinen sorrera biztanleko (Kg per capita) EAEn (1998-2004)



Iturria: Eustat 2006

## c) Energia


Uren kalitatearen kudeaketarekin edo hondakinen sorrerarekin erlazioan aurrerapauso garrantzitsuak eman badira ere, energiaren kudeaketaren kasuan ezin daiteke gauza bera esan. Ezagutu den hazkunde ekonomikoarekin batera, nabarmenki areagotu da energiaren kontsumoa eta, bereziki, petroliotik eratorritako produktuena.

Egitura ekonomikoak ezagutu dituen aldaketak, eraginkortasunak izan duen hobekuntza eta gutxiago poluitzen duten energia-iturri berrien erabilera (gas naturala, energia eolikoa), ordea, ez dira nahikoa izan garapen-maila altuagoak eta mugikortasunak izandako areagotzeak ekarri dituzten hazkundeak orekatzeko.

1990-2004 urteen artean % 38 areagotu da energiaren azken kontsumoa. 2004an bakarrik kontsumo horrek % 4,6ko gorakada ezagutu zuen 2003ko kontsumoarekiko.


Energia berriztagarriek % 4,9ko portzentajea erregistratu dute Euskal Autonomia Erkidegoko energia-eskariari dagokionez. 1990etik % 77 areagotu da portzentajehori.

**Azken energia-kontsumoaren bilakaera sektoreka EAEn (1990-2004)**




Petrolioaren eratorriek, haatik, energiaren azken kontsumoan % 37ko ekarpena egiten dute, eta garraioa, zerbitzuak eta etxeko kontsumoa dira EAEen energia-eskaria areagotzea eragiten duten sektore nagusiak. Esandako guztiaren ondorioz, lurralde osoan airearen kalitatea nabarmenki hobetzea lortu bada ere, negutegi-gasen isurketa handia egiten da oraindik eta areagotu egingo dela baieztatu daiteke, inguruan ditugun beste herrialde batzuetan kontrakoa gertatzen den bitartean.

Lurzoru poluitu berreskuratuen bilakaera EAEen (1990-2004)



Iturria: Eustat, 2006

Berotegi-gasen isurketen bilakaera (1994-2003)



Iturria: Eustat, 2006

### b.6. FINKAMENDU SISTEMA

LAAetan aurkezten den finkamendu-sistemaren antolamenduak hirien sistemaren funtzionaltasunaren azterketa du oinarrian eta euskal hiriburuen artean eta horien eta EAEko hirien sistema osatzen duten tamaina desberdineko gainerako guneen artean erlazioak egotea eta osagarri izatea bilatzen da. Funtsezkoa da, zentzu horretan, gure hiri, herri eta herrixka bakoitzaren identitatea gordetzea eta eskualde-hiri koherente, orekatu eta lehiakor batek eskaintzen dituen abantailak baliatzea.

Ezin da aipatu gabe utzi Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuen artean eta “errotula handia” osatzen duten hirien artean (Iruña, Logroño, Santander eta Baiona, besteak beste) bat etortze ekonomikoa eta funtzionala lortzeak duen balio estrategiko handia. Lan zaila da hiri-profil osagarriak eraikitzeke, hiriburuen sistema polizentriko berezi hau osatzen duen hiri bakoitzaren identitatea eta bikaintasun-elementuak kontuan hartu behar izatea eta oinarri gisa jarraitzea.


Gaur egun euskal hiri-sistema osatzen duten hiriek, banaka hartuta, ez dute indar nahikoa hiri globalen nazioarteko eszenategi berrian protagonista izateko; euskal hiriburuek ez dute masa kritiko nahikoa nazioartean arrakasta duten hiriek eskaintzen dituzten zerbitzu espezializatuak, azpiegiturak, ekipamenduak eta aukerak eskaintzeko. Hala ere, euskal lurraldearen egiturak ezaugarri bereziak ditu eta gaur egungo eskualde-hirien erreferentziazko esparruan abantaila lehiakor garrantzitsuak eskaintzen ditu.

Lehenik eta behin, Hiriburuen Euskal Sistema Polinuklearra funtsezko faktore gisa aurkezten zaigu Eskualde-Hiria sendotzeko. Lurraldean ondo banatutako hiru hiri-eremu garrantzitsu ditu EAEk; elkarren artetik gertu geratzen dira eta profil eta nortasun desberdinak erakusten dituzte, eta horrek guztiak abantaila garrantzitsuak dakartza. Bilbo, Donostia eta Gasteiz alderdi erakargarri ugari dituzten hiru hiri dira. Gero eta hobeto osatzen dira elkarren artean eta hiri-garapen eta -hobekuntzako prozesu ikusgarriak ari dira garatzen, bakoitzak berezkoa duen idiosinkrasia galdu gabe.

Etorkizunera begira, aipatutako hiri-nodo bakoitzaren kalitatea eta barne-koherentzia hobetzeko lan egin beharko da, hiri-nodoen arteko elkarreragin sendoa bilatuko da eta bakoitzaren hiri-profilen artean osagarritasun estrategikoak adostu beharko dira.


EAEko hiri-hierarkiaren bigarren maila batean tamaina ertaineko hirien sare erakargarri bat osatu da. Hiritarra eta landatarra bateratzeko funtsezko espazioak dira eta paisaia eraikiak eta esparru naturalak batera ikus daitezke, gure lurraldeko berezko paisaiaren zati bat definitzen.

Tamaina ertaineko hiri horiek hiri guneak osatzen dituzte, eta lurralde-egituraren oreka globalari eusteko garrantzi handikoak dira, gizarte-orekari eusteko ere oso garrantzitsuak dira, bertako herritarrek jatorriarekin duten lotura estuagatik, eta garrantzi handia dute, halaber, etorkizuneko eredia definituko duten egoitza, lan eta aisialdiko lekuen arteko oreka lortzeko. Funtsezkoa da tamaina ertaineko hirien hiri-kalitatea hobetzea eta ingurunearekin bat etortzea, etorkizunean esparru erakargarriak izatea nahi bada eta garatu nahi badira; funtsezkoa da, era berean, zenbait ezagutzen ari diren gainbehera gelditzea eta hirien euskal sistemako tarteko eta ereduzko maila honen ekonomia eta produktibitate-aniztasuna indartzea.



EAEk landa-espazioetan euren identitatea, morfologia eta irudia gordetzen duten herri txikiek osatutako sare txiki bikain bat du. Ingurunean bikainki integratzea lortu dute eta, sarritan, paisaia naturala aberasten duten elementuak dira herri txikiak. Ezinbestekoak dira, gainera, gure ohiturak, usadioa eta idiosinkrasia kontserbatzeko. Horien artetik ia 100 herri txikitan EAEko hiri guneetan jatorria duen bigarren bizilekuaren fenomeno berezia azpimarratu behar da. Eguzkia eta hondartza eskatzen dituen turismo eredu klasikotik aldentzen da joera hori eta garrantzi handikoa da goraka ari den landa-turismoa indartzeko. Zentzu horretan, landa-turismoa herri txikien etorkizuna ziurtatzeko funtsezko jardueratzat aurkezten da. Landa guneen sare hori bakarra da gaur egungo eskualde-hirien testuinguruan. Besteak beste, azpimarratzekoak dira kultur ondarea eta lehen mailako hiri-espazio erakargarri eta berezien eskaintza bat osatzen duten 69 Gune Historikoak.

### Euskal hiriburuetako biztanleriaren bilakaera (1950-2005)




Iturria: Eustat, 2006

Lurralde-esparru eta paisaia-esparru desberdinak definitzen dituzten hiru hiri-maila horiek aniztasun fisiko handiko lurralde batean daude kokatuta: kostaldeko espazioetatik hasi eta lautada mediterraneo eta bailara atlantikoetara, eta esparru naturalak eta nekazaritza-esparruak lurraldean banatuta, atze-oihal baten antzera. Horrelako espazioak, hiri-sistemekin lotura handia dutenak eta biztanleria guneetatik hurbil egoten direnak, biodibertsitatea eta paisaiaren kalitatea mantentzeko aktibo bisual eta ekologiko oso baliagarriak dira eta, era berean, naturaren erdian lurraldeaz gozatzeko eta aisialdirako aukera anitzak eskaintzen dituzte.

Hamar urte oso urte gutxi dira hiri-sisteman eraldaketa garrantzitsuak gauzatzeko. Hala ere, joera berriak eta aldaketak suma daitezke eta aurreko etapetan bizitako dinamika aldatu egingo dela pentsa daiteke.

Horrela, hiriburuen eremu funtzionaletan berkonfigurazio-prozesu garrantzitsu bat bizi ondoren, espazio edo gune zentralen eraldaketa funtzionala gertatu da, esparru metropolitarraren azalera zabaldu egin da eta zentraltasun berriak sortu dira. Bilbo Metropolitarraren hiri-irudiak ezagutu duen leheneratze integrala eta irudi-aldaketa da, seguru asko, lurralde osoan egin den esku-hartzerik ezagunena eta eragin handien izango duena.

Azalera handiek EAEko merkataritza-jardueran duten parte-hartzearen bilakaera (1997-2005)




Iturria: Eustat, 2006

Bilbo ez bezala, Donostia betidanik izan da hiri-erakargarritasun handiko hiri bat. Hiriaren edertasuna da bere ezaugarriak azpimarragarrienetako eta erabakigarrienetako bat Eskualde-Hiriaren esparru berrian hiri-funtzio berriak beregatzeko eta betetzeko. Hala ere, Donostiako inguru metropolitarran badaude hiri-nariadura handiko hainbat gune, eta baliteke guztietan esanguratsuen Pasaiaiko badia izatea. Gasteizen, bestalde, oraintsuago ezagutu da hazkundera eta kalitatezko hiri enblematiko gisa garatu da hiri-garapen berriei dagokienez.

Hiru hirien kasuan erabakigarria izan da espazio zentralak berritzeko eta birkualifikatzeko garatu den prozesua eta hiri-profilak indartzeko, eta hiru hirien irudia, batez ere hirietako espazio enblematikoena, hobetzeko balio izan du. Era berean, hirien potentzialaren zati garrantzitsu bat garatzea lortu da, eta, horri esker, azken urteetan euskal ekonomia sustatzeko funtsezkoak izan diren goimailako funtzioak eta jarduerak barne hartu dira.

Berrikuntza-prozesu horiek lurzoru eta espazio erakargarriak sortzeko balio izan dute, guneak hirugarren sektoreko bihurtzeko baino gehiago, eta, horiei esker, gune zentralak dinamismo demografikoa berreskuratu dute –horren adibide esanguratsuen Bilbo da-, eta hiri-espazio biziago bat eta irudiari eta funtzioei dagokienez anitzago bat osatzea lortu da.






Azken urteetan garatu diren proiektu enblematikoen eskutik erdietsitako lorpenak adierazle egokia dira datozen urteetan gara daitezkeen ekintzak eza-gutzeko: Bilboko itsasadarraren proiektua amaitzea, Pasaiako badia berritzea, Arabako plataforma logistiko handietara lotutako paisaia berria, hiru hirietako espazio zaharkituak, narriatuak edo etorkizun zehazgabea dutenak berritzeko ekintzak, Abiadura Handiko geltoki berrietara lotutako aukerak, eta abar.


Hiriburuetako erdiguneek betetzen duten funtzio berriekin batera, lurraldea betetzeko eta hiriaren kanpoaldea antolatzeko modu berriak agertu dira eta horrek esparru metropolitarrak zabaltzea ekarri du.

Erdiguneak berritzeko prozesua eta hiriaren kanpoaldean gune berriak sortzea batera eman dira eta espazioaren eraldaketa funtzionala da eragin duten ondorio nagusia. Orain arte jarduera jakin batzuk garatzeko erabili diren lekue-tan jarduera erabat berriak garatuko dira. Eraldaketa funtzionalarekin batera aldaketa formala ematen da, alegia, espazio publikoak, arkitekturak eta, azken finean, espazio bakoitzaren paisaia, aldatu egiten dira nabarmenki.



Gaur egun aldaketa funtzional ugari antzeman daitezke EAEko esparru ugarran. Hiriburuen erdiguneetan hornidura-jarduera berriak indartzen ari direla ikus daiteke. Begi-bistakoa da, adibidez, Bilboren kasuan. Horrela, Bilboko itsasadarren inguruan zeuden industria- eta portu-espazio zaharrak desagertu egin dira, goi-mailako ekipamendu berriak hartzeko. Gasteizen, bestalde, hirigune historikoa berreskuratzeko aktiboki ari dira lanean. Donostian garatutako ekimenei dagokienez, museoen sarea osatu da, hiriaren zabalgunean turismo-proposamenak egin dira eta jarduera intentsiboak garatu dira Pasaiaiko badiaren berritzeari ekiteko, besteak beste.


Bestetik, deszentralizazioa lortu eta hiriaren kanpoaldea berriro egituratzeko prozesua izan da azken hamarkadan indartu den hiri-garapenaren eragile nagusia. Jakina, horrelako eredu batek ondo funtzionatzeko ezinbestekoa da mugikortasun mekanizatu pribatua areagotzea eta orokortzea; horretarako motorizazio-maila, bidaia kopurua, egindako distantzia, eta abar bezalako alderdiak neurtuko dira.



Egia da, hasiera batean hedapen metropolitarra egoitza-azpiurbanizazio selektiboarekin erlazionatzen zela; ondoren industriara zabaldu zen erlazio hori eta, beranduago, maila ertaineko sektore zabaletara, kasuan kasuko tokiko ekipamenduak eskainiz. Azken hamarkadan hirugarren sektoreko enpleguaren hainbat segmentu garrantzitsuren deszentralizazioa lortu nahi da batez ere, bai eta hiri inguruko merkataritza-azalera handiak eta ekipamendu publiko edo pribatu handiak orokortu ere.

Aipatu prozesua Eskualde-Hiriak berezkoa duen funtsezko ezaugarrietako bat da, eta beste lurralde batzuetan izandako esperientziari erreparatuz eta EAEn izandako esperientziari erreparatuz, lurraldean ondorio eztabaidagarriak eragiteko arriskua dagoela azpimarratu behar da: espazioa zatitzea (urbanizazio-prozesuan jarraikortasuna etenda geratzen da), espezializazio funtzionala (zati bakoitza, isolaturik, jarduera eskusibo baten euskarri bihurtzen da), eta gizarte-bereizketa.


Deszentralizazio-prozesu hori bat dator, neurri handi batean, LAAetan lurraldea berrorekatzeko egiten diren proposamenekin, hortaz, lortutako hedapenak eta hirien kanpoalde berrien konplexutasunak espazio metropolitarraren muga tradizionalak gainditu dituzte, dagokien eragin-zonatik kanpoko esparru funtzionalak eta landa-zona tradizionalak barne hartzeko.




Prozesu horrek erakusten du azken 10 urteetan biztanleriak gorabehera handirik eduki ez duen arren azalera urbanizatuak izan duen ia % 20ko gorakadaren zergatia. Hazkundera inguru metropolitarretan eman da funtsean. Egoitza-hazkunde berriak, industria-garapenak, ekipamendu bereziak, enpresa-parkeak eta hirugarren sektoreko multzoak, merkataritza-azalera handiak eta aisialdikoak Guztiarekin lurralde gero eta zabalago bat osatzen da eta, gero eta gehiago, zentraltasun berriak eta lurralde-dinamika berriak sortzen dira.

Metropoliaren hedapena eragin duen prozesu horren daturik esanguratsuena aipatzekotan, ingurumen- eta paisaia-kalitate altuko zonetarako orientazio selektiboa azpimarra daiteke. Ildo horretan, azken urteetan hiriburu eta erdigunee-kin komunikatzeko sistema berriak eta hobeak eskaini dira.

Horrela, beraz, esparru metropolitarrak hedapen-prozesu batean daude murgilduta eta, ondorioz, zentraltasun berriak ari dira sortzen. Euskal hiriburuak mugikortasun eta iresgarritasun handiagoko testuinguru honetan erakutsitako indar funtzional gero eta handiagoak, lurraldeko hiri nagusi tradizional askori protagonismoa kendu die.





Hiri ertain garrantzitsuenetan horniduren eta zerbitzu publiko zein pribatuen eskaintzaren kalitatea eta aniztasun hobetzeko prozesu bat garatzen ari badira ere, hiriburuek gaur egun betetzen duten funtzio berria dela eta, anitzagoa, zabalagoa, erakargarriagoa eta espezializatuagoa da hiriburuetan egiten den eskaintza komertziala, kulturala, aisialdiko, zerbitzu pertsonalena eta enpresa-zerbitzuena. Oso zaila da hiriburuek duten erakargarritasun handiari aurre egitea hiri ertainetan egiten den eskaintza konbentzionalagoarekin eta mugatuagoarekin. Errepideak hobetu dira eta autoaren erabilera orokortu egin da; ondorioz, lehen tamaina ertaineko hirietan eta eskualdeko hiri nagusietan egiten zen hirugarren sektoreko eskariaren zati gero eta esanguratsuago bat hiriburuetan egiten da orain.

Prozesu horrek orain artean gunek horiek erakutsitako zentraltasuna galtzea eragin du eta betetzen ziren funtzioen garrantzia galdu egin da. Zenbat eta txikiagoa izan gunea eta zenbat eta integratuagoa egon hiriburuen hedapen-esparruetan, orduan eta nabarmenago ikus daiteke prozesuaren eragina.

Horrela, orain arte kostaldean eta mendi-inguruetan gutxi urbanizatuta egon diren zonen dinamismoa biziagotu egin den bitartean, aurreko garapen-etapan

lortutako hazkundean funtsezkoak izan diren industria gunek tradizional asko moteldu egin dira edo gainbeheran daude. Hori gertatu da, adibidez, Eibar, Laudio, Arrasate, Tolosa, Zumarraga, eta abar bezalako hirietan. Kasu horietan guztietan, zenbat eta urrutiago egon hiru euskal hiriburuak lotzen dituzten ardatzetatik orduan eta nabarmenagoa da dinamismo falta.

Prozesua landa guneeetara iritsi da halaber. Horrela, aldaketa sakonak eragin dira bertan eta landa guneen izaera tradizionala aldatzen ari dela ikus daiteke. Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak murriztu egin dira nabarmenki eta, horren parean, landa guneeetara biztanle berriak gehitu dira. Azken hamarkadan landa gunek ezagutu duten hazkunde proportzionala hiri guneeetan izandakoaren gainetik egon da, faktore jakin batzuen eraginez. Etxebizitzaren eta joan-etorrien kostuak baxuagoak izan dira eta tokiko zergak ere baxuagoak izan dira, tamaina txikiagoko sare eta sistema publikoak mantentzeko beharrari erantzuteko. Ingurumen- eta hiri-kalitatea, giro erakargarri eta anitz gehiago eza-gutzeko aukera, delinkuentzia-indize baxuagoak, iraunkortasuna eta asaldura eta istripuen aurreko ahulezia murriztea, eta abar.

Bigarren etxebizitza ugari lehen etxebizitza bihurtu dira, eta ingurumen-mailako erakargarritasun handiko landa gune askotara hiri guneak utzi dituzten biztanleak ari dira joaten bizitzera gero eta gehiago. Horrelako egoera bizi dute hiri gune nagusietan batik bat (Zarautz eta Mungiako kostaldea, Igorre, Arabako Lautada, Enkartzioetan ekialderago geratzen diren zonak), eta gero eta nabarmenagoa da kokapen eszentrikoa edukita gero eta hobeto komunikatuta dagoen eta erakargarritasun bereziko lekua den Arabako Errioxan. Aisialdiko eta egoitzazko eskari berriak, golf-zelaiak, landa-turismoa, eta abar dira landa-esparruetan sortu diren erabilera berriak. Gero eta gehiago landa-paisaia eraikuntza berriak ikus daitezke, izan ere, normalean eraikuntza tradizionalak ez dituzte eskaintzen egoiliar berriek eskatzen dituzten erosotasun-baldintzak eta zerbitzuak. Urrunen kokatutako landa guneen kasuan, hiriburuetatik iristeko baldintzak zailagoak izaten dira, edo bizigarri gutxiago izaten dituzte eta kontrakoa gertatzen da, biztanleria galdu ahala eta ustiapenak eta baserriak utzi ahala.

Aldaketa horiek guztiak kontuan hartuta, finkamendu-sistema berregituratzen ari dela esan daiteke. Horrela, aldaketa hierarkikoak gertatu baino gehiago, gero eta konplexuagoa da egoera eta gero eta estuagoak dira lurralde-esparruen arteko erlazioak.

Bizkaian Bilbo dugu protagonista nagusia. Garrantzia irabazi du, baina bere esparru metropolitarrak gero eta zabalagoa eta anitzagoa da eta Kadagatik, Arratia eta Ibaizabal bailaretatik eta Plentzia eta Bermeo arteko kostaldetik zabaltzen da. Horrenbestez, ikuspegi funtzionaltik orekatuagoa den eredu bat sortzen da eta, are garrantzitsuagoa dena, orain arte integrazio-maila baxua zuten espazioen artean erlazioak egotea ahalbidetzen da.

Gipuzkoan, aitzitik, horrelako hiri gune asko ezagutzen ari diren gainbeheraren eraginez, hiri ertainen sistema indartsuarekin erlazionatutako oreka eredugarria arriskuan egon daiteke, epe ertainera zein luzera. Horrela, beraz, hiri ertainek berrikuntza- eta hobekuntza-ekintza garrantzitsuak behar dituzte lehengo erakargarritasuna berreskuratzeko. Horixe da Debako bailaran eta Oria eta Urumea ibaien goiko zatietan gertatzen dena; eta kontrakoa gertatzen da, berriaz, Zarautz-Zumaia arteko kostaldean.

Testuinguru horretan, Araba goraka ari den eta oso dinamikoa den lurralde bat bezala agertzen da. Gasteiz da, oraindik ere, elementu nagusia, baina orain egitura zabalago bat eskaintzen da eta hiriburuaren esparrua asko zabaltzen da; horrela, A-1-eko jarduera-espazioak eta Lautadako egoitza- eta industria-hazkunde berriak barne hartzen dira.

Horrenbestez, egoera berri baten aurrean gaudela esan daiteke, egoera konplexu eta elkarreraginezko baten aurrean. Besteak beste, ondorengo fenomenoak azpimarratu behar dira: gune metropolitarr nagusien hedapen espaziala, funtzionala eta demografikoa, EAEko hiri ertainen egoera anitzak, espazio eraikien hazkundera eta landa-finkamenduen izaera-aldaketa. Arrazoi eta eragin desberdineko prozesuak dira eta lan honetan aurrerago aztertuko dira zehaztasun handiagoarekin, sakonkiago ezagutzeko.





### b.7. ETXEBIZITZA ETA EGOITZA LURZORUA

Eskualde-Hiriaren paisaia berri honetan garatzen diren prozesuen artetik esanguratsuenetako bat etxebizitzaren prezioaren gorakada da, bai eta egoitza- eskariak ezagutu dituen aldaketak ere.

Etxebizitzaren prezioak izan duen gorakada ez da EAEn bakarrik gertatu den fenomeno bat. Errenten gorakada, interes-tasa baxuak, etxebizitza inbertsio gisa ikustea, eta abar bezalako faktoreen eraginez nabarmenki areagotu da eskaria eta, ondorioz, gora egin dute etxebizitzaren eta lurzuaren prezioek, gero eta zurrunagoa den eskaintza baten barruan.

Prezioen gorakada etxebizitza-parkea nabarmenki areagotu den testuinguru batean gertatu da, hazkunde demografikorik egon ez arren. Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua antolatzeke LAPen arabera (izapidetzen ari da oraindik), 1986 eta 1999 artean % 15ekoa izan da etxebizitza-parkearen hazkunde globala. Hazkunde horretan, etxebizitza babestuak eraikuntza berriko etxebizitzen guztizkoan % 25eko portzentajea erregistratu du batez beste.

Aipatutako LAPean hazkunde horrekin jarraitzeke proposamena egiten da. Horren arabera, 2000-2016 aldirako 133.600 etxebizitza beharko direla kalkulatu


da. Kalkulu horiek egiteko, etengabeko murrizketa demografikoa adierazten zuten proiektzioak -2000-2005 aldiko gorakada demografikoak okerrekoak direla baieztatu du- erabili dira.

Etxebizitza kopuruak izandako gorakada handi horretan azpimarratzekoa da alokairuko etxebizitza kopuruak ezagutu duen murrizketa. Horrela, ez da guztizkoaren % 10era iristen eta Estatuko batez bestekotik behera egoteaz gain, Europar Batasun osoko baxuena ere bada.

Lurraldearen ikuspegitik, lau dira egoitza-espazioak garatzeko prozesuan aipatzea merezi duten fenomenoak.


1. Hasteko, etxebizitza-parkea areagotu egin da oro har, baina joera hori ez dator bat biztanleriak izandako aldaketarekin; eta etxebizitzen guztizko kopuruak gora egin du, batez ere etxebizitza nagusienak. Hazkunde horiek hazkunde demografikoa baino nabarmenagoak izan dira Bizkaian eta Gipuzkoan batez ere, eta gutxiago Araban. Datu hori bat dator azken hamarkadan hiriaren kanpoko garapen berrietara izandako egoitza-aldaketen prozesuekin. Era berean, ezin da ahaztu, prezioen beherakada lortzeko,

Biztanleriaren eta etxebizitza nagusien bilakaera konparatua EAEn (1991-2001)



Iturria: Eustat, 2006


Biztanleriaren eta etxebizitza nagusien bilakaera konparatua Araban (1991-2001)



Iturria: Eustat, 2006

Biztanleriaren eta etxebizitza nagusien bilakaera konparatua Gipuzkoan (1991-2001)


1991. urtea. 100 indizea



Iturria: Eustat, 2006

Biztanleriaren eta etxebizitza nagusien bilakaera konparatua Bizkaian (1991-2001)

1991. urtea. 100 indizea




Iturria: Eustat, 2006

eskaintza areagotzeaz gain, faktore gehiago hartu behar direla kontuan. Izan ere, kontuan hartu behar da etxebizitza asko merkatutik kanpo daudela, kokapena egokia ez delako, zaharkituta daudelako edo kokapen edo eraikuntza eskasak dituztelako. Horren parean, etxebizitza tipologia berrien eskaria gehiegizkoa da, bai eta etxebizitzari balio erantsia ematen dioten berariazko guneetan kokatutako eraikuntzen eskaria ere (eremu zentralak, garapen berriak kalitate altuko zonetan, eta abar).

2. Kontuan hartu beharreko bigarren fenomenoak bigarren etxebizitzaren kopuruak izandako egonkortzea da. Horrela, Gipuzkoan bakarrik lortu da kopuruak gora egitea, eta Bizkaian eta Araban, berriz, murriztu egin dira kopuru absolutuak, hortaz, bigarren etxebizitzak egoitza nagusi bihurtzeko prozesu aktiboak daudela eta azken urteetan eskaria EAetik kanpo dauden espazioetara zuzendu dela baieztatzen da.

3. Bailara kantauriarretan lurzoru erabilgarri gutxi egonik ere, urbanizazio-prozesua bertara zabaltzen ari dela ikus daiteke, egoitza guneen batez besteko dentsitateak murriztuz. Horrela, egoitza-erabilerako guneen dentsitate globala murrizten joan da pixkanaka EAE osoan eta, bereziki, Bizkaian. Dentsitatearen murrizketa ez da hain nabarmena izan Gipuzkoan.

### Bigarren etxebizitzaren bilakaera (1991-2001)




Iturria: Eustat, 2006

Gipuzkoa da biztanleriarekiko etxebizitzaren eskaintza gehien areagotu den lurraldea, bai eta batez besteko preziorik altuenak dituen ere. Azken hamar urteetan lortutako garapenen dentsitatea bakarrik aztertzen bada, hedapen-prozesuaren eragina nabarmenagoa da Bizkaian eta batez ere Araban. Azken horretan 29 etxeb./bizt. arte murriztu da berriki izandako hazkundearen dentsitatea. Horrelako garapen-prozesuetan etxebizitza familiabakarrak eta Bilboko ingurune metropolitarran ikus daitezkeen eredu estensiboak nagusitzen dira. Arabako Lautadaren kasuan, gainera, lurzoru gehiago dago erabilgarri. Aitzitik, 1997-2001 aldian Gipuzkoan izandako garapenen batez besteko dentsitatea 51 etxeb./bizt. da, hortaz, lurralde horrek erregistratu dituen dentsitate historikoak murriztu direla azpimarratu behar da, nahiz eta ez den EAEn maila berean izan.

4. Amaitzeko, azpimarratzekoa da lurzoru ez-urbanizagarriko etxebizitzaren kopuru absolutuek ezagutu duten murrizketa. Udalplan-en datuen arabera, 1996an 46.111 ziren eta 45.800, berriz, 2006an. Datu bitxia da eta berau ulertzeko kontuan hartu beharko litzateke aztertzen ari garen prozesua nabarmenki moteldu dela EAEn, eta kontuan hartu beharko litzateke, halaber, plangintza berrien ondorioz landa-etxebizitza isolatu ugari barne hartu direla hiri-espazioetan, batez ere Arabaren kasuan.

## Egoitza-garapenen dentsitate konparatuta (etxebizitza/ha)



Iturria: Udalplan, 2006


### b.8. JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA

EAEko industriak pisu erlatiboa galdu badu ere, ez dira murriztu jarduera produktiboetarako lurzoruen beharrak. Horrela, industria-lurzoruen eskaria areagotu egin da eta, era berean, merkataritza-espazio eta aisialdiko espazio berrietara lotutako eskari berriak sortu dira, eta betiko eskariak gain, hirugarren sektoreko ezarpen berriak sortu dira.

Lurzoruak ekonomia-jarduerekin betetzeko prozesuetan LAAetan proposatutako kokapen-jarraibideak hartu dira kontuan eta lurralde eremuan aurkeztutako industria-korridoreak sendotu edo mantendu dira, kasuan kasu. Zentzu horretan, lurralde-mailako aldaketa nagusia Erdialdeko Arabako jarduera-espazioek ezagutu duten hazkundera da. Bertan kokatu dira ezarpen handienak. Bizkaian eta Gipuzkoan tamaina handiagoko establezimenduen kopurua murriztu egin da, birmoldaketa-prozesuaren ondorioz. Esanak esan, zenbait kasutan ezarpen zaharkitu handiak edo lurralde-testuinguru berrian kokapen ez-egokia duten ezarpenak mantentzen dira, beste batzuetan espazioak aldatu ondoren erabilerak berriak hartu dira, baina guztia lurzoru gutxi dagoen eta erabileren arteko lehiakortasuna handia den testuinguru orokor batean egin da.

Udalplan 2006 datu-basean ekonomia-jardueretarako sailkatutako lurzoruen azterketak erakusten duenez, erabilera horren azalera zabalenak eremu metropolitarraren inguruetan kokatzen dira. Horrela sailkatutako lurzoruaren % 25 baino gehiago Bilbo Metropolitarran dago eta beste hainbeste Erdialdeko Araban. Donostiak, bestalde, guztizkoaren % 10 bereganatu du. Ekonomia-jardueretarako sailkatutako lurzoruen portzentajeak lurzoru sailkatuen guztizkoan duen proportzioa kontuan hartuta, euskal industriaren gune tradizionaletan (Beasain, Eibar, Arrasate, Durango) eta Zarautz-Azpeitia eta Erdialdeko Araban erregistratu da pisu erlatibo altuena.

Udalplan-eko datuek azpimarratzen duten beste alderdi bat horrelako espazioen gainean egiten den presio handia eta erabilera-mailako lehiakortasun handia da. Guardiaren kasuan izan ezik, ekonomia-jardueretarako lurzoruen betetze-portzentajea % 80koa da, eta kasu askotan gainezka egoteko arriskua dago, Mungian esate baterako (% 100 betetzea), edo Donostian, Durangon eta Igorren, non % 95 inguruko betetze-portzentajeak erregistratu diren.




Ekonomia Jardueretarako Lurzoruaren LAP onartzearekin batera, zentzu horretan xedatutako artezpideen garapen osoa egitea ahalbidetu da. Mota honetako lurzoruaren garapen-prozesua arrazionalizatzea ahalbidetu da, eragile guztientzako erreferentzia orokor bat eskainiz. Industria-jardueren eta merkataritza gune handien hiri-baterakuntza eta lurralde-baterakuntza, eta isurialde kantauriarreko lurzoru-erreserba estrategikoen gaineko hausnarketa dira agiri honek egiten dituen funtsezko ekarpenak.

Azken urteetan plataforma logistiko handiak aurkezten zaizkigu ekonomia-jardueretarako lurzoru garatzeko funtsezko elementu gisa. Alde batetik, tamaina handiko plataformak dira eta lurraldean zein ekonomia-mailan esanahai estrategiko handia dute eta, bestetik, enpresa-azarpenetarako eskariak gero eta gehiago erakartzen dituzte.

Garraio gune handiak dira Garraio Sare Intermodal eta Logistikorako Lurraldearen Arloko Planak diseinatu duen strategiaren oinarria. Datozen urteetan erabakigarriak izango dira eta nazioarteko garraio-sistemetan, azpiegitura-sareetan eta lurralde-garapen berrietan duten eragin orokorra ondo koordinatzeko beharra azpimarratu behar da.

### Ekonomia-jardueretarako sailkatutako lurzoruaren bilakaera 1997-2006 tartean




Iturria: Udalplan, 2006



Aurrera begira, produkzio-jardueretarako lurzoruekin erlazioan funtsezkoa izango den beste elementu bat, jarduera-espazio jakin batzuk berritzeko ekintzak izango dira. Horien baitan, industrialdeez gain, trenbide-espazioak edo portu-eremuak berritzeko ekintzak garatu behar dira, eta guztien artetik aipagarriena Pasaiaiko portua da. Lurralde- eta hiri-ingurunearekiko konponbide koherenteak diseinatzea eta Eskualde-Hiriaren ikuspegira egokitzeko eta dinamizatzeko gaitasuna erakustea dira, zalantzarik gabe, Lurralde Eredu berria ondo garatzeko gaitasun beharrekiko erroka erabakigarriak.

Hirugarren erroka, ekonomia-jarduerak dinamizazio-elementu gisa eta hiribururik, hiri ertain eta landa guneetan elementu erakargarri berriak sortzeko elementu gisa barne hartzea da, eta datozen urteetan lehentasunezkoa izango da gainera. Ekonomia sortzailerako guneak sortzea, beraz, lurraldeko zati baliagarriak birgaitzeko eta lurraldearen berrikuntza-gaitasuna eta erakargarritasuna areagotzeko funtsezko estrategia bat bezala aurkezten zaigu batik bat.



## b.9. AZPIEGITURAK

### b.9.1. KANPO KONEXIOKO AZPIEGITURA HANDIAK

LAA onartu zirenetik EAEko lurralde ereduak ezagutu duen eraldaketak ekarritako alderdi kritikoetako bat garraio- eta komunikazio-azpiegitura handi berrien agerpena da, zalantzarik gabe. Gure lurraldeak mundu globaleko testuinguru konplexuan eta elkarreragilean kokapen egokia lortzeko funtsezko ekimenak dira. Horrez gain, lurralde-mailako ekimen guztiak sustatzeko funtsezko estrategia bat da, izan ere, EAE etorkizunean espazio europar berria artikulatuko duten lurralde-errotula handietako bat izateko apustua egin da. Jarduera guztien artetik ondoren aipatutakoak azpimarra daitezke EAEko lurralde-estrategia globalean duten eraginagatik:


- EAEko azpiegitura telematiko nabarmenki hobetu da eta, ondorioz, etorkizun ekonomikoari dagokionez, teknologia berrien garapena baliatuko da eta ekonomia eta gizarte globalarekin bat egitea bilatuko da. Zuntz optikoaren sarea sortzeko egindako ahalegina bide beretik zuzentzen da.
- Bilbon aireportu berri bat egin da. Bera da Espainia iparraldean nazioarteko aireporturik garrantzitsuena eta Europako nazioarteko aireportu nagu-


siekin komunikatzen da: Londres, Paris, Madril, Bartzelona, Frankfurt, eta abar. Horrekin batera, Gasteizko aireportua dago. Pixkanaka nazioarteko nodo logistiko gisa indartzen ari dela esan behar da. Gaur egun Estatuko hirugarren aireportua izatera iritsi da eta eskaintzen duen azpiegitura bikainari esker, hiriburu arabarrak Europa hegoaldeko guneko logistiko garrantzitsuenetako bat izatea lortu du.


- Bilboko Merkataritza Portua zabaltzeko lanei ekin zaie. Errepideetako eta trenbideetako sarbideak hobetu nahi dira, hartara, dagokien eragin-esparrua zabaltzeko eta Europako testuinguruan protagonismoa areagotzeko.
- Hiriburuen euskal sistema polizentrikoaren konexioak hobetu dira errepideei dagokionez, Miranda eta Iruña artean, Ebroko Ardatzari esker. EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan Gasteiz eta Logroño arteko konexioa hobetzea aurreikusi da etorkizunera begira.

- Gaur egun errealitate bihurtu da Kantabriarekin autobide bidezko konexioa eta Asturiasera eta Galiziara iristea aurreikusi da. Horrenbestez, Arku Atlantikoko eskualde horiek gainerako hiri-sistema europarrean integratzea lortuko da eta, bidez batez, EAEk espazio europar horretan duen zentraltasuna indartuko da. Horrenbestez, bertako hiri-nodo nagusiak artikulatzeko estrategia horiek garatu beharko dira etorkizunean.
- Azpiegiturekin erlazionatuta garatu diren ekimen guztien artetik, EAERako etorkizunean garrantzi handikoak izango dira Abiadura Handiko trenbidearen proiektua, batez ere ipar-hego ardatz jarraituaren bitartez (Paris, Bordele, EAE, Valladolid, Madril, Sevilla), Kantabriakoko ardatza eta Donostia eta Iruña eta Zaragoza arteko konexioa. Funtsezko azpiegitura bat da lurraldearen zentraltasuna eta iredgarritasuna areagotzeko. Era berean, merkantzien garraioaren fluxuetan trenbideak duen pisua areagotzeko aukerak ahalbidetzen dira.









GAITASUN HANDIKO ERREPIDE SAREA



AHT PROPOSAMENA








## b.9.2. ESQUALDE-HIRIA ARTIKULATZEKO AZPIEGITURAK

Abiadura Handiko trenaren alde egindako apustuaren ildotik, EAEko etorkizunerako funtsezkoa izango da abiadura handiko trenbide-azpiegitura erabiltzea, hiru euskal hiriburuen arteko konexioak errazteko. “Euskal Y” izenarekin ezagutzen den proiektuaren eskutik inoiz ez bezalako aurrerapausoa emango da euskal hiri-sistema bateratzeko, eta nazioartean lehiakorra eta erakargarria izatera iritsiko den benetako “eskualde-hiria” sortzeko bidea erraztuko da.

Abiadura handiko trenbidearen “Y”-rekin hiru euskal hiriburuak lotzen dira, batez beste 30 minutu irauten duten ibilbideen bitartez. “Y”-tik luzatuko dira abiadura handiko lineak, EAE inguruko hiri-sistema nagusiekin kalitate handiko konexio berriak sortzeko.






EAEko trenbide-artikulazioaren bigarren maila batean daude hiriburuen sistema polinuklearrak eta hiri ertainak konektatzeko elementuak. Aldiriko tren-zerbitzuak eskaintzen dira Bilbon eta Donostian RENFE, FEVE eta Euskotren sareen bitartez.

Hirugarren mailan daude esparru metropolitarraren barne-konexioko elementuak. Maila honetan jada funtzionatzen ari diren edo proiektuan dauden metroaren eta tranbiaren zerbitzuak sartzen dira.

Errepide-sareari dagokionez, bide-sare osoan eskaintzen den zerbitzuaren kalitatea eta maila hobetzeko lan egin da batik bat. EAE inguruan dituen lurralde guztiekin lotzen duten autobiak eta autobideak daude eta hiru euskal hiriburuak lotzeko gaitasun handiko konexioak eskaintzeaz gain, dentsitate altuko ardatz sekundarioak artikulatzen dituzte.

Intentsitate baxuagoko ibilbideetan (Nerbioi Garaia, Arabako Errioxa, eta abar), bide-trazadura hobetzeko, zeharbideak kentzeko eta sarbideak antolatzeko jarduerak garatu dira halaber eta, ondorioz, segurtasun-baldintzak nabarmenki hobetzeaz gain, joan-etorriak erraztu egin dira.

## Metro eta Euskotren erabili duten bidaiari kopuruaren bilakaera 1999-2005




Iturria: Eustat, 2006

Esanak esan, LAAetan proposatutako oinarritzko bide-sarea osatu da, neurri handi batean, eta eskualde-hirian izango diren pertsona eta merkantzien fluxu gero eta handiagoak artikulatzeko oinarri bikaina lortu dela azpimarra daiteke. Guztiarekin, Hiriburuen Euskal Sistema Polizentrikoko hiriek errepidez dituzten konexioak hobetu dira nabarmenki. Helburu nagusia da baterakuntza eta osagarritasun handiagoa lortzea eta zentraltasun europarreko hiri-nodo garrantzitsu bat egituratzea. Gaur egun Gasteiz-Donostia autobia, Arrasatetik, ari dira eraikitzen eta berari esker Hiriburuen Euskal Sistema Polinuklearra elkarkonektatzen duen gaitasun handiko bideen triangela itxiko da.

Eusko Jaurlaritzaren Errepideen LAA eta hiru Foru Aldundiei dagozkien LAA onartzearekin batera, xede dugun sarearen mantentzea eta garapena lortzeko jarduera- eta kudeaketa-esparrua osatuta geratu da. Sareko errepide jakin batzuetan bidegorriak jartzeko eta ingurumen-kudeaketa hobetzeko pizgarriak ere barne hartzen dituzte.

Erdiguneetatik oso urrun geratzen diren eta biztanleria gutxi duten zenbait lurraldetan iresgarritasun-mailako arazo esanguratsuak daude. Horren adibide dira Enkartzioetako mendebaldeko zonak edo Araba hego-ekialdeko mendialdeko eremuak. Zaila da mendi-inguruetakako konexioak hobetzea, garrantzi gutxiko trafiko-fluxuak erregistratzen baitira eta bertan esku-hartzeak kostu ekonomiko eta ingurumen-kostu altuak eragiten baititu.

Lurraldearen gainerakoan dentsitate altueneko esparruetako gainezkatzearikin erlacionatutako arazoak azpimarratu behar dira. Arazo horiek konpontzera zuzenduko dira proiektu eta proposamen nagusiak datozen urteetan, hala nola Bilboko hego-saihesbide metropolitarrak eta hiriburuetarako sarbideen gaitasuna eta kopurua areagotzeko beharra, hiriburuen inguruan sortutako garapen-esparru berrietatik.




## b.10. MUGIKORTASUN IRAUNKORAREN ERRONKA

Azken urteetan bide-sarean egindako hobekuntzei esker, kanal eraginkorragoak, seguruagoak, gaitasun handiagokoak eta bidaia-denbora laburragokoak lortu dira.


Hala ere, azpiegitura gehiago eta hobeak hornitzeak ez du beti esan nahi mugikortasuna hobetuko denik, joan-etorrien kostu ekonomiko, sozial eta ingurumenekoari dagokienez. Hainbat faktorek eragiten dute horrelako egoera bat:

- Motorizazioaren hazkunde ikusgarria. Biztanleriak izandako hazkundera gainditu du eta ibilgailu pribatuaren erabilera orokortu egin da.
- Ekonomiak etengabe egin du gora, eta globalizazioak eta europar batasuna lortzeko prozesuak ekarritako trukeek izandako gorakadarekin batera, pertsona eta merkantzien garraio-fluxuak eta produkzio-jarduerekin erlazionatutako joan-etorriak areagotu egin dira.

### Biztanleriaren eta ibilgailu kopuruaren bilakaera konparatua EAEn (1992-2004)




Iturria: Eustat, 2006



- Bizimodu berriak eta espazioa antolatzeko modu berriak agertu dira eta, ondorioz, hiri-espazioak gero eta gehiago ari dira zabaltzen eta hiriaren kanpoko eremuetan merkataritza-esparru eta aisialdiko esparru berriak ari dira sortzen; bestalde, aisialdi eta turismoko jarduerak ugartu egin dira, bizilekuaren eta lanaren arteko dikotomia areagotu egin da, eta abar. Guztiarekin, nabarmenki ugartu dira eguneroko bizitzako jarduerak betetzeko egiten diren joan-etorriak.
- EAE bera gero eta gehiago ari da egituratzen eskualde-hiri bateratu bat bezala eta bizitzeko eta lanerako espazio bakar bat bezala antolatzen da gero eta gehiago eta, ondorioz, joan-etorrien eskariak gora egiten du.

Oso adierazgarriak dira, zentzu horretan, mugikortasun-eskariaren eta joan-etorrien kopuruaren gorakadaren datuak. Lurralde garatu guztietan bezala, mugikortasun-beharren gorakada etengabea da. Horren ondorioz agerikoena gainezkatzearekin erlazioatutako arazoak dira. Arazo horiek bereziki nabarmenak dira EAE bezalako dentsitate altua eta urbanizazio-maila altua duen lurralde batean.

Joan-etorri kopuruaren bilakaera EAEn. Guztizkoa eta garraio-moduaren arabera (1989-2004)





Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek sortutako mugikortasunari dagokionez, 5.464.160 joan-etorri egin ziren 2003an: horietatik % 90 eskualde barruan egin ziren, % 9 eskualdeen artean eta % 1 kanpoko zonetara.

Ondorengo lerroetan aipatu dira joan-etorriak egiteko erabiliko garraiobidearen arabera azpimarra daitezkeen alderdirik garrantzitsuenak:

- Ibilgailu partikularren erabilerak garraio publikoarena gainditzen du. Are gehiago erabiltzen da garraio pribatua hiri arteko joan-etorriak egiteko, hiri barruan mugitzeko baino.
- Hiru euskal hiriburuetan garraio publikoaren erabilerak erregistratu dituzten tasek lurraldearen gainerakoan erregistratukoak gainditzen dituzte.
- Hiru euskal hiriburuak bakarrik aztertuz, garraio publikoaren erabilera handiagoa egiten da Bilbon, bai hirian barruan bai udalerrira iristeko egiten diren bidaietan.

Azpimarratzekoa da “EAEko mugikortasunaren azterketak” zentzu horretan adierazitakoa. Horren arabera, ondorengoak dira Euskadin gizarte-erakargarritasun handieneko gunek: Arabako Boulevard-a, Max Center-Ikea, Artea eta Bilbondo Bizkaian, eta Garbera eta Urbil Gipuzkoan. Gune horietan auto-ilara ugari sortzen dira eta ilarek egunean duten batez besteko iraupenak % 15-50 arteko portzentajeak erregistratzen ditu.




Goraka ari diren beste eskualde-hiri batzuen kasuan bezala, mugikortasunak ezagututako aldaketak, hiri- eta lurralde-paisaia berriek ekarritako eraldaketa-prozesuekin daude erlazionatuta (berrurbanizazioa; metropoliaren hedapena; erdiguneen ber kualifikazioa; industriaren birkokapena; hirien kanpoaldean merkataritza-polo eta aisialdiko polo berriak; eta abar), eta guztiak mugikortasun-eskariaren etengabeko gorakada eragiten dute. EAEk, gainera, hainbat ezaugarri berezi eta berriazko ditu.

EAEren berezko ezaugarriak dira biztanleria-dentsitate altua, espazio urbanizatuen jarraikortasuna, hirigintza-garapenerako eta azpiegiturak kokatzeko lurzoruen eskasia; eta guztiak eragiten dituzte arazoak. Izan ere, tokiko trafikoak hiri arteko izaera dutenekin nahasten dira eta, horrez gain, garraio-korridoreak urbanizazio-dentsitate altuko zonetatik luzatzen dira.

Hazkunde ekonomikoko prozesuekin eta lurralde-konfigurazio berriekin batera mugikortasun-eskariaren areagotzea gertatzen da beti. Horrelako prozesu bat ez bada behar den bezala kudeatzen, arazoak gero eta larriagoak izango dira eta lurraldearen lehiakortasunari eta bertako biztanleen ongizateari begira, oztopo izatera iritsi daitezke. Izan ere, garapena eta iraunkortasuna lortzeko helburuak arriskuan jartzeaz gain, gainezkatzea, poluzioa eta kostuak areagotzea gerta daitezke; azpiegitura berrietan gero eta gastu handiagoa egin behar izatea; hiri-paisaia narriatzea; bide berriek lurraldea betetzea, eta abar.

**Biztanleriaren bilakaera etxebizitzaren eta lanpostuaren arteko distantziaren arabera (1989-2004)**



Lurralde-ekintzak tresna eraginkorrak dira mugikortasuna areagotu izanak ekarritako ondorio negatiboak arintzeko, bai eta azpiegitura eta garraioen esparruan garatzen diren arloko ekimenen eraginkortasuna ziurtatzeko ere.

Bailara kantauriarren eta kostaldeko hainbat zonen finkamenduen konfigurazio lineala aurkezten da EAEn lurralde-egiturak garraio kolektiboko sistema eraginkorrak artikulatzeko duen aukera bikainenetako bat bezala. Egoera hori baliatu behar da eta antzeko ereduak proposatu behar dira Arabako Lautadarako edo Bilboko eta Donostiako ingurune metropolitarretarako, hori baita mugikortasun iraunkorra lortzeko eman beharreko urrats garrantzitsuenetako bat.

Konfigurazio lineal horretatik abiatuta, helburutzat mugikortasun iraunkorra lortzea duten garraio publikoko sistemak eta hiri-politikak garatuko dira: hazkundea garraio publikoko korridoreetan dentsifikatuko eta bertara orientatuko dira; geltokiak eta aldaketa modaleko guneak zentraltasun-eremu gisa egituratzea, joan-etorriekin erlazionatutako ekipamenduak eta erakargarritasun-elementuak kokatzeko; garraio-sistemen integrazioa, intermodalitatea eta tranbia eta tren arinen sistema berriak garatzea, banakako eta taldeko mugikortasunerako aukera berriak (hiri guneak, gune historikoak, naturguneak), inpaktu baxuko elementuetan oinarrituta, merkantzien garraioa espazio logistiko berrien bitartez antolatzea, trafikoa dagokion espazioaren ezaugarriekin bat etortzea,

hiri-espazioak berritzeko oztopoak desagerraraztea eta eraikuntza jarraituak egituratzea, ekobulebarren bitartez; horien bitartez mugikortasun iraunkorreko korridoreak osatzen dira, eta abar.


Eskualde-hiriaren esparru berrian, mugikortasun iraunkorra hiri- eta landa-espazioak diseinatzeko elementu bat bezala aurkezten da, espazio bakoitzaren eszenografia, izaera eta funtzionaltasunarekin koherentea eta, zalantzarik gabe, lurraldearen antolamendu berrian funtsezko elementu bat dela azpimarratu behar da.

## b.11. LAAetatik LURRALDE ESTRATEGIA BERRIRA

LZPak lantzean lortu da, batik bat, LAAetan adierazitakoa garatzea. 7 LZP behin betiko onartu eta gainerako guztien agiriak garatu ondoren, udalaz gaineko planen sistema bat osatu da, eta horien bitartez Artezpideen funtsezko hainbat alderdi zehazten dira lurraldean, hala nola ingurune fisikoa babesteko eremuak, egoitza-garapeneko eremu handiak eta ekonomia-jardueretarakoak, azpiegitura eta ekipamenduen sistemak, hiri-berrikuntzako jarduerak, eta abar. Kasu askotan, udal-plangintzako proposamenak eta Lurraldearen Arloko Planak bateratze-tik lortu dira horrelako tresnak.

Gainera, LAAetako Lurralde Eredua ezartzeko funtsezkoak diren hainbat LAP garatu dira. Batzuk behin betiko onartu dira jada eta, beste batzuk, izapidetzen ari dira oraindik. Lurraldearen Arloko Planak LAAen funtsezko garapenak dira eta arloko jarduerak garatzeko orduan LAAetako ereduarekin koherentea den lurralde-erreferentzia egokia dira.


LZPak eta LAPak LAAekin erlazio zuzenena duten elementuak dira, bai eta lurralde-mailan eragin handien eduki dezaketenak ere, baina, Artezpideetan adierazitakoa betetzeko orduan, elementu gehiagok izan dute eragina lurraldeak izan duen eraldaketan.



Horrela, ingurune fisikoaren esparruan, naturgune babestuen sistema ia osorik garatzea lortu da, eta, gaur egun, esparru eta kategoria ugari barne hartzen ditu [Parke Naturalak, BGLak, Biotopo Babestuak, Natur Interes Berezikiko Eremuak]. Bestalde, natura eta ingurumena babesteko legeria zabala garatu da eta mota anitzeko jarduerak egin dira, baso-espezieak berreskuratzeko planetatik baso-programa, ingurumen-kudeaketako programa, eta abarretara.

LAA idazten hasi ziren unean, aipatutako elementu guztiak ez ziren existitzen, edo oso gutxi garatuta zeuden. Gauzak horrela, Lurralde Ereduaren edukiaren zati handi bat oso lagungarria izan da eta baliabideak antolatzeko eta kudeatzeko irizpideak osatzeko, batez ere hirigintza eta arloko jardueretan ia kontuan hartzen ez ziren une batean. Gaur egun LAAek eta arloko garapenek egindako ekarpen positiboa baliatu behar da, eta horiek oinarrian hartuta ekin behar zaio Artezpideen eguneratzeari.

Zentzu horretan, LAAen edukia garatzeko etapa berri bati begira gainditu beharreko erronkak landa-paisaiaren kudeaketarekin daude lotuta, batez ere horrelako guneak aldaketa sakonak ezagutzen ari diren une batean; era berean, urbanizazio-maila altuko gizarteak espazio libreen gainean egiten dituen eskari berriak bateragarri egin beharko dira lurralde iraunkor bat lortzeko hazkunde ereduaren diseinuarekin, ingurumen-kalitatearen hainbat alderdi kritikorekin, hala nola poluzioa eta energiaren kontsumoarekin, eta uraren ziklo osoaren kudeaketarekin.



Antzekoa da azpiegituren egoera. Trenbideen LAP eta errepideen LAP onartzean, LAAetan proposatutako edukia garatzea eta zabaltzea lortu da; gainera, programazio-elementuak eta finantza-konpromisoak gehitu dira, behar den bezala garatuko direla ziurtatzeko.

Oraindik zenbait funtsezko proiektu gauzatzeke daude (Trenbide “Y”, Donostia-Gasteiz konexioa gaitasun handiko errepide bidez), baina, hala ere, garrantzi handikoak dira esparru honetan eman diren aurrerapausoak: eremu funtzionetako hiri nagusiak eta ardatz artikulatzaileak konektatzeko sarea, azpiegitura logistikoen garapena, aldiriko, metro eta tranbien sistemak zabaltzea, Bilboko portua eta aireportua zabaltzea, eta abar.

Era berean, azpiegiturekin erlazionatutako beste esparru batzuetan antolamendua eta garapena gauzatzeko elementu berriak eskaintzen dira: gas-sarea eta telekomunikazio-sarea zabaltzea, hondakinak biltzeko eta kudeatzeko sistemak zabaltzea, linea elektrikoaren antolamendua, eta abar.

Aipatutako alderdi guztiak barne hartu eta LAAetan aurkeztutako eszenategia lortu da batzuetan eta, lortu ez bada, zehaztasunez garatzeko tresnak eta programak daude.

Horrenbestez, aipatutako atal guztiak eguneratu behar dira lurraldean sortutako behar berriei erantzun nahi bazaie. Funtsezko alderdien artean aipa daitezke: mugikortasun iraunkorreko ereduaren kontzepzio integratua; hiri-espazioen arteko elkarreragina; garraio kolektiboko sistemen erabilera, konektibitatea eta gainerako konexio-sistemen, hala nola portuen eta, funtsean, aireportuen eta Abiadura Handiko geltokien, hiri- eta -lurralde-txertatzea, Lurralde Ereduaren funtsezko elementu gisa eta gune garrantzitsu gisa, EAEren eskualde-lidergoa eta proiektzio globala indartzeko; portua-hiria bat etortzea eta aldatzen ari diren portu-espazioen behin betiko profila; irizpide bioklimatikoak jarraitzen dituzten hiri ereduaren orokortzea, EAEren profil energetiko berria, eta abar.

Zalantzarik gabe, finkamendu-sistemeekin eta egoitza-lurzorua eta ekonomia-jardueretarako lurzorua garatzeko prozesuarekin erlazionatutako alderdiak dira azterketa zehatzago bat behar duten alderdiak.


Hiriburuen Sistema Polizentrikoa errealitate gero eta garrantzitsuagoa ari da bihurtzen, baita elkarrekin konektatzeko behin betiko sistemak lortu ez badira ere.

Hiru eskualde metropolitarretan dinamismoa nabarmenki areagotu da eta berregituraketa formal eta funtzional sakona egin da. Ondorioz, erakargarriago bihurtu dira, bakoitzari dagokion profil berezia zehaztu da eta dagozkien goi-funtzioak indartu dira. Jarraitu diren berrikuntza-programek orain arte hiri horien gainean zabaldua zegoen pertzepzioa aldatu dute eta, gaur egun, euskal hiriburuak nazioartean erreferente izatera iritsi direla esan daiteke.

Zailagoa da tamaina ertaineko hirien lurralde-berroreka eta sendotzea lortzeko garatu diren prozesuen balorazioa egitea. Oro har, LAAetan proposatutakoarekin bat datozen eraldaketa garrantzitsuak egin direla azpimarratu behar da. Haatik, prozesu honetan lurralde-mailako desberdintasun kualitatiboak ikus daitezke.

Horrela, eremu funtzionaletako hiri nagusiak berrorekatzeko eta garatzeko prozesuen ondorioz, esparru metropolitarrak hazi eta lurralde gero eta zabalagoak betetzen dituzte sarritan, zentraltasun berriak sortu baino gehiago.

Hirien kanpoaldean dentsitate baxuko eta ertaineko hazkundeak lortu dira eta merkataritza-azalera eta aisialdiko azalera handiak egin dira. Guztiarekin, eszenategi barreiatu bat lortu da eta zentraltasuna, hiri guneeetan egotetik, ingurune metropolitarrak gero eta zabalagoetan kokatutako esparru erakargarri berriek bereganatu dute.




Kontuan hartu behar da, ingurumen- eta hiri-kalitatea elementu erabakigarria izan dela lurralde-aldaketarako prozesu berrietan.

Paisaia erakargarrienerako kostaldeko zonak eta landa-esparruak azpimarratu behar dira hedapen metropolitarrako prozesuak antzemateko potentzial handien duten esparru gisa, bigarren etxebizitzak lehen etxebizitza bihurtzeko prozesuen bitartez.

Aitzitik, iraganean industria-pisu handien zuten hiri nagusiek eta hiriburuez kanpoko eremu funtzionalek ez dute gaitasunik erakusten iraganeko zentraltasunari eusteko eta, pixkanaka, pisu erlatiboa ari dira galtzen EAEko hiri-sisteman.

Kontuan hartu behar den hirugarren faktorea hiri gune handienekin komunikazio gutxien duten landa guneak dira. Landa gune gehienetan gainbehera-prozesuak bizi dituzte, nahiz eta, azpiegiturek izandako ugaritzearen eta hiri-prozesuen hedatzearen ondorioz, gainbeheran dauden landa guneak gune nagusietatik urrun geratzen diren lurretan kokatzen diren gaur egun, hala nola Enkartzazioetan edo Arabako hego-ekialdeko mendialdean.





Salbuespen moduan, betidanik dinamikotasun gutxien izan duen esparruan, Arabako Errioxan hain zuzen ere, badirudi egoera aldatu egin dela eta, gaur egun, Logroño bezalako hiri gune garrantzitsuarekin duen hurbiltasunak ematen dizkion aktiboak indartzeko estrategia baten aldeko apustua egin da bertan, nahiz eta EAEtik kanpo geratzen den.

Finkamendu-sistemak izandako aldaketa guztiez gain, LAAekin zati batean bakarrik erlazionatzen diren dinamika gehiago sortu dira. Hala nola, etxebizitzaren prezioak izan duen gorakada, egoitza tipologia berrien gorakada eta eskualde-mailako ekipamenduek zentraltasunak eta hiri-profilak sortzeko duten gaitasun mugatua; maila altuko ekipamendu publiko eta pribatu handien parean. Esparru batzuetan egoitza eta jarduerak zabaltzea ahalbidetzen du, baina, aldi berean, gune bitartekariaren hiri-funtzioak eta zerbitzuak murrizten ditu eta hirugarren sektoreko funtzio berriak eta jarduera ekonomikoko guneen tipologia berriak sortzen laguntzen du.

Zentzu horretan, LAAetan egindako proposamenak osatugabe daudela azpimarratu behar da.

Horrela, gaiaren inguruan ezarritako artezpide asko hobeto zehaztu eta garatu dira LZP eta LAPetan, hortaz, LAAek gaur egun duten idazketa kontuan hartuta,

ezer gutxi gehitu dezakete garatutako eta martxan diren prozesuen antolakuntzaren gainean.

Hazkunde irekiegiak kontrolatzeko edo garapen-prozesu batzuk suspertzeko orduan oso lagungarria izan daiteke hazkunde-prozesuen kuantifikazioa egitea, azken urteetan kalkulu-sistemaren gainean egindako doikuntzak alde batera utzita; baina ez da nahikoa izaten ereduaren oinarritzko helburu batzuk betetzeko.

Garapen metropolitarrako prozesu berrien inpaktuaren intentsitatea eta gaitasuna, hiri gune handien protagonismo izugarria, paisaiaren eta ingurumen-kalitatearen garrantzia, mugikortasuna areagotzea. Guztien kasuan erakutsitako garrantzia eta garatzeko azkartasuna hasiera batean aurreikusitakoa baino askoz garrantzitsuagoak izan dira.

Neurri handi batean, ikuspegi berriak behar ditugula esan dezakegu.


Sistema polinuklear batetik, osagai hierarkiko garrantzitsuak dituenetik, eskualde-hiriaren sistema berrira ari gara igarotzen; azkena oparoagoa da eta barreiatuagoa dago baina, era berean, dinamikoagoa eta anitzagoa da eta gero eta garrantzi handiagoa ematen zaie alderdi kualitatiboari.

Berrikuntza-ekimenekin erlacionatutako alderdiak dira, seguru asko, gutxien garatu direnak eta lurralde-eragin gutxien izan dutenak.

Horrela, beraz, Lurralde Eredua garatzeko orduan gertatu diren eta lehen aipatu ditugun hainbat gabezia uler daitezke.

Hiriburuen espazio enblematikoenetan bereziki, arrakasta itzela lortu duten zenbait berrikuntza-prozesu garatu dira. Bestalde, azken urteetan mota anitzeko programa ugari garatu dira: URBAN programa, Industria Aurrien Programa, hiri-birgaikuntzarako jarduerak eta herri guneen programak, eta abar. Hala ere, salbuespenak salbuespen, garatutako prozesuen ondorioz ez da aldaketa eraginkorrik lortu lurraldean. Horrela, egindako esku-hartze ugariaren eraginkortasuna mugatuta egon da hainbat arrazoiengatik: ikuspegi sektorialegia jarraitzeak ekarritako mugak, eskala txikiegia, helburu mugatuak eta, sarritan, eragindako agenteek akordio eraginkorrik lortzeko gaitasunik eduki ez izana.

LAA berriekin metodologia eta jarduera-irizpide zehatzagoak eta sakonagoak eskaini behar dira, horietan oinarrituta jarduera integralak diseinatzeko eta mota anitzeko proiektu estrategikoak eta esperientzia pilotuak bereizteko eta lantzeko; era berean, horrelako jarduerak osatzeko orduan oinarrizko elementu gisa erabili beharko dira kudeaketa-sistemak.



LAAen gainean egindako balorazio orokor hau laburbiltzeko, ondorengo alderdiak aipa daitezke egoera laburbiltzeko:

- LAA tresna bikaina izan dira plangintza-sistema oso bat garatzeko, udal-planei erreferentziazko esparru bat eskaintzeko eta arloko jardueretarako lurralde-orientazio sendoa lortzeko.
- Ekintza-lerro garrantzitsuak eskaini dizkigute eta LAA landu ziren unean lurraldean antzemandako prozesu kritikoen joera aldatzeko erabakigarriak izan dira gainera. Prozesu kritiko horien artean aipa daitezke: industria-jardueren gainbehera, ingurune fisikoaren narriadura eta lurraldeko ingurumen-kalitatea hobetzeko beharra.
- Finkamendu-sistemak, kanpo-baterakuntza, ingurumen-babesa eta iraunkortasuna, eta abar bezalako gaien inguruan egindako proposamen asko eta asko baliagarriak dira gaur egun ere, nahiz eta horiek eguneratu behar diren ezinbestean, eta azken urteetan izandako aldaketek ekarritako egoera berria ondo ulertzeko ikuspegi berrietara zabaldu.
- Plan, programa, arloko legeria eta lurraldean egindako jarduera zehatzen bitartez garatu dira LAA eta, horri esker, LAAetan adierazitako edukia- ren zati handi bat jada beteta dago gaur egun. Izan ere, gaur egun garapen- tresnak erabiliz dagoeneko egin diren ekintzak edo modu zehatzago eta luzeago batean garatu eta zehaztu diren ekintzak aipatzen dira LAAetan.
- Ezinbestekoa da zenbait alderdiren eguneratzeari ekitea, hiri ertainei dagokien funtzioa edo berrikuntza-ekintzak adibidez, izan ere, azken urteetan nabarmenki aldatu den errealitateari eraginkortasunez erantzutea lortu behar da.
- Bestalde, errealitate berri horrek, hasierako agirian ia aipatzen ez diren lurralde-mailako kontzeptu eta elementuei protagonismo berria emate- tea eskatzen du: mugikortasuna, paisaia, sarea, iraunkortasun globala, lurraldearen birziklapena eta ekonomia sortzailerako guneen garapena. Aipatutako guztiak funtsezko faktoretzat jotzen dira pertsona adimentsuak prestatzeko, gurean jarraitzeko eta gurera erakartzeko, hori delarik, gai- nera, gure lurraldearen lehiakortasuna eta iraunkortasuna lortzeko giltza garrantzitsuenetako bat.

EuskalHiria.NET  
Lurralde Estrategia Berria

C.

Eranskina.

Lurraldearen Antolamendurako  
Artezpideen Agiriaren Diagnostikoa

Eranskin honetan LAAen atalen eta kapituluaren azterketa sistematikoa aurkezten da. Horrela, LAAetan egindako proposamenek lurraldearen bilakaerarekiko izandako eraginkortasuna eta bertan adierazitako zehazpenek EAEk gaur egun dituen beharrekin duten bat etortzea aztertu dira.

Diagnostikoaren agiri hau osatzen duten kapituluetan, LAAk indarrean egon diren urteetan EAEko lurraldeak, gizarteak eta ekonomiak izan dituen aldaketa nagusiei buruz hitz egiten da.

Atal bakoitzean LAAetan egindako proposamenak aipatu dira, lurralde-mailako hainbat alderdirekin izandako erlazioa batez ere, eta gaur egungo egoera kontuan hartuta proposamen horien egokitasuna edo eraginkortasuna aztertu da halaber. Eranskin honetan LAAetako kapitulu bakoitzaren berrikuspen laburra egiten da, gaur egun duten baldagarritasuna ikusten da eta lurraldeak egun duen egoerarekiko duten funtzionamendua erakusten da.

Balorazioa egiteko agiri honetan barne hartutako diagnostikoa erabili da oinarrian, hortaz, aipatu agirian jada adierazi diren alderdiak errepikatuko ditugu. 11. kapituluaren azterketaren laburpena irakur daiteke.

### c.1. LURRALDE EREDUAREN OINARRIAK

Kapitulu honetan, agiria landu zen unean egindako diagnostikoaren laburpena barne hartu da: industria-krisialdia eta produkzio-sistemarena oro har, gainbehera demografikoa, ingurumen-narriadura eta hiri-krisialdia. Diagnostikoak zehaztasun handiarekin deskribatzen ditu euskal industria eredu krisian sartu zen uneko erronkak, baina oraindik ezin daiteke etapa berria antzeman.

Diagnostikoaren agiri honetan erakutsi den moduan, gaur egungo egoera arras desberdina da eta, neurri handi batean, aipatutako LAAen erronkak modu arrakastatsuan gainditu direla esan daiteke.

Ekonomiak nabarmenki egin du gora eta ekonomia-egiturak aldaketa erabakigarria ezagutu du eta goraka ari diren jarduera produktiboak indartu dira.

Biztanleria egonkortu egin da eta, zenbait kasutan, gorakada lortu da gainera, erregistratutako migrazio-saldo positiboek esker (azken hamarkadetan lehen aldiz).

Biztanleriaren zahartzea da, seguru aski, gaur egungo egitura demografikoaren fenomenorik deigarriena eta kezkarriena.

Modu berean, EAeko lurralde-testuinguruan aldaketa garrantzitsuak gertatu dira eta lurraldean eragin handia izan dute aldaketa horiek. Globalizazio-prozesuak azkartu egin dira eta gure lurraldeak aktiboki parte hartzen du prozesu horietan. Horrela, bere ekonomia kanpoko merkatuetara ari da zabaltzen, turismo-sektorea hazten ari da eta kanpoaldearekin egiten diren merkantzia eta pertsonen fluxuak gero eta garrantzitsuagoak dira.

Europar Batasunak garatutako lurralde ereduak batasuneko gune zentralak indartzen ditu lehentasunez baina, hala ere, azken urteetan aldaketa oso garrantzitsuak lortu dira. Irlanda bezalako herrialdeetan eta Europa hego-ekialdeko herrialde eta lurraldeetan hazkunde nabarmenak lortu dira. Europar Batasuna ekialdera begira jarri ahala, jarduera berritzaile ugari hegoalderantz mugitzen hasi dira.

## c.2. INGURUNE FISIKOA LURRALDE EREDUAREN OINARRI ETA EUSKARRI GISA

LAAetan ingurune fisikoaren eta lurzoru ez-urbanizagarriaren antolamenduaren gainean emandako zehazpenek zegozkien helburuak neurri handi batean bete dituztela baieztatu daiteke.

EAeko hirigintza- eta lurralde-tresna guztiek LAAetako antolamendu-kategoriak eta horien arautzea jarraitzen dituzte, erreferentzia orokor gisa, lurzoru ez-urbanizagarria antolatzeke, eta esparru bakoitzak dituen ezaugarriak LAAetan adierazitakora egokitzen dira. Lurraldearen Zatik Plan gehienak onartu dira eta, horri esker, lurraldearen zati handi batean babestu beharreko lurzoru ez-urbanizagarriak mugatu ahal izan dira, eta hirigintza-plangintzaren barruan sartu dira.

Naturgune Babestuei dagokienez, gaur egun, lurraldearen % 22,7 barne hartzen da babes-figuren baitan.

Figura horiekin guztiekin, ekainaren 30eko 16/1994 Legeak, EAeko naturaren babesari buruzkoak, ezartzen duen baliabide eta espezieen babesarekin batera, naturaren babes-esparru nahikoa zabal eta oso bat lortzen da, eta ingurune fisikoaren Artezpideak zentzu horretan adierazitakoaren zati handi bat betetzen da.

Ilido beretik, aipatzekoak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko 3/98 Legea eta lurraldeko biodibertsitatea leheneratzeko martxan jarri diren programa ugariak.

Azken urteetan Arloko Lurralde Planak eta hainbat antolamendu-plan onartu dira, hala nola ibai-ibilguak eta hezeguneak antolatzeko plana, kostaldea antolatzekoa (jada onartua) eta nekazaritza eta basorakoa (izapidetzen). LAAetan xedatutakoa aberasteko eta zehazteko balio dute guztiek eta lurraldeko ingurumen-sistamarako eta natur sistemetarako kudeaketa- eta babes-estrategiak proposatzen dituzte berariaz.

Azken urteetan, nabarmenki hobera egin du EAEko ingurumenaren eta ekosistema naturalen egoerak. Horretan zerikusi handia izan dute, zalantzarik gabe, LAAetan ezarritako zehazpenek, eta zerikusi handia izan dute, halaber, garatutako lurraldeko eta arloko ekintzek. Gainera, hazkunde eredu berri baten alde egiten da gero eta gehiago, eta biztanleriak, enpresek eta erakundeek lurraldeko ingurumen-kalitatea babesteko eta hobetzeko beharra azpimarratzen dute gero eta gehiago.

Adierazitako guztia kontuan hartuta, ingurune fisikoaren artezpidearen zati handi bat zaharkituta dagoela esan behar da. Zegokien helburua bete da eta

beharrezkoak ziren arloko araudia eta plangintza garatu dira, hortaz, ikuspegi berri batetik garatu behar dira aurrerantzean, hau da, EuskalHiria eskualde-hiriaren testuinguruan ingurune fisikoarekin lotutako erronka berriei erantzutera bideratu behar dira.

Lehen sektorea indar ekonomikoa galtzen ari dela ukaezina da duela mende erditik gaur egunera. Haatik, gaur egun hasi gara bereziki nabaritzen indar-galtze horrekin lotutako lurralde-ondorioak.

Prozesu horrek paisaiaren eraldaketa sakona dakar. Landa guneetan lehen sektoreak gero eta garrantzi gutxiago duen bitartean, bertako biztanleen jatorria eta bizimodua hiritar tipikoak direla esan daiteke.

Horrenbestez, inoiz ez bezalako egoera baten aurrean gaude eta paisaia ugari eraldaketa sakona ezagutuko duela azpimarratu behar da. Etapa berri honetan gainditu beharreko erronka garrantzitsuenen artean aipa daitezke landa guneen konfigurazio bisual eta funtzional berria ezartzea, lurraldearen kalitate globalera ekarpen erabakigarria egingo dela ziurtatzea eta aldaketa-prozesuak orientatzea, iraunkortasun eta bizi-kalitatearekin erlazionatutako helburu globalen arabera.



### c.3. finkamendu-sistema eta lurralde eredia

“Lurralde ereduak lurzoruaren politikan duen eragina” kapituluan egoitzagarapenei eta ekonomia-jardueretarako guneei buruz hitz egiten da, eta banaka aztertzekeo beharra azpimarratzen da.

Ekonomia-jardueretarako guneei dagokienez, LAAek bertan adierazitakoa Ekonomia Jardueretarako Lurzoruaren LAPen bitartez eta LZPen bitartez garatzea proposatzen dute.

- 2000. urtean onartu zen aipatu LAP eta, berari esker, antolamendutresna egoki bat eskuratu zen. Gainera, azken urteetan funtsezko elementua izan da barne hartutako lurzoruen garapena lortzeko.
- Horren parean, askoz ere beranduago onartu ziren LZPak eta, ondorioz, bertan adierazitakoa LAPetan adierazita dago jada eta gauza bera gertatzen da udalerrietan martxan dauden ekimenei erreparatuta.
- Eskuarki, jarduera guneak garatzeko prozesuetan lurralde ereduak ezarritako jarraibideak hartu dira kontuan, lurraldeko lurzoruen erabilgarritasunaren arabera.

- Azken 10 urteetan proportzioan gehien hazi den lurzoru-erabileraren modalitate bat da. Horrela, 1994 eta 2004 artean xede horretarako sailkatutako lurzoruek % 46ko hazkundea ezagutu dute.

- Hazkunde handiena Araba Erdialdeko eremu funtzionalean gertatu da, harrera-gaitasun handiagoa baitu. A-8 errepideko korridorean, Donostiako ingurune metropolitarran eta, batez ere Bilbokoan, izan dira hazkunde garrantzitsuenak.

- Aurreikusitako beste esparru batzuetan, adibidez Enkartzioetan, Arabako Errioxan, Nerbioi Garaian eta Deba Garaian, hazkundeak espero zitekeena baino baxuagoak izan dira.

- Komunikazio-ardatz handietara eta aglomerazio handietara hurbiltzeko iresgarritasun-irizpideak dira azken urteetan garapen berriak kokatzeko jarraitu diren oinarritzko irizpideak.

- Baina kokapen-irizpide horiek jarraitzeko orduan, garapen berrien ezaugarri bereziak hartu dira kontuan beti. Jarduera guneetan izandako

hazkunde berri gehienak merkataritza-azalera handien ezarpenen eta tamaina handiko ezarpen logistikoen ondorio dira. Erabilera horien guztien ezarpena eta horiek garatzeak lurraldean duen garrantzia ez dira ia kontuan hartzen LAAetan. Zentzu horretan esan behar da, artezpideak landu ziren garaian ezinezkoa zela gaur egun erabilera horiek izan duten hazkunde eta esanahi ikusgarria aurreikustea.

- Ez LAA, ez arloko edo udal-mailako plangintza, ez dira gai izan mota horretako jarduerak izandako hazkundeari erantzun egoki bat emateko. Horrela, kontuan hartu behar da eraldaketa sakonak ekarri dituztela lurraldearen funtzionamenduaren funtsezko hainbat alderditara, hala nola mugikortasuna, lurzoruaren kontsumoa, lana-etxebizitza erlazioa, finkamendu-sistemen maila desberdinen funtzionaltasuna. Berrito ere lurralde-mailako hausnarketa egin beharko genuke eta aipatutako prozesu guztiak ikuspegi zabalago batetik garatu, ekonomia-sektore jakin batzuetara mugatu beharrean.
- Oro har, hirugarren sektoreko jardueretara lotutako hazkundeetan bizitegi-finkamenduetan izandako aldaketen urrats berak eman direla esan daiteke; industria-garapenak eta garapen logistikoak, berriz, gero eta gehiago bereizten dira biztanleria guneetatik.

Bizitegi-lurzoruari dagokionez, LAAek bertan adierazitakoa garatzeko proposamena egiten dute:

- Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko LAP.
- LZPak etxebizitza maximoak eta eremu funtzionalen arabeko banaketa kuantifikatzeko tresna gisa.
- Hazkunde Selektiboko Guneak eta Habitat Alternatiboak identifikatzea. Horretara zuzenduko da, lehentasunez, egoitza-hazkundera, lurraldea berrorekatzeko eta esparru beteenak arintzeko helburuak betetzeko.

Ondoren aipatu dira artezpide hauen diagnostiko-erreferentzia nagusiak:

- Ez da onartu etxebizitzaren sustapen publikorako lurzorua antolatzeko LAP eta, ondorioz, ez dago LAAetan adierazitakoa garatzeko funtsezko elementurik, administrazioaren etxebizitza-politiketan lurraldearekin erlazionatutako alderdiak barne hartzen lagunduko duenik.
- Esanak esan, etxebizitza-politika lantzeko eta garatzeko orduan arloko jarduera-programak jarraitu dira, lurzorua erabiltzeko aukerak eta erabilgarritasuna bezalako irizpideak jarraituz funtsean, baina ez da kontuan hartu beti Lurralde Ereduak adierazitakoa.

- Ekimen pribatuko garapenetan prezio libreko etxebizitzaren portzentaje bat etxebizitza sozialak izateko aukerei buruzko xedapenen ondorioz, nabarmenki mugatu da herri-administrazioak egoitza-garapeneko prozesuak lurraldean orientatzeko duen gaitasuna. Gauzak horrela, azken hamarkadan EAEn egin diren egoitza-garapen berrien eragile nagusia eta berrorkatze- eta arintze-prozesuen lurralde-konfigurazioaren eragile nagusia aipatu behar bada, LAAen Lurralde Eredu berria baino lehen, operadore pribatuak azpimarratu behar dira.
- Edozein modutan, zalantzarik gabe esan daiteke ez dela lortu prezioak mugatuko dituen eskaintza egokia egitea eta, horren bidez, etxebizitza eskuratzeko aukerak erraztea. EAE da azken 10 urteetan etxebizitzaren prezioen gorakada handienak ezagutu dituen lurraldea eta, zehazkiago, Gipuzkoa eta Donostia. Bi esparru horiek Estatuko batez besteko mailarik altuenak erregistratu dituzte metro koadroko.
- Hala ere, ezin daiteke esan lurralde-politika denik EAEn barruan zein kanpoan zabaltzen ari den prozesu konplexu honen erantzulea. Gure lurraldeari lotutako alderdi askoren gainean hausnartu behar da oraindik, LAAetara aplikatu daitezkeen informazio gehigarria ekartzeko.
- Gipuzkoari dagokionez, lurzoru erabilgarri gutxi egotea faktore erabakigarria da kokapenak edo espazioak duen balio handia ulertzeko. Horrela uler daiteke, neurri batean, etxebizitzak duen prezio altua. Antzeko egoera bizi dute Bizkaian.
- Bestalde, EAEn proportzio altuagoak erregistratu dira jabetzako etxebizitzaren kasuan eta gutxi dira alokairuko etxebizitzak. Europako batez bestekoarekin alderatuz alde nabarmena ikus daiteke, Estatuko gainerako erkidegoen kasuan baino gehiago.
- Etxebizitzaren eskaintza mugatu edo agortu egin bada ere, horrek ez du etxebizitzaren garestitzea mugatu edo eragin. 1997 eta 2006 artean hazkunde demografikoa ez zen % 1era iritsi; EAEn etxebizitza nagusien kopuruak, berriz, % 18ko gorakada ezagutu zuen. Hazkunde horri dagokionez, % 23 Araban erregistratu zen, % 26 Bizkaian eta % 28 Gipuzkoan.
- Are nabarmenagoa izan zen egoitza-erabilerarako sailkatutako lurzorua hazkundea (hiritarra eta urbanizagarria): % 37 EAE osoan, % 54 Araban, % 43 Bizkaian eta % 16 Gipuzkoan.

- Kopuru horiez gain, hainbat hazkunde-fenomeno hartu behar dira kontuan. Esanak esan, Castro Urdiales, Laredo eta Santoña udalerrri kantabriarretan, azken 15 urteetan 20.000 etxebizitza berri eraiki direla kalkulatu da, etxebizitza gehien jabeak Bilbo Metropolitarrako herritarrak direlarik. Antzeko fenomeno errepikatzen da, nahiz eta kopuru baxuagoetan, Hendaia-Baiona inguruan, Donostiako eremu metropolitarrako herritarrekin.
- Agiri honi buruzko kapituluetan bigarren bizilekuarekin eta egoitza-garapenen kuantifikazioarekin erlazionatutako prozesuak aztertzen dira. Biak garrantzi handiko fenomenoak dira eta erabakigarriak dira, gainera, prozesu horien baitan.
- Lurralde-mailan hiru fenomeno oso garrantzitsu azpimarratu behar dira. Etxebizitza-parkeak izandako hazkunde-prozesuak eta prezioen hazkundera, lurralde eredu gero eta gehiago aldatzen dutenak, ulertarazten lagunduko digute.
- Ingurune metropolitarran kokatutako guneeetan, hiriburuekin ondo komunikatuta daudenetan eta hiri- eta paisaia-kalitate altuko osagaiak dituztenetan, erregistratu da eskariaren zati handiena eta, ondorioz, aukera gutxi eta lurraldeko eremu jakin batzuen balorazio altua eragin dira. Egoitza-garapen berri gehienak ondorengo guneeetan kokatu dira: Gipuzkoako kostaldean, Hondarribin eta Zarautz-Getaria-Zumaia ardatzean; Bizkaiko kostaldean, Getxotik Bakiora, Kadaguako korridorean, Durango inguruan eta Igorreko landa guneeetan eta Bilboko itsasadarraren eskuinaldeko udalerrietan, bai eta Arabako Lautadako iparraldeko guneeetan ere.
- Proporzionalki hiri guneeetan baino handiagoa izan da etxebizitza kopuruak izandako hazkundera landa guneeetan. Datu horrek hiriburuen eremu metropolitarrak inguruko landa guneeetara zabaldu direla adierazten du; eta landa guneeak barne hartu ditu bere etxebizitza- eta lan-merkatuetan.
- Etxebizitzaren tipologia berriak eraikitza zuzendutako prozesu aktibo bat bizi izan da (adosatuak, etxebizitza familiabakarra, blokea, eta abar), eta Arabaren eta Bizkaiaren kasuan bereziki nabarmena izan da, azken hamarkadetan dentsitate baxuagoak erregistratu direlarik (ezin daiteke gauza bera esan Gipuzkoaren kasuan, non azken urteetan izandako garapenen batez besteko dentsitateek nabarmenki gaintzen dituzten hazkunde berri askoren kokapen topografikoa dela eta lortu ohi direnak); era berean, espazio erakargarriagoak aukeratzen dira etxebizitza modernoagoak eraikitze eta, kasu horretan, urbanizazioaren, ingurunearen eta etxebizitzaren kalitateari garrantzi handia ematen zaio.

- Lurraldearen gainerakoan, aitzitik, merkatutik at geratzen diren etxebizitza-poltsa garrantzitsuak ikus daitezke. Adibidez, gainbeheran dauden landa guneeetan, edo hiriburuetatik urrun dauden edo iristeko zailak diren guneeetan, hau da, Enkartazioen zati handi batean, Urduñan, Valderejon eta Arabako mendialdearen zati handi batean, edo Bermeon eta Gernika itsasadarraren inguruan.
- Fenomeno hori bizi dute, halaber, etxebizitza eta hiri-espazio narriatuak dituzten zonetan, batez ere aspaldiko industrializazioak betetako eremuetan kokatzen direnetan. Ildo horretan aipa daitezke ezkerreko udalerriak eta Laudioko eremuak, Eibar, Arrasate, Tolosa, Pasaia, Zumarraga, eta abar.
- Esanak esan, lurzoru-politikaren kudeaketa aktiboaren bitartez LAAetan proposatutako Lurralde Ereduarekin bat datorren lurraldea berrerekatzeko eredu desitxuratu egiten da. LAAetan Hiri Hazkunde Selektiboa edukitzeko udalerririk gisa proposatutako artean Bilbo inguruko bakarrak lortu dute egoitzazko funtzio hori betetzea (Igorre, Zalla, Mungia, Durango eta Getxoko ardatza). Balmasedak, Urduñak eta Tolosak biztanleria galdu dute eta Agurainen eta Guardian lortutako hazkundeak aurreikusitakoak baino txikiagoak izan dira.
- Habitat Alternatiboak dagokienez, ingurune metropolitarrakoko guneeak dira, berriro ere, egotzitako funtzioa bete duten bakarrak; Arratiako EFko guneeak; Gordexola eta Meaña Bilbo inguruan; Oiartzun eta Hondarribia Donostiako eremu metropolitarrak; eta Gasteiz iparraldean, Lautada inguruan, kokatutako udalerriak.
- Ez dira aurreikusitako berrereka-prozesuak garatu Debarrenako eremuan, Goierriko eremuan, Enkartazioen mendebaldean edo Gasteiz-Miranda ardatzean eta espezializazio industrial eta logistikoko sendoak lortu dira.
- Aitzitik, aurreikusi gabeko hazkunde-esparruak azalatu dira. Gipuzkoan, Irunen eta Zarautzen bereziki eta, oro har, kostalde osoan. Bizkaian Bakioko kostaldea eta Ispaster-Mendexa arteko kostaldea, itsasadarraren eskuinaldea eta ezkerreko kanpoaldean geratzen diren zonak (Muskiz, Abanto-Zierbena), Artziniega eta Aiara, arabarrak azkenak baina funtzionalki Bilboarekin lotuta daudenak. Araban, Gasteiz bereganatu du hazkunde ia osoa. Lautadako Burgo eta Asparrena bezalako udalerriez gain, Errioxarekin mugakideak diren Oion eta Bastida bezalako udalerrietan ere hazkundeak gertatu dira.

Bigarren bizilekua eta turismo-baliabideak antolatzean helburu hirukoitz bat proposatzen da: turismoa eta bigarren etxebizitza sustatu nahi dira lurraldea dinamizatzeko, bigarren etxebizitzarekin erlazionatutako prozesuak lurraldean orientatzeko eta, LAAetako berrorka-estrategiak jarraituz, bigarren etxebizitzak etxebizitza nagusi bihurtzeko.

Aipatutako proposamenak ondorengo emaitzak lortu ditu:

- Turismo-jarduerak nabarmenki egin du gora azken urteetan. EAE bisitatzen duen turista kopuruak % 130etik gorako hazkundera ezagutu du 1992tik 2005era.
- Landa gunetan (Gernika, Tolosa, Arabako Errioxa eta Nerbioi Garaia batik bat) turismo-establezimenduen ugartzea apartekoa izan bada ere, EAEko turismoa hiri-jarduerarekin dago erlazionatuta batik bat. Bilbo eta Donostia dira erakargune nagusiak eta beraiek bereganatzen dute hotel-plazen eta erkidegoko turismoaren BEGren ia % 80.
- Europa mendebaldearen gainerakoan gertatzen den moduan, landaturismoak funtzio oso garrantzitsua betetzen du ondare eraikia kontserbatzeko eta nekazaritza gero eta gehiago jarduera marjinal bihurtzen ari den gunetan errentari eta jarduerari eusteko. Hala ere, landaturismoak

ez du gaitasunik, berak bakarrik, gune txikiak hutsik geratzea saihesteko edo lurraldeko joera demografikoak aldatzeko.

- Bigarren etxebizitza jada ez da EAEko hiri-garapenean berebiziko garrantzia duen elementu bat. 1991 eta 2001 artean etxebizitza nagusiek % 18ko hazkundera ezagutu zuten bitartean, % 4koa izan zen bigarren etxebizitzek ezagututakoa. Kopuru absolutuetan, Araban 900 etxebizitza gehiago daudela adierazten du ehuneko horrek; Gipuzkoan 2.400 gehiago dira eta 530 gehiago Bizkaian.
- Bigarren etxebizitzaren eskaria EAetik kanpo dauden gunetara orientatu da lehentasunez, eta hiriburuetan eta kostaldean kokatutako bigarren etxebizitzaren kopuruak egin du gora batik bat.
- Bigarren etxebizitza lehen bizileku bihurtzeko prozesuak orokorrak izan dira, Bizkaian eta Arabako Lautadan batez ere, eta ingurune metropolitarrak landa gune eta turismo guneen zati handi batera zabaldu dira gainera.
- Hala ere, bigarren etxebizitzak hazkunde handia ezagutu du, halaber, ingurumen-erakargarritasun bereziko hainbat esparrutan. Nerbioi Garaia, Urduña ingurua, Arabako Errioxa, Oñati, kostalde gipuzkoar osoa eta, neurri txikiago batean, Gernika itsasadarraren ingurua.

- Hasiera batean erabilera honetarako lehentasunezko zatitako proposatutako beste esparru batzuetan, ordea, murriztu egin da bigarren etxebizitzaren kopurua eta gora egin du, aitzitik, hutsik dauden kopuruak. Hori gertatu da, adibidez, Enkartazioen mendebaldean (Turtzioz, Karrantza, Lanestosa), Valdegovian eta Gipuzkoa barrualdean, Goierriko eremu funtzionalean.
- Ez dira garatu turismoko arloko planak lantzeko proposamenak eta lurraldean ez dute eraginkortasunik erakutsi iristeko errazen kokatuta dauden landa guneen edo aspaldiko industrializazioak sortutako guneen turismo-garapenerako egindako proposamenak.

Atsedeen Eremuen eta Lurraldera Sartzeko Guneen Sistemaren Artezpidearen proposamena funtsean LZPen bitartez garatzen da, eta ingurune naturalaz gozatzeko sistema bat egituratzea, espazio baliagarrien kontserbazioarekin bateragarria izango dena, espazio baliagarrietara lotutako gune txikietan aukera berriak sortzea eta, oro har, lurraldearen erakargarritasuna areagotzea bilatzen da.

Aisialdiko Eremuei dagokienez, Foru Aldundiek denbora daramate ingurune naturalean aisialdiko jardueretarako guneak egokitzeko politika zehatz bat garatzen.

LZPak onartzean, Aisialdiko Eremuen bereizketa eta karakterizazioa egiteko modua zabaldu eta sistematizatu da eta, horrez gain, Lurraldera Sartzeko Guneen kontzeptua erabiltzen hasi da lanean. Hala ere, ez da denbora gehiegi igaro LZPak onartu zirenetik eta, ondorioz, oraindik zaila da lurralde-mailan inolako eraginik antzemateko.

LAAetan eta LZPetan egindako zehazpenez gain, aipatutako ekimen guztiak, beste estrategia batzuekin, adibidez korridore ekologikoekin eta naturguneen kudeaketarekin, bat datozela frogatzeko proiektu zehatzak behar dira, eta lurraldean antzemandako prozesu berriak eta EAEko landa paisaia izandako aldaketak kontuan hartu eta guztiak berriro aztertzea komeni da.

Etxebizitza Beharrak eta Bizitegi Lurzoruaren Kuantifikazioa kapitulari helduta, etxebizitzak izandako bilakaerarekin eta finkamendu-sistemarekin izandako arazo asko eta asko lehenago ere aipatu dira. LAAetan ezarritako kuantifikazio-sistema behin-behinekoa zela zioen artezpideak eta errealtate berrietara egokitu behar da. Horrela, urteetan Lurralde Antolamendurako Batzordeak eta Foru Aldundiek lortu dituzten akordioei esker, koefizienteak eta irizpideak eguneratu ahal izan dira. LZPak onartzearekin batera, dagozkien ezarpen-esparruetako udal-hazkundeak 16 urtera begira kuantifikatu dira.

Kuantifikazio-irizpideek, edozein modutan, gure hirietan hazkunde neurritsua eta txukuna ekarri dute eta berez “smart growth” delako esperientzia bat osatzen dutela esan daiteke. Etorkizunera begira, lurralde-dinamika berriek ekarritako berrikuntzak barne hartu beharko dira:

- Gizarteak, ekonomiak eta lurraldeak jasaten dituen egitura-aldaketa azkarrak eta sakonak kontuan hartuta, ez da egokia iraganean gertatutakoaren gainean egindako proiektzioak oinarrian dituzten proposamenak egitea.
- Ez da egokia izaten iraganera jotzea, adibidez, kuantifikazio-prozesurako aldagai demografikoen kasuan. Azken hamar urteetan, familiaren batez besteko tamaina aldatu egin da: LAAetan batez beste hiru kideko familiak aipatzen ziren, baina EAEen 2,8ra murriztu da kopurua eta 2,5era, berriz, eremu funtzional batzuetan.
- Gainbeheran egotetik hobera egitera pasa da demografia eta hasi dira, pixkanaka, migrazio-saldo positiboak erregistratzen. Ezin daiteke aurreikusi etorkizunean migrazio-saldo positibo horiek edukiko duten eragina baina, seguru asko, lurraldean eragin handia edukiko dute, kontuan hartuta beste lurralde europar batzuetan gertatutakoa eta EAEko adin-egitura.

- Historikoki oso dinamikoak izan diren hainbat udalerritan murrizketa nabarmenak ezagutu dira aldi honetan, eta orain arte beti atzera egiten zuten beste hainbatetan, berriz, hazkunde handiak ezagutu dira.
- Hedapen metropolitarraren dinamikak, iresgarritasuna eta ingurumen- eta hirigintza-ezaugarriak dira hazkunde-prozesuak orientatzen dituzten faktore erabakigarriak, lurralde ereduaren orientazioak eta horrekin lotutako lurzoru-politikak baino askoz ere gehiago.
- Lurzoruaren eskaintzak izan duen hedapena, aitzitik, ez da nahikoa izan esparru metropolitarraren hazkunde- eta eraldaketa-prozesuetatik at geratu diren espazioak dinamizatzeko.
- Bigarren etxebizitzak betetzen zuen papera aldatu egin da, landa guzuek espazio metropolitarraren barruan sartu direlako eta lurraldeko eremu handietarako iresgarritasuna hobetu egin delako.



### c.4. LURRALDE EREDUAREN AZPIEGITURAK

LAAen azpiegituren kapituluan barne hartzen dira bere garaian arloko proiektu eta estrategia gisa osatutako helburuak eta zehazpenak.

Garrantzi handiko elementuak dira denak eta berariazko organismoek egotzi zaie horien garapena. Guztiarekin, azken urteetan azpiegituren plangintza eta gauzatzea nabarmenki sustatzea lortu da.

Errepideen eta trenbideen LZPak landu dira eta Bilboko portua eta aireportua bezalako obra garrantzitsuak egin dira edo Forondako aireportua gune logistiko handi bat bezala indartzea lortu da.

Azken finean, LAAetan adierazitakoa garatu izanak garbi erakusten du mota honetako ekimenak aurrera ateratzeko eskumena eta bitartekoak dituzten hainbat administrazio-organismok ekimen guztiak garatzeko erakutsitako borondatea.

Baina ezin daiteke gauza bera esan LAAetako zehazpenak arloko jardueren inbertsio-dinamikarekin zuzenean erlazionatzen ez diren alderdiei buruzkoak direnean, edo jarduerak garatzeko administrazio desberdinen koordinazioa behar denean. Izan ere, horrelakoetan, eragindako agentei dagozkien eskume-

nen esparrua gainditzen duten proiektu konplexuak artikulatu behar izaten dira. Antzeko egoerak ematen dira garraio kolektiboko sistema desberdinen koordinazioa egin behar denean, hiri espazioen eta mota askotako azpiegituren arteko erlazioan edo lurraldea azkar eragin duten lurralde eremuan izandako aldaketei erantzun behar zaienean.

Artezpideak osatzeko ikuspegi sektoriala jarraitu da eta, ondorioz, landu ziren garaian lehentasuna zuten plangintza-elementuak dira ardatz nagusia, eta ez dira ia kontuan hartu gaur egun EAEko lurralde-dinamika berrian funtsezkotzat jotzen diren hainbat alderdi:

Gune logistikoak eta berauen konexio-elementuak ezartzeko, garatzeko eta dimentsionatzeko irizpideak dira, gaur egun, trafiko-fluxuak egituratzeko eta lurzoru-azalera handiak betetzeko funtsezko faktoreetako bat. Azken urteetan lurraldean eragin handien izan duten jardueretako bat dira eta gero eta garrantzi gehiago izango dutela esan daiteke. Hala ere, LAAetan gutxi dira aipatutako erabilerekin erlazionatuta ematen diren lurralde-irizpideak. Horrela, beraz, arloen arabera ari dira antolatzen eta garatzen.

Garraio kolektiboko sistemen arteko artikulazioa, eta hiri-hazkundearen garraio-sistemen arteko erlazioa azpimarratu behar dira lurralde-mailako hausnarketa zehatzago bat behar duten elementu kritiko bezala. Gaur egun oraindik ez da lortu aldiriko tren-garraio hiru sistemen koordinazioa egokia izatea beti. Zentzu horretan, tren- eta tranbia-zerbitzuen izaera eta eragina, geltokiek zentraltasun-esparru eta truke modaleko esparru gisa betetzen duten funtzioa, hiri-garapenak garraio kolektiboko sistemak kontuan hartuta egituratzea, azpiegituren hiri-baterakuntza, eta abar, oraindik garatzeko dauden funtsezko alderdiak dira, edo eragileek egindako banakako ekimenen ondorioz ematen diren egoerak dira.

Antzeko egoera gertatzen da zenbait garraio-azpiegitura handiren kasuan. Portu-sistemei dagokienez, Pasaiako portuaren etorkizunari buruz gogoeta egiteko beharra azpimarratu behar da, kontuan hartuta trafiko-fluxuak berrantolatu direla eta hiri-berrikuntzako beharrak daudela. Horrela, beraz, LAAetan proposatzen den merkantzien trafikorako elementu gisa sustatzea baino zerbait gehiago egin beharko litzateke.

Abiadura Handiko Trenbide-sarea garatzeko oso garrantzitsua da geltokiek, zentraltasun berriak sortuko dituzten gune gisa, edukiko duten kokapenaren eta izaeraren lurralde-gogoeta egitea aurretik, toki-maila gainditzen duen eskala

batean. AHTren eta beste garraio eredu batzuen (aldirikoa, metroa, autobusa, hegazkina) arteko erlazioa funtsezkoa da komunikazio-sistema berri honek kanpo-konektibitateko eta eskualde-hiriaren barne-artikulaziorako duen potentzial guztia erakusteko.

Era berean, aldaketa handiak izan dira aireko trafikoan. AHTak aireportuen funtzionamendua eragingo du eta hegazkinak lehiakortasuna eta indarra galduko du hainbat erlazio garrantzitsutan. Aldi berean, norako berriak eskainiko dira eta hegaldi-eskaintza anitzago eta ugariago bat egiten duten eragileak agertuko dira. Horrez gain, ezin da ahaztu ezaugarri arras desberdineko aireportuen artean gero eta handiagoa dela elkarren arteko baterakuntza eta konektibitatea. Erkidegoko hiru aireportuei dagokien zereginarekin batera, ezin da ahaztu inguruko aireportu asko eta asko (Santander, Iruña, Logroño, Baiona, Pabe, eta abar) gero eta zeregin esanguratsuagoa ari direla betetzen EAEko aire-erlazioen osieran.

Energia-azpiegiturei dagokienez, gas naturalaren sarea lurraldearen zati handi batera zabaldu da eta gero eta parke eoliko gehiago ari dira egiten, biak ala biak direlarik azken hamarkadan lurraldean eragin handien izan duten elementuak.

Haatik, ez dira LAAetan energiarekin erlazioan aurreikusitako LAP guztiak garatu eta bai, ordea, parke eolikoena, nahiz eta LAAetan ez zen aurreikusten. Hiri-berrikuntzako garapen eta prozesuetan energia-eraginkortasunaren irizpideak barne hartzea eta euskal energia-egituran energia berriztagarriak areagotzea dira lurralde-estrategia berrian garrantzi handiagoa eman behar zaien erronka nagusiak.

Garraio-sistemen eta –azpiegituren kasuan esandakoak urari buruz hitz egiterakoan balio digu. Ipar Arroko eta Ebroren Arroko Plan Hidrologikoak eta ibai-ibilguak antolatzeke LAPak landu dira eta ekimen garrantzitsuak garatu dira saneamenduarekin erlazioan. Ondorioz, nabarmenki aldatu da uraren egoera eta LAAetan adierazitako helburuak betetzen hasi dira.

Hala ere, epe laburrera sortuko diren hainbat arazo esanguratsu konpondu gabe daudela azpimarratu behar da, besteak beste: Bilbo Metropolitarran eta inguruan hazten ari diren esparruen hornidura ziurtatzea, izan ere, gero eta gehiago erabiltzen dira Zadorraren arrotik egiten diren ur-hartzeak.

Bestalde, baliabide hidrikoen kudeaketak dakartzan eraginei, uraren kontsumo-mailei eta berrerabilerari buruzko gogoeta egin beharko litzateke; izan ere, hiri-garapeneko eredu berriak daude eta erabilera berriak sortu dira eta, horiek

kontuan hartuta, ur-eskariak gora egingo duela pentsa daiteke. Era berean, nekazaritza-azalera ureztatuetan izandako aldaketek erabilera eta paisaia berriak ekarri dituzte eta ekonomia-jarduera guztietan uraren erabilera eraginkorra egitea zaindu behar da.

Hondakin solidoei dagokienez, arloko administrazioek arauak, planak eta azpiegiturak garatu dituzte eta, horiei esker, LAAetan aurreikusitakoa bete da.

## c.5. LURRALDE EKIMENAK ONGIZATEA LORTZEKO ETA BERRITZEKO

Hiru kapitulutan banatzen dira hemen garatzen diren ekimenak: hiri-berrikuntza, izaera bereziko ondarea eta ekipamenduak eta hainbat emaitza.

Hiri-berrikuntzako jarduerari dagokienez, azpimarratzekoa da gurean modu asistematikoa eta barreiatuan garatu direla. Ez da lortu arloko organismo batek aipatutako proiektuak garatzeko ardura hartzea eta zaila izan da, gainera, administrazio eta agente publiko eta pribatu desberdinak nahasten dituzten proiektu konplexuak lantzea; ondorioz, aipatutako prozesuen lurralde-eragina mugatuta geratu da.

Horrelako egoera bat oso deigarria da, kontuan hartzen bada EAE, Bilboko Itsasadarraren berrikuntza-prozesuari esker, hiri-berrikuntzako jarduerarik ezagunena eta arrakastatsuen duen mundu-erreferente bihurtu dela. Proiektu emblematikoei, jarduera puntualei eta hedapen-efektuen konbinazioari esker, Bilbo biziberritzeko eta hiri dinamiko eta berritzaile bezala duen profil berria indartzeko garrantzi handia izaten ari den eraldaketa-prozesu bat ari da garatzen. Horrelako prozesuak, haatik, ez dira antzera garatu lurraldeko beste esparru batzuetan. Eta horren adibide garbiena lehen aipatutako Pasaiako badiarena da.

Antzekoa esan daiteke Hiri Guneei buruz hitz egitean. Bilboko edo Guardiako alde zaharrak dinamizatu eta hobetu diren bitartean, Urduña edo Balmaseda bezalako ondare gune baliagarri eta berezietan ez dago dinamismorik eta gainbeheran daude.

Industria-paisaiek ere hobera egin dute berrikuntza-ekimenen eskutik, hala nola Bilboko Itsasadarrak, eta, azpimarratzeko da, zentzu horretan, 90eko bigarren hamarkadan industria-aurriekin egindako lan handia. Hala ere, LAAetan aipatutako beste espazio batzuetan, Nerbioi Garaian, Deba bailaren edo Donostia-Tolosa korridorean, ez dira berariazko estrategiak garatu zentzu horretan, edo atzera bota dira industria-birkokapeneko ekimenak, uneko produkzio-ehuna ahultzeko beldurrez.

Azken finean, LAAetan proposatutako esparrua ez da egokia izan aipatutako helburuak betetzeko.

Eskema berri bat diseinatu behar da, berrikuntza-prozesuak mugatzen dituzten hirigintzako edo arloko oztopoak gainditzeko.

Lurraldea berritzeko eta eraldatzeko prozesuei esparru estrategiko bat eta kudeaketa-sistema integratu bat eskaini behar zaie, horren bidez proposamen koherenteak egiteko eta proposamenen alderdi formalak, funtzionalak eta sozioekonomikoak orientatzeko. Berrikuntza-ekintzak ekimen integral gisa ulertu behar dira, alegia, ondoren adierazitako alderdiak barne hartuta garatu behar dira: lurralde- eta hiri-esparruarekiko baterakuntza, paisaia, ingurumen-kalitatea, erabileren nahasketa, mugikortasuna, jarduera guneak sortzea, etxebizitzaren birgaitzea eta espazio publikoena, eskari eta behar berrien arabera. Eta aipatutako guztia behar den bezala egiteko kudeaketa-esparru egoki bat osatu behar da, sektore publikoaren eta pribatuaren ikuspegitik ekimen guztiak bideragarriak eta erakargarriak izateko eta horien gauzatzea sustatzeko. Azken hamarkadan EAEn izan diren esperientzia arrakastatsuenek baieztatzen dutenez, Artezpideen ikuspegitik Proiektu Estrategikoen ikuspegira igarotzeko ordua iritsi da.

Ondarearen kapituluan EAeko Kultur Ondarea Babesteko Legearen edukia adierazten da, hortaz, lurralde-mailan ezer gutxi esan daiteke. Ez da garatu LAAetan aipatzen den Ondarearen LAP. Horrenbestez, kasuan kasuko arloko sailen esku geratu da dagokion lurralde-garapena. Ikuspegi horren arabera -gune historiko

askoren gaineko protekzionismoa bilatu da-, oso mugatuta daude lurraldearen kalitate eta identitatearen funtsezko elementu hau garapen- eta birkualifikazio-ekimenetan barne hartzeko aukerak.

Ekipamenduei dagokienez, behin betiko onartutako agirian, hiri-sistemen eta hornidura-sistemen arteko erlazio koherente bat ezartzeko beharra azpimarratzen zen funtsean, eta biztanleriaren bizi-kalitaterako eta EAeko hirien hiri-profila eta egitura ekonomikoaren profila aldatzeko hornikuntza jakin batzuen garrantzia azpimarratzen zen halaber.

Oraindik ez da ekipamendu-sistemen gaineko LAPik landu, hortaz, ekipamendu-sistemek ezagututako garapena, arloko hainbat organismok euren irizpide propioak jarraituz egin dituzten jardueren emaitza da. Zalantzarik gabe, azken hamarkadan nabarmenki egin da gora lurralde-estaldurari eta biztanleriari eskaintzen zaizkien zerbitzuen kalitateari dagokienez; era berean, lurralde-dinamika berri bat islatzen duten ekipamendu enblematikoak garatu dira. Hornidura-sistemak ezagutu duen hedapenak lurralde ereduaren jarraibideak jarraitu ditu neurri handi batean, batez ere eremu funtzionaletako hiri nagusien zerbitzu-eskaintzari dagokionez.

Haatik, lurraldean aldaketak eta egoera berriak antzeman daitezke eta, horiek kontuan hartuta, garrantzi handiagoa eman beharko litzaioke ekipamenduen gainean egin behar den gogoetan lurralde-osagaiari.

Lehenik eta behin, komunikazio-sistemek izandako hobekuntzak eta automobilaren erabilerak izandako gorakadak nabarmenki murrizten dute eskualdeko eta tokiko ekipamendu ugari bete beharreko funtzioa, hiriburuetako zerbitzu konplexuago eta anitzagoen mesederako. Gaur egungo ekipamendu-sistemak behar den bezala funtzionatzeko funtsezko alderdiak dira eskaria berriak eta biztanleriaren zahartzea eta ospitale handiek sortutako bidaiak, edo merkataritzagune eta aisialdiko gune berriek sortutakoak, beste eskari batzuk asetzeko erabiltzen direnak. Gainera, kontuan hartu behar da esparru metropolitarraren hazkunde funtzionala eta kuota demografiko garrantzitsuek egoitza gune berrietan izandako berkitzea. Horrekin guztiarekin lotuta, ezinbestekoa da ekipamenduen eta iresgarritasunaren arteko erlazio koherente bat ezartzea, batez ere garraio kolektiboko sistemen bitartez.

### c.6. LAA APLIKATZEKO GILTZAK ETA ERREFERENTZIAK

Atal honek artezpideak aplikatzeko eta horien ondoriozko plangintza garatzeko erreferentzia instrumentalak barne hartzen ditu.

Plangintzak bateragarri egiteko prozesua modu nahiko eraginkorrean bete da, bi prozesu paralelo garatuz. Alde batetik, hirigintzako udal-plangintzak berrikusteko prozesuetan, baterakuntza- eta koordinazio-elementuak gehitu dira, LAAetan horrela adierazten zenean, eta, horrela, hiri gune jarraituei eta garapen bateratuko eremuei koherentzia handiagoa ematea lortu da. Bestalde, jada landutako LZPetan adierazitako guztia hartu da kontuan, hortaz, udalaz gaindiko eskala batetik bateragarri egiteko orientazioak eta sistemak eskaini dira, eta, askotan, LAAetan barne hartzen ez diren egoerak sortu dira.

LAAetan egindako proposamenen artetik garrantzitsuenak Eremu Funtzionalak dira. Izan ere, eremu funtzionalek adierazten dituzte LZPei dagozkien esparruak, eta makina bat zehazpen barne hartzen dituzte: egoitza-lurzoruari buruzkoa, ekonomia-jardueretarako lurzoruari buruzkoa, aisialdiko eremuei buruzkoa, eta abar.

Tarteko eskala artikulatzeko funtsezko esparruak dira, baina gogoeta sakona egin beharko litzateke beraien gainean:

Lehenik eta behin, lurralde-esparru jakin batzuetan, batez ere hedapen metropolitarrako eremuetan eta landa guneeetan, funtzionaltasun-aldaketa esanguratsua gertatu dira, eta aldaketa horiek kontuan hartu behar dira etorkizunera begira. Horrela, kasu batzuetan eremuen mugak aldatu beharko dira, edo esparru jakin batzuen kasuan berariazkoagoa den lurralde-estrategia bat garatu beharko da, tentsio- edo aldaketa-egoerak bizi dituzten esparruetara begira eskualde-mailako proposamen zehatzagoak egiteko.

Bestalde, Eremu Funtzionalaren kontzeptuaren elementu nagusia hiri nagusia da. Hiri nagusiek erakutsitako portaera desberdina dela eta, hiri ertainen egoerei erantzuteko berariazko estrategiak garatu behar dira, hartara, hiri ertainek Eskualde-Hiriaren egitura berrian funtzio aktibo bat betetzeko. Zentzu horretan, Eskualde-Hirian gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio polizentrismoari eta, era berean, metropoli, hiri ertain eta landa guneen arteko protagonismo partekatua sustatzen da, funtzio berriak eta lurralde-ezarpen berriak eskainiz.